URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBA •
69
RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI •



# GARAPEN IRAUNKORRAREN ARLOKO INTERPRETAZIO, IKERKETA, GAIKUNTZA ETA HEZKUNTZA PLANA URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAN (PICE-IGHP)

2015 - 2025

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL

# GARAPEN IRAUNKORRARAREN ARLOKO INTERPRETAZIO, IKERKETA, GAIKUNTZA ETA HEZKUNTZA PLANA URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAN

## 2015 - 2025
## PICE-IGHP

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaularitzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

Argitaraldia: 1.a, 2015eko otsaila

Ale-kopurua: 100 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ingurumena eta Lurralde Politika Saila

Argazkiak: Mikel Arrazola, Jon Maguregi eta UBEko Zerbitzu Teknikoa (moldatuak)

Irudiak: Gorka Gorospe (moldatuak)

Diseinua eta maketazioa: EkipoPO

Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, S. L.

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaularitzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central
de Publicaciones del Gobierno Vasco, Donostia-San Sebastián, 1- 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Dosbi (San Michel de Atxa, 29 - 01010 Vitoria-Gasteiz)

Lege-gordailua: XVI 111-2015

Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura

Urdaibai
Biosfera Erreserba
Reserva de la Biosfera

## Idazle-taldea

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzu Teknikoa. Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

## Laguntza teknikoa

Confluentia (Consorcio de Servicios Integrales para la Sostenibilidad).

## Parte-hartzea eta kolaborazioa

Ainara Belaustegi (SEEZ), Aitana Uria (Unesco Etxearen Iraunkortasun Programa), Alfonso Caño (Gernikako Ekologi Lan Taldea), Amagoia Beika (Lanbide Ekimenak (Gernika-Lumo)), Ana B. Herrero (Jose Mª Uzelai HLHI (Busturia)), Angélica San Martín (Eusko Jaurlaritzaren Ingurugela-Bizkaiaren zuzendaria), Arantza Atxa (Unesco Etxearen zuzendaria), Arkaitz Erkiaga (Ur Urdaibai (Turismo Aktiboaren eta Beste zerbitzuen batzuen azpisektoreko mahaiaren ordezkaria)), Aurori Herrero (SEEZ), Begoña Landa (Behargintza Bermeo), Beñat Urkidi (SEEZ), Doroteo Zobaran (Urdaibai On), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center-eko teknikaria/idazkaria (Aranzadi)), Eider Ojanguren (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntza), Ibon Mandaluniz (Urremendi LGEren kudeatzailea), Idoia Garate (Urremendi LGEko turismo-teknikaria), Iker Fernandez (Orgaus Systems (2014an, lehiakortasun-programetan laguntzen duen enpresa)), Iker Urcelay (Basquetour), Iñaki Markuerkiaga (Urdaibai On), Jaione Lanborena (IHOBE), Javier Aguirre (IHOBEren zuzendaria), Jose Félix Basozabal (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntza), Jose Mari Olaeta (Lurraska Baserri Eskola), Jose Mari Unamuno (Urdaibai Bird Center-en zuzendaria (Aranzadi)), Joseba Martínez (Busturialdeako Ingurugelaren arduraduna), Josu Larruskain (Ortzadarreko Ingurumen Hezkuntzako arduraduna), Josu Rementeria (Atxurra hotela (Ostatuen azpisektoreko mahaiaren ordezkaria)), Koldo Lezamiz (Busturialdeko Ekologia Elkarteen Federakuntza. Galtzagorriak), Laura Uruburu (Gernika-Lumoko Berritzeguneko zuzendaria), Leire del Moral (Orgaus Systems (2014an, lehiakortasun-programetan laguntzen duen enpresa)), Loli Cal (Gorozika Natura Eskola), Mª Mar Alonso (IHOBE), Maite Gordobil (Lanbide Ekimenen zuzendaritza (Gernika-Lumo)), Manuela Badiola (Mundakako Udala), Maria Uribe (Ingurumen zuzendaria. Bizkaiko Foru Aldundia), Miren Onaindia (Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko Unesco katedraren koordinatzailea), Mónika Iribarren (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntza), Nagore Zobaran (Lurraska), Oihana Azantza (SEEZ), Pilar Silva (Ortzadar), Roque Perez (Madariaga dorretxeko programen eta zerbitzuen burua), Soraya Bastida (SEEZko zuzendari pedagogikoa), Teresa Andres (HAZI), Xabier Arana (Iraunkortasuneko eta Ingurumen Hezkuntzako atalburua. Bizkaiko Foru Aldundia), Xabier Vallejo (SEEZ).



# Aurkibidea


Akronimoen zerrenda ....................9

1. Sarrera ....................11

1. 1. Biosfera Erreserben funtzioak eta PICE-IGHPren helburua ....................12
1. 2. Partaidetza ....................13

2. Lehentasunezko Diagnosi Elementuen laburpena ....................15

3. Ekintza-plana ....................19

3. 1. PICE-IGHPren esparru teorikoa eta balioak ....................19
3. 2. PICE-IGHPren egitura ....................19
3. 3. Helburuak eta programak ....................20
3. 3. 1. Koordinazio eta Lankidetza Programa ....................20
3. 3. 3. Dibulgazio eta Interpretazio Programa ....................21
3. 3. 4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa: hezkuntza testuinguru formala eta ez-Formala ....................22
3. 3. 5. Iraunkortasunaren Alorreko Prestakuntza / Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa ....................22
3.3.6. Ikerketa Zientifikorako Programa ....................23
3. 4. Lankidetzazko antolakuntza ....................23
3. 4. 1. Dibulgazio eta Interpretazio Programa ....................26
3. 4. 2. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa ....................27
3. 4. 3. Iraunkortasunaren Alorreko Prestakuntza / Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa ....................28
3. 4. 4. Ikerketa Zientifikorako Programa ....................29
3. 5. Planaren eta ekintzen garapena ....................30
3. 5. 1. Koordinazio eta Lankidetza Programa ....................31
3. 5. 2. Informazio eta Komunikazio Programa ....................38
3. 5. 3. Dibulgazio eta Interpretazio Programa ....................48
3. 5. 4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa: hezkuntza testuinguru formala eta ez-formala ....................65
3. 5. 5. Iraunkortasunerako Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa ....................80
3. 5. 6. Ikerketa Zientifikorako Programa ....................91
3.6. Gutxi gorabeherako aurrekontua ....................101

4. Jarraipen- eta ebaluazio-programa ....................103

4. 1. Jarraipenaren arduraduna ....................103
4.2. PICE-IGHP berrikustea ....................103
4. 2. 1. Koordinazio eta Lankidetza Programaren jarraipen-adierazleak ....................104
4. 2. 2. Informazioa eta Komunikazioa Programaren jarraipen-adierazleak ....................105
4. 2. 3. Dibulgazioa eta Interpretazioa Programaren jarraipen-adierazleak ....................106
4. 2. 4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza: hezkuntza testuinguru formala eta ez formala Programaren jarraipen-adierazleak ....................107
4. 2. 5. Iraunkortasunerako Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programaren jarraipen-adierazleak ....................108
4. 2. 6. Ikerketa Zientifikoa Programaren jarraipen-adierazleak ....................109
4. 3. Etorkizuneko agertokia eta espero diren emaitzak ....................110
4.3.1. Koordinazio eta Lankidetza Programa ....................110
4.3.2. Informazio eta Komunikazio Programa ....................111
4.3.3. Dibulgazio eta Interpretazio Programa ....................113

4.3.4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa: hezkuntza testuinguru formala eta ez-formala.........115
4.3.5. Iraunkortasunaren Alorreko Prestakuntza / Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa ......................117
4.3.6. Ikerketa Zientifikorako Programa ..........................................................................................................118

5. Eranskinak .............................................................................................................................................119

# Akronimoen zerrenda

| | |
|---|---|
| BFA | Bizkaiko Foru Aldundia |
| EA21 | Eskolako Agenda 21 |
| EJ | Eusko Jaurlaritza |
| EKEG | Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidaria |
| EUDEL | Euskadiko Udalen Elkartea |
| GIH | Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza |
| GIHH | Garapen Iraukorreko Hezkuntzaren Hamarkada |
| GIIHK | Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra |
| HAEE | Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea |
| HB - EJ | Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (EJ) |
| JSHGP | Jarduera Sozioekonomikoen Harmonizaziorako eta Garapenerako Plana |
| OAPN | Organismo Autónomo de Parques Naturales |
| PICE-IGHP | Garapen iraunkorraren arloko Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Hezkuntza Plana |
| RAES 21 | “Iraunkortasunerako eskola” izendapena jaso duten Euskadiko ikastetxeen sarea |
| RRBBEE | Red de Reservas de la Biosfera Españolas |
| SEEZ | Sukarrietako Eskola Esperimentaziorako Zentroa |
| UBC | Urdaibai Bird Center |
| UBE | Urdaibaiko Biosfera Erreserba |
| UNESCO | Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea |
| UPV-EHU | Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea |
| Urremendi LGE | Urremendi Landa Garapen Elkartea |



# 1. Sarrera

"...Biosfera Erreserbak eraginkorrak izan daitezela mundu-mailan, eskualde-mailan, estatu-mailan nahiz tokian tokiko garapen iraunkorrerako ikaskuntza-lekuak diren aldetik."

Madrilgo Ekintza Plan

Biosfera Erreserben munduko Sarearen helburua da, besteak beste, rol aktiboa izatea, garapen iraunkorrari buruz ikasteko aukera ematen duten lekuen sarea den aldetik. Hortaz, Sare hori osatzen duten lurraldeetan proiektu eta programa aitzindarien entseguak egin behar dira; hala, jardunbide egokiak esportatuko dira, giza garapenaren eta naturaren zaintzaren arteko integrazio egokiari buruz. Hala, Biosfera Erreserbek kudeaketa iraunkorraren emaitzak erakutsi behar dizkiete biztanleei eta bisitan etortzen direnei, eta gizarte-eraldaketa lortzeko bidea erakutsi beharko diete, garapen iraunkorrerako bidean.

Ehunka urtez gizakiaren eta natura-ingurunearen artean izandako garapen orekatuaren ondorioz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak (aurrerantzean, UBE) natura-ondare garrantzitsua du. Biosfera Erreserbaren irudia dauden natura-baliabideen erabilera iraunkorra sustatzeko xedez sortu zen, etorkizuneko belaunaldientzat erabilera hori arriskuan jarri gabe. Hala, UBE berrikuntzaren eredu aitzindaria izan da izendapena jaso zuenetik, eta garapen iraunkorraren eredu, ikaskuntza-eredu eta tokiko partaidetzarekin garapen iraunkorrerako hezkuntzarako jardueren sustapen-gune izaten jarraitzea du xede.

2014ko azaroan Aichi-Nagoyan egindako UNESCOren Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari (GIH) buruzko Mundu Konferentzian, erabaki zen UNESCOren Konferentzia Nagusiaren 37. saioan onartutako GIHri buruzko Munduko Ekintza Programa sustatzea, Nazio Batuen GIHren Hamarkadari ekarpen zehatz bat egite aldera. Programa horren xedea da irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren alor eta maila guztietan ekintza sortzea eta hedatzea, bai eta garapen iraunkorrerako bidean aurrerapenak azkartzea ere; izan ere, honako hauek lortuko ditu:

a) irakaskuntza eta ikaskuntza berbideratzea, mundu guztiak ezagutzak, gaitasunak, balioak eta jarrerak barneratzeko aukera izan dezan, garapen iraunkorra lortzen eta gauzak aldatzen lagundu ahal izateko; eta

b) irakaskuntza eta ikaskuntza indartzea, garapen iraunkorra sustatzen duten programa eta jarduera guztietan.

Programak lehentasunezko bost ekintza-eremu identifikatzen ditu. Ekintza-eremu horiek osatzen dute plan honetan egindako analisia, eta aurreikusitako ekintzak indartzen dituzte:

— Politikak sustatzea. GIH hezkuntzan integratzea, eta garapen iraunkorra, nazioarteko nahiz nazio-mailako politiketan.

— Iraunkortasunaren jardunbideak testuinguru pedagogikoetan eta gaikuntza-testuinguruetan integratzea (erakundea bere osotasunean hartzen duten ikuspuntuen bitartez);

— Hezitzaileen eta prestatzaileen gaitasunak handitzea;

— Gazteei autonomia ematea eta horiek mobilizatzea;

— Tokian tokiko komunitateei eta udal-agintariei oinarri komunitarioa duten GIH-programak egiteko eskatzea.

Hala, honako hauek dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Garapen iraunkorraren arloko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-plana (aurrerantzean, PICE-IGHP) idazteko eredu gisa erabili diren garapen iraunkorrerako hezkuntzarako ekintza-printzipioak edo lan-balioak:




Aldaketa handiak lortzeko, ekintza berriak proposatu behar dira, ausardiaz berritu, modu berriak asmatu eta akatsetatik ikasi. UBEren nahia da ekintzaileentzako eta arriskatzeko laborategia izatea, metodologia berriak abian jarrita, eta hala, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzan gertaera garrantzitsu berriak lortzea.

Kulturartekotasuna ardatz hartuta, pertsonen ahalduntzea ekintzaren eta partaidetzaren oinarri izanik, eta elkarrizketa tresna gisa hartuta, PICE-IGHPren bitartez lortu nahi da UBEren inguruko kontzientzia berria eta haren kudeaketa egokia lortzea. Aldaketa horiek konpartimenduetan zatitutako kudeaketa gainditu behar dute, Gobernantza-eredu bat lortzeko. Laburbilduz, herritarren mentalitatea aldatu nahi da, garapen iraunkorrera etor dadin; lurraldearen ikuspegiaren norabidea aldatu nahi da, holistikoa izan dadin; eta natura-baliabideen erabilera ez-eraginkorra aldatu nahi da, hura berbideratuta.

PICE-IGHPk zehaztuko ditu GIHn (interpretazioa, ikerketa, gaikuntza, etab.) UBEn proposatutako mugarriak lortzeko behar diren tresnak, bai eta emaitzak inplikatutako eragileei modu eraginkorrean jakinaraztea bermatzeko tresnak ere. Horien ebaluazioa ere egingo du, planaren helburuak berriz hornitzeko, eta elkarrekin ikasten jarraitzeko; hala, kudeaketa moldagarria egingo du.

PICE-IGHP UBEn GIHren alde lanean jarraitzeko bidea da, 30 urteko lanaren ondoren. Eta bide hori lurralde interesgarri horretan bizi diren, lan egiten duten eta hartaz gozatzen duten guztien artean egin behar da.

## 1. 1. Biosfera Erreserben funtzioak eta PICE-IGHPren helburua

Eskemak Biosfera Erreserba batek esleituta dituen funtzioei erantzuten die, eta natura- eta kultura-ondarearen zaintzaren harmonizazioaren eta garapen ekonomiko iraunkorraren inguruan daude antolatuta. Eskema honetan, naturaren eta kulturaren zaintza balantzaren muturretako bat da, eta tokiko biztanleriaren garapenaren sustapena beste muturrean, baina bi osagaiak bata bestea bezain garrantzitsuak eta beharrezkoak dira, eta batzen dituen proiektua da UBEren ezaugarri espezifikoa.




Laguntza logistikoa deritzon hirugarren funtzioak, honako hauetarako baliabideak antolatzen ditu: giza jardueren eta natura-ingurunearen arteko interakzioei buruzko ikerketak egiteko, prestakuntza-, gaikuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzeko, bere ibilbidearen aurrerapenak zabaltzeko, eta kide den sareetan truke- eta komunikazio-fluxuan laguntzeko. Helburu orokor horri erantzun nahi dio PICE-IGHPk.

## 1. 2. Partaidetza

Diagnosia (ikusi I. Eranskina) eta PICE-IGHP honen Ekintza Plana idazteko prozesu guztian, partaidetza ezinbesteko oinarria izan da informazioa eta proposamenak biltzeko, Ekintza Plana egituratzeko eta Plana aurreikusitako 10 urteetan aplikatuko duen gobernantza eta antolakuntza zehazteko.

Diagnosian, Urdaibain garapen iraunkorraren arloko Interpretazioan, Ikerketan, Gaikuntzan eta GIIHn jarduten duten funtsezko eragileen bitartez bideratu da partaidetza; izan ere, eragile horiek beste eragile asko ordezkatzen dituzte eta bide luzea eta harreman zuzena dituzte alor horietan. Horri esker, kalitate handiko informazioa lor daiteke. Hainbat elkarrizketa eta partaidetza-saio egin ziren, eta horri esker, modu eraginkorrean identifikatu dira Lehentasunezko Diagnosi Elementuak eta inplikatutako eragileek ekintza estrategikorako proposamena eman ahal izan dute.

Informazio horrekin, proposamen teknikoa idatzi zen; gero, proposamen hori zuzenean kontrastatu da eragileekin bigarren fasean, Planaren gobernantzari buruzkoan. Fase horretan, lan-batzarrak egin dira PICE-IGHPren sustatzaileetzat edo kolaboratzailetzat hartutako eragileekin, haien ekarpenak jaso, eta hura gauzatzen esku hartuko duten eragileekin adostutako dokumentu bat osatzen aldera.





# 2. Lehentasunezko Diagnosi Elementuen laburpena

Hona hemen diagnosian (ikusi I. Eranskina) identifikatutako Lehentasunezko Diagnosi Elementuen laburpena. Elementu horiek dira ekintza-plana egiteko ardatz logikoak. II. Eranskinean, Ekintza Planean horiek barnean hartzen eta garatzen dituzten helburuekin lotzen dira, proiektuaren helburu orokorrarekin bat etorriz jarduteko, eta indarguneei eusteko, horiek sustatzeko eta ustiatzeko nahiz hobetu beharreko alderdiei aurre egiteko edo horiek hobetzeko.

| LDE | Diagnosi-elementua |
|---|---|
| LDE 1. | Koordinazio-falta edozein sektoretan inplikatutako eragileen artean. |
| LDE 2. | Koordinazio gutxi hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean. |
| LDE 3. | Koordinazio gutxi interpretazioko eta turismoko sektoreetan. |
| LDE 4. | Nahiko koordinazio ona tokiko gaikuntza-eragileen artean (Behargintza Gernika-Lumo, Behargintza Bermeo, Mundaka, Sukarrieta eta Lanbide Gernika-Lumo). |
| LDE 5. | Plangintza- eta koordinazio-falta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ikerketa-jardueran. |
| LDE 6. | Ikuspegi lehiakorra eragile gehienen artean. |
| LDE 7. | Hezkuntza formaleko ikastetxeen lankidetza-sarea, Eskolako Agenda 21i esker. |
| LDE 8. | Lankidetza Kontseilu bat egoteak eragileen arteko komunikazioa eta lankidetza erraztu behar ditu. |
| LDE 9. | Ondo antolatutako koordinazioa eta komunikazioa behar dira eragileen eta Patronatuaren artean. |
| LDE 10. | UBEri eta Patronatuari buruz zabaldutako informazioa oso urria da, eta hori ez da lagungarria parte-hartze soziala sustatzeko. |

### Informazioa, komunikazioa eta dibulgazioa

| LDE | Diagnosi-elementua |
|---|---|
| LDE 11. | Informazio- eta komunikazio-kanal zuzen bat falta da Biosfera Erreserbako organo kudeatzailearen eta bertako biztanleen artean. |
| LDE 12. | Urdaibai marka barneratzea. |
| LDE 13. | Jendeak bat egiten du UBErekin, baina sektore batzuek pertzepzio negatiboa dute Biosfera Erreserbaren irudiarekiko. |
| LDE 14. | UBEko argitalpenek lehenetsitako beharrei erantzuten diete, baina plangintza falta da haiek egitean. |
| LDE 15. | Plangintza-falta dago seinaleztapenean, eta horren ondorioz, oso heterogeneoak dira. |
| LDE 16. | Biosfera Erreserbari buruzko informazioaren jarioa ez da arina dauden informazio-ekipamenduen artean. |
| LDE 17. | Landetxeen eta nekazaritza-turismoko etxeen sareak turismo-informazioko funtzio garrantzitsua egiten du. |
| LDE 18. | UBEren informazio-puntuak falta dira; bereziki, Gernika-Lumon. |

### Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioa

| LDE | Diagnosi-elementua |
|---|---|
| LDE 19. | Interpretaziorako natura- eta kultura-baliabideak oso ugariak eta mota askotakoak dira. |
| LDE 20. | Eskaintza eta jarduera ugari daude natura-balioen interpretazioaren alorrean. |
| LDE 21. | Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko interpretazio-ekipamendu nagusi eta ahaltsu bat falta da. |
| LDE 22. | Ez dago Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren interpretazio-estrategia integraturik. |
| LDE 23. | Bideen sistema integrala idazte-prozesuan dago. |
| LDE 24. | Planteamendu bateratuak eta anitzagoak behar dira GIHri buruz. |

### Garapen iraunkorrerako hezkuntza: hezkuntza-testuinguru formala eta ez-formala

| LDE | Diagnosi-elementua |
|---|---|
| LDE 25. | Ekipamendu autonomoek kalitate ona dute, azpiegiturei, baliabideei eta ikastetxeen eskura dagoen GIHren alorreko eskaintzari dagokienez. |
| LDE 26. | Garapen iraunkorrerako hezkuntzarako programak egiten dituzten ekipamendu autonomoetan, lankidetza- eta koordinazio-estrategia bateratu bat falta da hezkuntza-alderdiei dagokienez. |
| LDE 27. | Ekipamenduaren arabera, GIHrako aplikatutako metodologia-maila ez da berdina. |
| LDE 28. | Egindako praktiketan, paradigma-aldaketa baten beharra ikusi da, ingurumen-hezkuntzatik Garapen iraunkorrerako hezkuntzara igarotzeko. |
| LDE 29. | UBEn, hezkuntza-proposamen ez-formalak aholkatu eta dinamizatuko dituen eragile baten beharra dago, CEIDA historikoen antzekoa eta inguruetan kokatua (UBEn). |
| LDE 30. | Ikastetxeek Eskolako Agenda 21 programaren bitartez lantzen dute garapen iraunkorra, eta oso kalitate onez eta partehartze handiarekin egiten dute hori. |
| LDE 31. | UBEren ildo estrategikoak jakinarazteko eta partekatzeko beharra dago, EA21 programaren bitartez ekipamendu autonomoek eta ikastetxeek beren ekintzak lurraldearen benetako beharrei lotze aldera. |

### Prestakuntza eta gaikuntza

| LDE | Diagnosi-elementua |
|---|---|
| LDE 32. | Eskualdeko gaikuntza-agentzia guztiek (Behargintzak eta Lanbide Ekimenak) prestakuntzaren bat eskaintzen dute garapen iraunkorraren alorrean, baina eskaintza oso mugatua da. |
| LDE 33. | Eskualdeko prestakuntza-eskaintzan, jardunbide egokiei eta garapen iraunkorrari buruzko prestakuntzaren ehuneko txikia. |
| LDE 34. | Ez dago garapen iraunkorrerako esanguratsuak diren zenbait gairen eta eragileren inguruko prestakuntza-/gaikuntza-eskaintza espezifikorik eskualdean, ez eta lurralde historikoan ere (hala nola basogintzaren, arrantzaren eta industriaren inguruan). |
| LDE 35. | Urremendi LGEk turismo-sektoreari zuzendutako garapen iraunkorrerako prestakuntza eskaintzen du (Helmugako Turismo Kalitateko Sistema Integral baten Jardunbide Egokiak), baina askoz gehiago gara daitezke. |
| LDE 36. | Eskualdeko Garapen Agentziak sektore arteko foro bat sortzen eta dinamizatzen ari dira gaikuntzaren eta sustapen ekonomikoaren alorrean. |
| LDE 37. | Bitarteko eta baliabide gutxi daude gaikuntza eta sustapen ekonomiko iraunkorrerako programen jarraitutasuna bermatzeko. |

### Ikerketa zientifikoa

| LDE | Diagnosi-elementua |
|---|---|
| LDE 38. | Mota askotako eragileek kalitate handiko eta ezagutza-alor askotako ikerketa egiten dute UBEri buruz; eragile horietako batzuek UBEri dagokion lurraldean dituzte ikerketa-zentroak. |
| LDE 39. | Ez dago UBEren lidergorik, UBEri buruzko ikerketa koordinatzeko, orientatzeko eta hedatzeko. |
| LDE 40. | Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra bat dago, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserban egindako ikerketaren balizko koordinaziorako erreferentzia-organoa da. |
| LDE 41. | Ez dago UBEren inguruko ikerketa Patronatuarekin batera koordinatzen eta hedatzen duen zentrorik, ez eta dokumentazio-zentro eguneratu eta eraginkorrik ere. |
| LDE 42. | Ezagutza zientifikoaren transmisioa ez da nahikoa zientzialarien artean, zientzialarien eta UBEko organo kudeatzailearen artean, ez eta eragile sozioekonomikoekiko eta tokiko biztanleekiko ere. |
| LDE 43. | Ez da behar adina garatu UBEko alor sozioekonomikoei, kulturalei eta kudeaketa-alorrei buruzko ikerketa. |
| LDE 44. | Egiaz, oso gutxi aplikatzen dira ikerketa zientifikoko proiektuen emaitzak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren plangintzan eta kudeaketan. |
| LDE 45. | Ez daude identifikatuta UBEren kudeaketan ikerlanen bidez konpondu beharreko arazoak eta beharrak. |

### Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioa eta turismo-erabilera

| LDE | Diagnosi-elementua |
|---|---|
| LDE 46. | Natura- eta kultura-balio apartak dituen lurraldea. |
| LDE 47. | Ez zaie behar besteko garrantzia ematen Urdaibaiko natura- eta kultura-baliabideei. |
| LDE 48. | Ahalmen handia dago garapen iraunkorrerako interpretazioa eta hezkuntza UBEren turismo-eskaintzan integratzeko. |
| LDE 49. | Ez dago turistari eskaintzaren ikuspegi orokorra ematen dion informazio zentralizatu eta adosturik. |
| LDE 50. | Zenbait koordinazio-ekimen daude abian eragile pribatuen eta tokiko garapen-erakundeen artean, eta ahalmen handia dute UBEren Patronatuarekin batera UBEren helburuekin bat datorren turismo iraunkorra garatzeko jarraitu beharreko estrategia zehazteko eta adosteko. |





# 3. Ekintza-plana

## 3. 1. PICE-IGHPren esparru teorikoa eta balioak

PICE-IGHPk diagnosian proposatutako diagnosi-elementuak (ikusi I. eta II. Eranskinak) lortzeko tresnak zehazten ditu, eta bereziki, honako hauek egiteko: giza jardueren eta natura-ingurunearen arteko interakzioari buruzko ikerketak garatzeko; prestakuntza-, gaikuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak gauzatzeko; eta bere ibilbidearen aurrerapenak zabaltzeko eta hura osatzen duten sareetan truke- eta komunikazio-fluxuan laguntzeko.

Ekintzaileentzako laborategi izatea da UBEren nahia, metodologia berriak martxan jarriz, eta hala, garapen iraunkorraren alorrean mugarri berriak lortuz. Eta aldaketa handiak lortzeko, beharrezkoa da ekintza berriak proposatzea, ausardiaz berrituta, modu berriak asmatuta eta akatsetatik ikasita.

Ekintzaren oinarrian pertsonen partaidetza eta ahalduntzea hartuta, eta elkarrizketa tresna nagusi delarik, PICE-IGHPren bitartez, kontzientzia berria eta Biosfera Erreserban garapen iraunkorra lortzeko kudeaketa sortu nahi dira aldi berean. Aldaketa horiek konpartimenduetan zatitutako kudeaketa gainditu behar dute, lankidetzazko gobernantza-eredu bat lortzeko. Laburbilduz, herritarrengan, kudeatzaileengan eta erabakiak hartzen dituztenengan mentalitate-aldaketa bat lortzeko lan egitea proposatzen da, garapen iraunkorra lortze aldera.

Helburuen zehaztapena eta horiek garatzen dituzten ekintzak, zehazki, Plan honen eta proposamenaren antolakuntzaren ideologia osatzen duten balioak oinarri hartuta landu dira:

— *Partaidetza.* Ekintza-planak inplikatutako eragile guztien partaidetza sustatzen du. Partaidetza funtsezko ardatza da laguntza logistikorako funtzioa garatzeko. PICE-IGHPren helburuak eta lehentasunezko ekintzak bideratuta daude eragileen komunikazioa eta parte-hartzea lortzeko beharrezko bideak zehaztera, nola Plana gauzatzean hala hausnarketa-maila handiagoa eskatzen duten lan-lerroen definiziorako eta zehaztapenerako ekintza parte-hartzaileak eta gogoetazkoak egitean.

— *Lankidetza.* Proposatutako antolaketa-ereduak egun aktibo dauden eragileen arteko lankidetza bilatzen du, dagoeneko egiten ari diren lana sustatzeko, baina haien konpetentzia-alorrak eta ekimen pribatua errespetatuz, eta, aldi berean, haien arteko lankidetza eta alor bakoitzeko lankidetza-sareak sustatuz.

— *Praktikotasuna.* Plan estrategiko bat izanik, planak zuzenean gauzatzeko hainbat ekintza proposatzen ditu.

— *UNESCOrekin koherentea.* Man and Biosphere (MaB) programarekin, Madrilgo Ekintza Planarekin eta Sevillako Estrategiarekin lerrokatuta dago. Era berean, lerrokatuta dago Nazio Batuen “Garapen iraunkorrerako hezkuntzari buruzko munduko ekintza-programarekin”, 2014. urtearen ondoren Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkadari (GIHH) jarraituz.

## 3. 2. PICE-IGHPren egitura

Ekintza-plana gaikako programetan dago egituratuta, eta programa horiek helburu orokor bat edo biren bitartez garatzen dira. Era beran, horiek helburu espezifikoen bitartez zehazten dira, eta lehen ikusi den bezala, lotura zuzena dute Lehentasunezko Diagnosi Elementuekin (LDE).

Helburu espezifiko bakoitzarentzat, hura lortzearekin espero diren emaitzak eta hura lortzeko planifikatutako ekintzak identifikatzen dira.

Espero diren emaitzak zehazteak aukera ematen du helburu espezifikoak planaren ezarpen-aldian (10 urte) kuantifikatzeko, eta horri esker, horiek lorpenaren jarraipen- eta ebaluazio-lanak erraztuko dira.

Ekintza Planaren oinarrizko egitura




Plana zeharkako programa eta programa ardatz hauen bitartez dago egituratuta:

—*Programa ardatzak:*

- Dibulgazio eta Interpretazio Programa.
- Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa: hezkuntza-testuinguru formala eta ez-formala.
- Iraunkortasunaren Alorreko Prestakuntza / Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa.
- Ikerketa Zientifikorako Programa.

—*Zeharkako programak:*

- Koordinazio eta Lankidetza Programa.
- Informazio eta Komunikazio Programa.

## 3. 3. Helburuak eta programak

### 3. 3. 1. Koordinazio eta Lankidetza Programa

Helburu orokorra:

1. Garapen iraunkorraren alorreko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-eragileen koordinazioa eta lankidetza lortzea, eremu bakoitzean eta horien guztien artean; hala, elkarrekin, UBEn garapen iraunkorra lortzeko aurrera egite aldera.

Helburu espezifikoak:

H.1.1 Planaren alor bakoitzeko eragileen artean eta horien eta Patronatuaren artean komunikaziorako eta lankidetzarako mekanismo eraginkorrak izatea.

H.1.2 Partaidetzaren bitartez, Madariaga dorretxeari lankidetzazko ekipamendu gisa antolakuntza funtzionaleko eredu berri bat zehaztea, dauden interpretazio-, hezkuntza- eta turismo-ekipamenduen eta -zerbitzuen artean koordinazioa eta sinergiak sortzea lortze aldera.

H.1.3 UBEn, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean garapen iraunkorrerako koordinazio-mekanismo eraginkor eta eskuragarri bat izatea.

H.1.4 Lankidetza-sareei eustea.

## 3. 3. 2. Informazio eta Komunikazio Programa

Helburu orokorra:

2. Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko.

Helburu espezifikoak:

H.2.1 UBEren informazio- eta komunikazio-ekintzak ondo planifikatuta eta koherentziaz gauzatzea.

H.2.2 UBEren webgune korporatibo bat izatea, UBEri buruzko informazio guztia hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan integratuko duena.

H.2.3 UBEri eta tokiko biztanleei zuzenduta dituen jarduerei buruzko informazioa eta komunikazioa hobetzea, biztanleriak UBErekin eta haren jarduerekin bat egin dezan; hori guztia, UBEren hainbat urtetarako etorkizuneko komunikazio-programaren esparruan.

H.2.4 UBEri buruzko informazio-puntuak eta bisitarien harrera-puntuak izatea.

H.2.5 UBEren dokumentazio-zentroa eguneratuta, eraginkor eta UBEren organo kudeatzaileari lotuta izatea.

H.2.6 UBEri dagokion lurraldean, seinaleztapen bakar osoa eta homogeneoa lortzea, lurraldean seinaleztapena ezartzen duten eragileekin adostuta eta bateratuta.

## 3. 3. 3. Dibulgazio eta Interpretazio Programa

Helburu orokorra:

3. UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak.

Helburu espezifikoak:

H.3.1 UBEren etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan, UBE ezagutzeko eta haren balioa handitzeko jarduerak biltzea eta zabaltzea, tokiko biztanleriari pizgarriak eskainita.

H.3.2 Bisitariari UBEren ikuspegi osoa eskainiko dion dibulgazio-materialen oinarrizko bilduma bat izatea, bai eta tokiko ingurunea eta kultura ezagutzeko eta errespetatzeko beharrezko informazioa ere, idazteko dagoen etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan.

H.3.3 UBEren Informazio eta Interpretazio Zentro bat izatea Madariaga dorretxean.

H.3.4 Egindako informazio- eta dibulgazio-materialen banaketa-sare zabal eta eraginkor bat ezartzea, haien hedapena tokiko biztanleriaren artean nahiz UBEra hurbiltzen diren turisten artean maximizatzeko.

H.3.5 UBEko bideak sustatzea eta haien berri ematea, lurraldea ezagutzeko eta interpretatzeko baliabide garrantzitsua diren aldetik.

H.3.6 UBEko natura- eta kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzea, haren bisitarako eta interpretaziorako, bai eta baliabide turistikoa den aldetik ere.

H.3.7 Ezagutzen koordinaziorako, lankidetzarako, transmisiorako eta trukerako mekanismoak izatea, ondarearen interpretazioan eta turismoan inplikatutako eragile guztien artean.

## 3. 3. 4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa: hezkuntza testuinguru formala eta ez-Formala

Helburu orokorra:

4. Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin.

Helburu espezifikoak:

H.4.1 Garapen iraunkorrerako hezkuntza-berrikuntza lortzeko, ekintza-programa oso eta koherente bat zehaztea eta ezartzea.

H.4.2 Gaztediaren inplikazioa lortzea, garapen iraunkorrerako aldaketa-eragile diren aldetik.

H.4.3 Adostutako kalitate-irizpideak ezartzea eta aplikatzea UBEko GIH-ekipamenduetan eta -programetan, etengabeko jarraipen-, ebaluazio- eta hobekuntza-prozesu baten barruan.

H.4.4 IRAES21 sarearekin bat egiten duten “Iraunkortasunerako eskolen” ehunekoa handitzea.

H.4.5 Gizarte-ingurunea ikastetxeetako hezkuntza-proiektuekin uztartzea eta inplikatzea.

H.4.6 Berrikuntzarako garapen iraunkorrerako hezkuntza-esperientzien eta -metodologien trukeak erraztea.

H.4.7 Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza barneratzea, lurraldearen kudeaketarako zeharkako alderdi gisa.

## 3. 3. 5. Iraunkortasunaren Alorreko Prestakuntza / Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa

Helburu orokorra:

5. UBEko komunitateak beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izatea, ingurumenaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorrean lurraldean garapen iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko.

Helburu espezifikoak:

H.5.1 UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea.

H.5.2 Eragile hauetako bakoitzari zuzendutako prestakuntza-/gaikuntza-ekintza antolatzea, eta horien artean elkarren arteko prestakuntza sustatzea:

—natura- eta kultura-ondarearen interpretazioan jarduten duten langileak

—hezkuntza ez-formaleko zentroetako hezitzaileak.

—zerbitzuen sektorea eta turismoa.

—lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza edo basogintza).

—industria- eta eraikuntza-sektorea.

H.5.3 Udaletako arduradun politikoei eta teknikariei UBEren kudeaketaren inguruko informazio garrantzitsuenaren berri ematea: helburuak, balioak, ekintzak, etab.

H.5.4 UBEko irakasleei zuzendutako prestakuntza-eskaintza handitzea, GIHren alorrean metodologia berritzaileak txertatzeko eta UBErekin lotura estuagoa lortzeko.

### 3.3.6. Ikerketa Zientifikorako Programa

Helburu orokorra:

6. Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea.

Helburu espezifikoak:

H.6.1 Ikerketa-jarduera koordinatzea.

H.6.2 UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketa zientifikoaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea.

H.6.3 UBErako identifikatutako beharrak jorratzen dituzten ikerlan zientifikoak sustatzea.

H.6.4 Ezagutza zientifikoaren trukerako eta transmisiorako tresna egonkorrak ezartzea.

H.6.5 Patronatuak sustatuta, Garapen iraunkorraren alorreko ikerketa- edo behaketa-jarduerei berriz heltzea edo eustea.

## 3. 4. Lankidetzazko antolakuntza

Orokorrean identifikatutako diagnosi-elementuak aztertuz gero, sektore bakoitzean PICE-IGHPren helburuekin lerrokatuta lan egiten duten eragile aktiboak daudela nabarmendu daiteke, baina, halaber, eragile desberdinen artean –publikoak nahiz pribatuak– koordinazio-falta dagoela ere azpimarratzen da, Planaren lan-eremu bakoitzaren barruan nahiz lan-eremu horien artean. Hori dela eta, azaldutako printzipio iradokitzaileei jarraituz, Ekintza Planak lankidetzan oinarritutako antolakuntza-eredu bat proposatzen du.

Planak honako programa ardatz hauek ditu:

—Dibulgazio eta Interpretazio Programa.

—Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa: hezkuntza-testuinguru formala eta ez-formala.

—Iraunkortasunaren Aorreko Prestakuntza / Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa.

—Ikerketa Zientifikorako Programa.

Horietako bakoitza honako hauen bitartez egituratzen da:

—*Idazkaritza teknikoa.* Programan jasotako helburu eta ekintza guztiak sustatzeaz eta Koordinazio Batzordeak ondo funtzionatzen duela zaintzeaz arduratzen da. Programa bakoitzeko Idazkaritza Teknikoa egun UBEn gai horri buruz lanean ari den erakunde publiko edo pribatu baten esku uzteko egin da lan, programa bakoitzeko lidergo teknikoa bere gain har dezan.

—*Koordinazio Batzordea.* Beren artean egiazko koordinazioa lortze aldera programaren ekintzak sustatzen dituzten erakunde nagusien eta programa bakoitzeko helburuekin lotutako funtzioak izan eta UBEren lurraldean lan egiten duten eragileen arteko aldian aldiko bilera. Batzorde bakoitzak bere dinamika eta antolakuntza izango ditu, eta Idazkaritza Teknikoak koordinatuko ditu horiek.

—*Lankidetza-mekanismoak.* Programa bakoitzean zehaztutako ekintzen artean, batzuk gai eta ekintza-programa baten barruan parte hartzen duten eragileen arteko koordinaziorako eta lan bateraturako tresnak dira.

Gainerako bi programak –koordinazio- eta lankidetza-programa eta informazio- eta komunikazio-programa– beste programen zehar-programa gisa sortu dira.

Jarraian, PICE-IGHP zer lankidetza-esparrutan garatu behar den erakusten duen kontzeptu-eskema dago irudikatuta; han ikus daitekeenez, UBEren Patronatuak eta haren zerbitzu teknikoak *proposamenak biltzeko, koordinatzeko eta dinamizatzeko funtzioa bete behar du, eta horiek guztiak UBEren helburuekin eta eginkizunarekin bat datozela zaindu behar du.* PICE-IGHPren programa ardatz bakoitzaren koordinazio- eta sustapen-lanak dagoeneko badauden eta eraginkorrak diren egituren gain jartzeko egin da lan.

Idazkaritza Tekniko bakoitzak UBEren Zerbitzu Teknikoaren eta PICE-IGHPren programa bakoitzaren garapenean inplikatutako eragileen arteko bitartekoa izan behar du.

Udalsarea plataforma bat izango da, udalek plan honen exekuzioan parte har dezaten, Koordinazio Batzorde bakoitzarekin artikulatuta.

Lankidetza-esparruaren kontzeptu-eskema



Urdaibaiko Biosfera Erreserbarako PICE-IGHPren lankidetza antolaketari buruzko organigrama



## 3. 4. 1. Dibulgazio eta Interpretazio Programa

| Idazkaritza Teknikoa | Koordinazio Batzordea |
|---|---|
| IHOBE (Eusko Jaurlaritza) | • UBEko zerbitzu teknikoa<br>• Urremendi LGE<br>• BFA Turismoa<br>• Basquetour |

### Koordinazio-mekanismoak

Interpretazio-eragileek izaera anitza dute, publikoa eta pribatua, hezkuntza-alorrekoa eta turistikoa; hori dela eta, haien arteko koordinazioak partekatzen dituzten puntuak bilatzen ditu sarean lan egiteko, baterako proiektu bat egin gabe, hezkuntza-sektorearen kasuan bezala, adibidez.

Sareko lan hori sustatzeko, sektore guztiarentzako amankomunak diren prestakuntza-estrategiak proposatzen dira, bai eta topaketa bat ere: UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko topaketa. Topaketa horren buru UBEk, GIHko programaren koordinatzaileak, GIH ez-formalaren mahaiak eta Urremendi LGEk (E.3.7.1) izan behar dute, eta hauek dira haren helburuak:

—UBEren, haren baliabideen eta ingurumen-interpretaziorako balioen ezagutza kolektiboa handitzea eta zabaltzea.

—UBEko interpretazio-eskaintza ezagutzea.

—Interpretazio- eta turismo-jardueren hartzaileei igorri beharreko oinarrizko edukiak elkarrekin lantzea.

—Eskaintza etengabe hobetzeko kalitate-irizpideen edo jardunbide egokien zehaztapena elkarrekin lantzea, eta UBEren interpretazioan esku hartzen duten eragileen artean adostasuna bilatzea.

—Interpretazioaren eta UBEren erabilera publikoaren alorrean prestakuntza-/gaikuntza- eta ikerketa-beharrak identifikatzea.

Madariaga dorretxeko UBEren interpretazio-zentroan (H.3.3) dokumentazio-zentroa eta sortutako informazio-material guztia egongo da (H.2.5). Tokiko biztanleriari eta turistei zabalik egongo da, eta partaidetzaz zehaztutako lankidetza-rol berria izango du (H.1.3); UBEren organo kudeatzaileak eta zerbitzuak izan behar dute horren buru. Honela planteatu da lankidetza-rola (E.1.2.1): Madariaga dorretxea zentroak erabiltzaileei harrera egin, eta UBEko gainerako interpretazio-/hezkuntza- eta turismo-ekipamenduetara eta -zerbitzuetara bideratuko ditu. Madariaga dorretxea dagoeneko interpretazioa egiten ari diren erakundeak sustatzen saiatuko da, bai eta horiek erabiltzen ere, bere jarduerak garatzeko. Hala, sareko lana eta garapen iraunkorrerako jardueren garapen ekonomikoa sustatuko dira.

Turismo-sektoreak UBEko ondarearen interpretazio-lan handia egiten du. Horrenbestez, garrantzitsua da turismo-sektorearekin koordinatuta lan egitea, eta koordinazio hori lortzeko hainbat alderdi lantzea; besteak beste, honako hauek:

—Urremendi LGE buru duen Eskualdeko Turismo Mahaiko kide izaten jarraitzea, turismo-sektore guztiaren ildo komunetan lan egiten baitu.

—Mahai horretatik, Ekintza Plan honetan detektatutako eta Turismo Plan Estrategikoa osatzen duten lehentasunezko lan-ildoak eta ekintzak sustatzea (zerrendatutako ekintzetan zehaztu da, funtsean, informazio-, komunikazio-, dibulgazio- eta interpretazio-programa) (H.3.6).

## 3. 4. 2. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa

| Idazkaritza Teknikoa | Koordinazio Batzordea |
|---|---|
| Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza) | • UBEko zerbitzu teknikoa<br>• BFA Ingurumena<br>• Ingurumen Hezkuntza (EJ)<br>• Unesco Etxea |

### Koordinazio-mekanismoak

Gaur egun, Eskolako Agenda 21 da GIHren alorreko hezkuntza-sektore formalerako koordinazio-tresna garrantzitsua da UBEn, EAE guztian bezala, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurugela zerbitzuak koordinatzen du hori. Iraunkortasunerako programa horrek ikastetxeen % 100en atxikimendua du, eta lanean jarraitzea proposatu da (E.1.1.2), ikastetxe guztiek IRAES21 sareari atxikitako "Iraunkortasunerako eskola" ziurtagiria jaso dezaten.

Bizkaian, indarrean dago Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasunean oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa (IHEE); Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Agenda 21en (Bizkaia 21 Programa) parte da, eta, halaber, haren zehaztapenak erantzun egiten die Nazio Batuek "Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada 2005-2014" aldarrikatzea zehaztutako printzipioei eta helburuei. Gaur egun, Plan hori berrikuste-lanetan dago, eta hortaz, Bizkaiko Foru Aldundia funtsezko eragilea da Urdaibaiko hezkuntza-alderdietan.

Plan honetan, irudi tekniko berri bat sortzea proposatzen da (E.1.3.1) *GIHko koordinatzaile gisa;* irudi horren bitartez, GIHn aholkularitza eman ahal izango da, bai eta koordinazioa ere, sektore guztian, formalean nahiz ez-formalean. Haren lehentasunezko funtzioa UBE GIHren alorrean ereduzko lurraldea eta lurralde berritzailea izan dadin lortzea izango da, bai eta proiektuak garatzea eta GIH ez-formalaren mahaiaren buru izatea ere (E.1.1.1).

Hezkuntza-eragileen zenbait helburu berdin dituzte, eta horri esker, iraunkortasuna eta sektorearen jarduera ekonomikoa hobetzen lagundu dezaketen proposamen bateratuak proposatzen dira. Hezkuntza ez-formaleko eragileek osatutako koordinazio-batzordea sektore ez-formalarekin koordinatzea proposatzen da, *GIH ez-formaleko lan- eta eztabaida-mahai* baten bitartez (E.1.1.1); mahai horrek funtzio hauek izango lituzke:

— UBEn, GIHren alorreko berrikuntzarako Ekintza Programa bat idaztea.

— Interpretazio-baliabideen inbentarioan parte hartzea.

— Prestakuntza-/gaikuntza- eta ikerketa-beharrak identifikatzea.

— Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eragileen artean baterako lan-sare bat sortzea.

— UBEren, haren baliabideen eta GIHren alorreko balioen ezagutza kolektiboa handitzea eta zabaltzea.

— Europan nahiz mundu-mailan GIHri buruz dauden proposamenak, arauak eta egungo joerak ezagutzea, eta horiek UBEren testuinguruan nola egokitu daitezkeen eta aplikagarriak ote diren baloratzea.

— Interpretazio-jardueren hartzaileei igorri beharreko oinarrizko edukia adostea.

— Hezkuntza-kalitateari buruzko irizpide komun batzuk lankidetzan zehaztea, GIHren alorreko UBEko ekipamenduetan eta programetan aplikatzeko.

— UBEn, *Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Topaketa* antolatzea (E.4.6.1), kontuan hartuta aurreko urteetan egindakoak (1996 eta 2006).

## 3. 4. 3. Iraunkortasunaren Alorreko Prestakuntza / Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa

| Idazkaritza Teknikoa | Koordinazio Batzordea |
|---|---|
| Behargintza Bermeo | • UBEko zerbitzu teknikoa<br>• Lanbide Ekimenak<br>• Ingurugela (HB—EJ)<br>• Hazi |

### Koordinazio-mekanismoak

Gaur egun, Behargintza Bermeotik eta Lanbide Ekimenetatik *15 foroa* ari dira sortzen, Busturialdean prestakuntza-beharrak identifikatzea xede duen elkarlanerako foroa. Zerbitzu Teknikoa foro horretako kide izan dadin proposatzen da, beste eragile bat balitz bezala; hala, Plan honek proposatutako lanaren bitartez identifikatutako beharrak erakutsi ahal izango ditu (E.1.1.3 eta E.5.1.5).

Foro horretako kide izatez gain, Patronatuak *gaikuntza-agentziekiko lankidetza zuzena* sustatu behar du (bereziki, Behargintzekikoa eta Lanbide Ekimenekikoa) (E.1.1.4), honako hauek lortzeko:

—Prestakuntza-baliabideen (materialak, ordenagailuak, ikasgelak, etab.) eta informazio-baliabideen aprobetxamendua.

—Patronatuak Plan honen eta haren mekanismoen bitartez identifikatutako gaikuntzarako/prestakuntzarako lehentasunen bateratze-lana, bai eta agentziena berena ere.

—Gaikuntza-/prestakuntza-lehentasunak burutzeko lan-banaketa.

—Banatutako lanen araberako baliabide-banaketa.

UBEko prestakuntza-beharrak identifikatzeko, UBEko zerbitzua buru duen partaidetza-lan bat proposatzen da. PICE-IGHPn identifikatutako jorratu beharreko ildo estrategikoak oinarri hartuta (E.5.1.2), ekarpenak biltzea proposatzen da Lankidetza Batzordean, Patronatuaren Osoko Bilkuran, GIH ez-formalaren Mahaian, Eskualdeko Turismo Mahaian, Interpretazioari buruzko Topaketan, Udalsarea 21en eta Udaletan (H.5.1). Eragile bakoitzarentzat, dagokion komunikazio-kanalean sustatu behar da eztabaida; hala, garapen iraunkorraren alorreko sektore bakoitzean egun dituzten egiazko gaikuntza-/prestakuntza-beharrak identifikatuko eta bilduko dira. Ekintza honen bitartez, gizartearen iritzia oro har integratu nahi da (Lankidetza Batzordea eta Mahaiak), bai eta komunitate politikoa ere (Patronatuaren Osoko Bilkura eta Udal guztiak).

*Udalsarea 21* prestakuntza egiten ari da dagoeneko HAEEren eta Sarearen beraren bitartez, eta udalekiko prestakuntza- eta gaikuntza-plataforma gisa funtziona dezala proposatzen da, bai eta udalen parte-hartzea landu dezala ere, herritarrenganako sentsibilizazio-kanpainetan.



## 3. 4. 4. Ikerketa Zientifikorako Programa

| Idazkaritza Teknikoa | Koordinazio Batzordea |
|---|---|
| Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra | • UBEko zerbitzua<br>• Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sarea |

## Koordinazio-mekanismoak

Beharrezkotzat jotzen da Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra (GIIHK) berriz sustatzea, Planean jasotako helburuak eta ekintzak osatzen laguntzen duen eta Biosfera Erreserban burututako ikerketa-esperientziak sustatzen eta zabaltzen dituen erakundea den aldetik; hala, Erreserba-GIIHK binomioak UBEn garapen iraunkorrerako kudeaketan aplikatutako jarduera zientifikoaren koordinatzaile gisa funtzionatzea lortuko baita.

*GIIHK – UNESCO katedraren eta UBEren Patronatuaren arteko lankidetza-akordio* bat proposatzen da, honako hauek lortzeko (E.1.1.5):

— *Ikerketa-ekintza koordinatzea*. Garrantzitsua da UBEn GIIHKri lotutako ikerketa-jardueraren koordinazio-irudi tekniko bat egotea, honako funtzio hauek izango dituena:

- UBEn egindako ikerketak biltzea (UPV-EHUn eta handik kanpo), erreferentzien eta iturrien datu-base bat eguneratuta izateko.
- UBEko ikerketaren interesen eta lehentasunen ikuspegi orokorrari eustea.
- Ikerketa-jarduera sustatzeko mekanismoetan eginkizun garrantzitsua betetzea (E.6.3.1):
- Jarduera UBEn aurrera eramaten duten ikertzaileei aholkatzea eta horiek orientatzea.

— Planean jasotako ikerketa-helburuak eta -ekintzak gauzatzeko lan egitea.

— UBEn burututako ezagutza-esperientziak zabaltzea.

— Ikerketa sustatzea eta hura UBEren garapen iraunkorrera eta etengabeko behaketara bideratzea.

Hori lortzeko, komenigarritzat irizten da UBEren Patronatuko EHUko ordezkariak –5/1989 Legean dago aurreikusita– lotura izatea GIIHKrekin.

Ikerketa aplikatuaren alorreko beharrak identifikatzeko eta adosteko, Patronatua buru duen partaidetza-lan bat proposatzen da, ahal den heinean gizartearen iritzi orokorrak eta komunitate politikoa barnean hartuko dituena. PICE-IGHPn identifikatutako jorratu beharreko ildo estrategikoak oinarri hartuta (E.6.2.3), ekarpenak biltzea proposatzen da Lankidetza Batzordean, Patronatuaren Osoko Bilkuran, lankidetza-batzordeetan, GIH ez-formalaren Mahaian, Eskualdeko Turismo Mahaian, Interpretazioari buruzko Topaketan, Udalsarea 21en eta Udaletan (H.6.2). Eragile bakoitzarentzat, dagokion komunikazio-kanalean sustatu behar da eztabaida; hala, garapen iraunkorraren alorreko sektore bakoitzean ikerketa aplikatuan egun dituzten egiazko beharrak identifikatuko eta bilduko dira.

GIIHKren bitartez, UBEn *truke zientifikorako topaketa* bat egitea proposatzen da. Edizio bakoitzean lehentasunezko ikerketa-ildoen alderdiren bat jorratuko luke, gai horretan lan egiten duten ikerketa-taldeak biltze aldera eta aukeratutako gaiaren diziplina anitzeko eta lankidetzazko ikuspegia sustatzeko (E.6.4.2). Baina ikerketa kudeatzaileei irits dakien, *gaikako aurkezpenak* egitea proposatzen da, eta haietara interesatuta egon daitekeen sektoreko berariazko publikoa gonbidatzea (E.6.4.1).

# 3. 5. Planaren eta ekintzen garapena

Helburu eraginkor bakoitzarentzat, hura lortu ahal izateko ekintzak eta espero diren emaitzak zehaztu dira. Programa bakoitzeko helburu bakoitzarentzako taula honen bitartez zehaztu da hori.

| Helburu orokorra | Kodea | Deskribapena |
|---|---|---|
| Helburu espezifikoa | Kodea | Deskribapena |
| Ekintza | | |
| Kodea | Deskribapena | |
| Kodea | Deskribapena<br>Ekintza bat grisez badago, beste programa batekin partekatutako ekintza bat dela esan nahi du. Numerazioari dagokion programan egongo da deskribatuta. | |

Helburuen fitxa bakoitzaren ondoren, ekintzen fitxa deskribatzaile bat dator, honako formatu honekin.

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| Kodea | izena | |
| Deskribapena | | |
| Ekintza gauzatzeko beharrezko edukien, helburuen eta jardunbideen deskribapena.<br><br>Busturialdea Urdaibaiko Turismo Plan Estrategikoari lotutako ekintza guztietan, Turismo Plan gisa eta haren ekintzaren zenbaki identifikagarria aipatzen dira. Turismo Planaren hitzez-hitzezko transkribapena diren proposamenak letra etzanez daude adierazita. | | |
| Aurrekontua | Egutegia* | Inplikatutako eragileak** |
| Egiteko beharrezko gutxi gorabeherako aurrekontua eta barnean hartzen duen kontzeptua. | Zer urtetan aplikatzen den.<br>Urte guztiak barnean hartzen dituen aldia: 2015-2021<br>Urte zehatzak: 2015 eta 2021 | Letra lodiz, eragile sustatzailea.<br>Inplikatutako eragileen zerrenda, jarraian deskribatutako taularen arabera. |





*III. Eranskinean, ekintzak gauzatzeko gutxi gorabeherako egutegia proposatzen da.

**Erabilitako akronimoak dokumentuaren hasieran daude.



## 3. 5. 1. Koordinazio eta Lankidetza Programa

### 3. 5. 1. 1. Programako ekintzen laburpena

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 1 | Garapen iraunkorraren alorreko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-eragileen koordinazioa eta lankidetza lortzea, eremu bakoitzean eta horien guztien artean; hala, elkarrekin, UBEn garapen iraunkorra lortzeko aurrera egite aldera. |
| Helburu espezifikoa | H.1.1 | Planaren alor bakoitzeko eragileen artean eta horien eta Patronatuaren artean komunikaziorako eta lankidetzarako mekanismo eraginkorrak izatea. |
| Ekintza | | |
| E.3.7.1 | UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko topaketa. | |
| E.1.1.1 | UBEn garapen iraunkorrerako hezkuntza ez-formalaren mahaia sortzea eta hura aldizka biltzea. | |
| E.1.1.2 | Ikastetxeen arteko egungo lankidetza-sarearen lanarekin jarraitzea, EA21en esparruan. | |
| E.1.1.3 | Patronatuak Eskualdeko Garapen Foroan (15 foroa) parte hartzea. | |
| E.1.1.4 | Lankidetza-akordioa gaikuntza-agentziekin. | |
| E.1.1.5 | Lankidetza-akordioa UNESCO katedraren eta UBEko Patronatuaren artean, ikerketa-jarduera koordinatzeko. | |
| Helburu espezifikoa | H.1.2 | Partaidetzaren bitartez, Madariaga dorretxeari lankidetzazko ekipamendu gisa antolakuntza funtzionaleko eredu berri bat zehaztea, dauden interpretazio-, hezkuntza- eta turismo-ekipamenduen eta -zerbitzuen artean koordinazioa eta sinergiak sortzea lortze aldera. |
| Ekintza | | |
| E.1.2.1 | Madariaga dorretxearen eginkizuna berriz zehaztea, interpretaziorako lankidetza-zentro gisa. | |
| Helburu espezifikoa | H.1.3 | UBEn, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean garapen iraunkorrerako koordinazio-mekanismo eraginkor eta eskuragarri bat izatea. |
| Ekintza | | |
| E.1.3.1 | GIHn koordinatzea eta aholkatzea, irudi tekniko baten bitartez. | |
| E.1.1.1 | UBEn garapen iraunkorrerako hezkuntza ez-formalaren mahaia sortzea eta hura aldizka biltzea. | |
| Helburu espezifikoa | H.1.4 | Lankidetza-sareei eustea. |
| Ekintza | | |
| E.1.4.1 | Unescoren eta nazioarteko truke-ekimenetan eta -programetan parte hartzea. | |

## 3. 5. 1. 2. Programako ekintzak

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 1 | Garapen iraunkorraren alorreko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-eragileen koordinazioa eta lankidetza lortzea, eremu bakoitzean eta horien guztien artean; hala, elkarrekin, UBEn garapen iraunkorra lortzeko aurrera egite aldera. |
| Helburu espezifikoa | H.1.1 | Planaren alor bakoitzeko eragileen artean eta horien eta Patronatuaren artean komunikaziorako eta lankidetzarako mekanismo eraginkorrak izatea. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.1.1.1 | UBEn garapen iraunkorrerako hezkuntza ez-formalaren mahaia sortzea eta hura aldizka biltzea. |

**Deskribapena**

PICE-IGHPn identifikatutako hezkuntza ez-formaleko eragile guztiei egindako deialdia, GIHn lan-egitura bateratu bat sortzeko. GIHko koordinatzaileak egingo ditu lotura-lanak Koordinazio Batzordean ordezkatuta dagoen sektore formalarekin. Hura osatu ondoren, lanerako metodologia amankomuna adostu behar da. Urtean gutxienez hiru bilera egitea gomendatzen da.

Hauek izango dira haren funtzioak:

—UBEn, GIHren alorreko berrikuntzarako Ekintza Programa bat idaztea.

—Interpretazio-baliabideen inbentarioan parte hartzea.

—Prestakuntza-/gaikuntza- eta ikerketa-beharrak identifikatzea.

—Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eragileen artean baterako lan-sare bat sortzea.

—UBEren, haren baliabideen eta GIHren alorreko balioen ezagutza kolektiboa handitzea eta zabaltzea.

—Europan nahiz mundu-mailan GIHri buruz dauden proposamenak, arauak eta egungo joerak ezagutzea, eta horiek UBEren testuinguruan nola egokitu daitezkeen eta aplikagarriak ote diren baloratzea.

—Interpretazio-jardueren hartzaileei igorri beharreko oinarrizko edukia adostea.

—Hezkuntza-kalitateari buruzko irizpide amankomun batzuk lankidetzan zehaztea, GIHren alorreko UBEko ekipamenduetan eta programetan aplikatzeko.

—UBEn Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Topaketa antolatzea (E.4.6.1).

Jarduera hau koordinatzeko koordinatzaile bat behar da (E.1.3.1).

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Antolakuntza, GIHko koordinatzaileak egina; 1.3.1 ekintza.<br><br>Kontabilizatu gabeko kostua, erakunde eragileak bere gain hartua. | 2016-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (HB – EJ)<br>Ingurugela (HB - EJ)<br>Berritzegunea<br>Baserri-eskolak<br>UBC<br>SEEZ<br>Ikastetxeak |





| Ekintza | |
|---|---|
| E.1.1.2 | Ikastetxeen arteko egungo lankidetza-sarearen lanarekin jarraitzea, EA21en esparruan. |

**Deskribapena**

Eskolako A21en programak egungo lanarekin jarrai dezala, programak hobetuz eta berrikuntzaren eta IRAES21 ziurtagiriaren ezarpenaren alde lan eginez.

Ekintza osagarri gisa, UBErekiko koordinazioa zainduko da. Horretarako, lankidetza-akordio bat egingo da Ingurugelaren (HB – EJ), Berritzeguneen eta Patronatuaren artean, GIHren alorreko hezkuntza-jarduera koordinatzeko eta GIHko mahaiaren bitartez hezkuntza ez-formalaren testuingurura zabaltzeko (E.1.2.1).

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kontabilizatu gabeko kostua, EA21 programako gastuek bere gain hartua. | 2016-2024 | Sustatzailea: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza<br>EJ<br>Ikastetxeak |



| Ekintza | |
|---|---|
| E.1.1.3 | Patronatuak Eskualdeko Garapen Foroan (15 foroa) parte hartzea. |

**Deskribapena**

Patronatuak Eskualdeko Garapen Foro (15 foroa) sortu berriko kide izan behar du. Foro horretan, eskualdeko prestakuntza-beharrak identifikatuko dira. Patronatuak Plan honetan identifikatutako beharren ekarpena egin beharko du, batera landu daitezen eta Behargintza eta Lanbide Ekimenak zerbitzuetako prestakuntza-programen parte izan daitezen.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Ez du kosturik lotuta. | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Behargintza Bermeo<br>Lanbide Ekimenak |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.1.1.4 | Lankidetza-akordioa gaikuntza-agentziekin. |

**Deskribapena**

15 Foroko kide izateaz gain, lankidetza zuzena sustatu behar da gaikuntza-agentziekin, honako hauek lortzeko:

- Prestakuntza-baliabideen (materialak, ordenagailuak, ikasgelak, etab.) eta informazio-baliabideen aprobetxamendua.
- Patronatuak Plan honen eta haren mekanismoen bitartez identifikatutako gaikuntzarako/prestakuntzarako lehentasunen bateratzelana, bai eta agentziena berena ere.
- Gaikuntza-/prestakuntza-lehentasunak burutzeko lan-banaketa.
- Banatutako lanen araberako baliabide-banaketa

Lankidetza-esparruaren bitartez, UBErentzat garrantzitsuak diren arren baliabide ekonomikorik ez duten edo Behargintzek lehentasunezkotzat jotzen ez dituzten prestakuntza-jarduerak osatuko dira baliabide komunen bitartez.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Ez du kosturik lotuta | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Behargintza Gernika-Lumo<br>Behargintza Bermeo<br>Lanbide Ekimenak |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.1.1.5 | Lankidetza-akordioa UNESCO katedraren eta UBEko Patronatuaren artean, ikerketa-jarduera koordinatzeko. |

**Deskribapena**

Beharrezkotzat jotzen da Katedraren jatorria eta Erreserba-Katedra binomioa berriz sustatzea, honako hauetan laguntzen duen erakundea den aldetik:

- Ikerketa-ekintza koordinatzen.
- Planean jasotako ikerketa-helburuak eta -ekintzak gauzatzeko lan egiten.
- UBEn burututako ezagutza-esperientziak zabaltzen.
- Ikerketa sustatzen eta hura UBEren garapen iraunkorrera eta etengabeko behaketara bideratzen.

Hori lortzeko, komenigarritzat irizten da UBEren Patronatuko EHUko ordezkariak –5/1989 Legean dago aurreikusita– lotura izatea UNESCO katedrarekin.

Garrantzitsua da UNESCO katedrari lotutako ikerketa-jardueraren koordinazio-irudi tekniko bat egotea, honako funtzio hauek izango dituena:

- UBEn egindako ikerketak biltzea (EHUn eta handik kanpo), erreferentzien eta iturrien datu-base bat eguneratuta izateko.
- UBEko ikerketaren interesen eta lehentasunen ikuspegi orokorrari eustea.
- Ikerketa-jarduera sustatzeko mekanismoetan eginkizun garrantzitsua betetzea (E.6.3.1).
- Jarduera UBEn egiten duten ikertzaileei aholkatzea eta horiek orientatzea.
- Nazioarteko ikerketa-sareetan parte hartzea.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 15.000 € urtean . | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>GIIHK |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 1 | Garapen iraunkorraren alorreko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-eragileen koordinazioa eta lankidetza lortzea, eremu bakoitzean eta horien guztien artean; hala, elkarrekin, UBEn garapen iraunkorra lortzeko aurrera egite aldera. |
| Helburu espezifikoa | H.1.2 | Partaidetzaren bitartez, Madariaga dorretxeari lankidetzazko ekipamendu gisa antolakuntza funtzionaleko eredu berri bat zehaztea, dauden interpretazio-, hezkuntza- eta turismo-ekipamenduen eta -zerbitzuen artean koordinazioa eta sinergiak sortzea lortze aldera. |

**Ekintza**

| | |
|---|---|
| E.1.2.1 | Madariaga dorretxearen eginkizuna berriz zehaztea, interpretaziorako lankidetza-zentro gisa. |

**Deskribapena**

Madariaga dorretxearen eginkizuna berriz zehaztuko da, erabiltzaileei harrera egin, eta UBEko gainerako interpretazio-/hezkuntza- eta turismo-ekipamenduetara eta -zerbitzuetara bideratuko dituen lankidetzazko interpretazio-zentro gisa.

Madariaga dorretxea dagoeneko interpretazioa egiten ari diren erakundeak sustatzen saiatuko da, bai eta horiek erabiltzen ere, bere jarduerak garatzeko. Hala, sareko lana eta garapen iraunkorrerako jardueren garapen ekonomikoa sustatuko dira.

Madariaga dorretxearen lankidetzazko funtzioari buruzko adostasuna lortzeko, partaidetzazko prozesua egingo da inplikatutako eragileekin; hala, Madariaga dorretxearen eginkizuna berriz zehazteko eta inplikatutako eragileen ekarpenak eskuratzeko proposamena azalduko da, eta elkarrekin zehaztuko da UBEko garapen iraunkorraren alorreko interpretazio- eta hezkuntza-zerbitzuen eta -ekipamenduen sarearen eredua.

Adostutako eredua ezarriko da, antolakuntzaren, informazioaren eta ekintzen alorrean lehendik dauden ekipamenduetan behar diren jardunbideak aurrera eramanez.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Madariaga dorretxeak bere gain hartuko duen gida-plana idaztea. | 2015 | Eragile sustatzailea: IHOBE eta UBEko zerbitzua<br>MD.<br>Baserri-eskolak.<br>SEEZ<br>UBC<br>Urremendi LGE<br>Turdaibai<br>Turismo-eragileak<br>Eskualdeko turismo-mahaia<br>BFA |



| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 1 | Garapen iraunkorraren alorreko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-eragileen koordinazioa eta lankidetza lortzea, eremu bakoitzean eta horien guztien artean; hala, elkarrekin, UBEn garapen iraunkorra lortzeko aurrera egite aldera. |
| Helburu espezifikoa | H.1.3 | UBEn, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean garapen iraunkorrerako koordinazio-mekanismo eraginkor eta eskuragarri bat izatea. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.1.3.1 | GIHn koordinatzea eta aholkatzea, irudi tekniko baten bitartez. |

**Deskribapena**

Ekipamendu formalak eta ez-formalak koordinatuko dituen irudi tekniko bat izatea. Haren lehentasunezko funtzioa UBE GIHren alorrean ereduzko lurraldea eta lurralde berritzailea izan dadin lortzea izango da, bai eta proiektuak garatzea eta GIH ez-formalaren mahaiaren buru izatea ere.

Ekintza hauen buru izango da, eta hortaz, baita horien arduradun ere:

- E.4.1.1 UBEn, GIHren alorreko berrikuntzarako Ekintza Programa bat zehaztea.
- E.4.1.2 GIHrako ekipamenduetan biztanleriaren sektore berriei arreta eskaintzeko aukera emango duten programa pilotuak garatzea.
- E.4.1.5 Programen urtaroko joera hautsiko duten programa pilotuak garatzea.
- E.4.1.6 Zentroen eta ekipamenduen ingurumenaren alorreko ekintza-planean UBEren irudia sustatzea.
- E.4.1.9 Natura-ingurunearen ezagutza biztanleriari gerturatuko dioten proiektu berritzaile berriak sustatzea.
- E.4.1.10 Iraunkortasunean ekiteko programak sustatzea.
- E.4.2.1 Gazteei zuzendutako gaikuntza-tresna parte-hartzaileak sortzea, haien ustez UBEn garrantzitsuak diren gaietan heziketa lortzeko aukera ematen dutenak.
- E.4.2.2 Teknologia berrien bidez gaikuntza eta informazioa ematea.
- E.4.2.3 Teknologia berrietan oinarritutako herritarren ikerketa-ekintzak.
- E.4.3.1 Kalitatezko irizpide bateratuak adostea, GIHren alorreko UBEko ekipamenduetan eta programetan.
- E.4.3.2 Etengabe hobetzeko sistema bat ezartzea eta kalitate-irizpideak aplikatzea.
- E.4.5.1 UBEko gai garrantzitsuak txertatzea eta eguneratzea ikastetxeetako EA21etan.
- E.4.6.1 UBEn Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Topaketa antolatzea.
- E.4.6.2 Ekipamenduek GIHren alorrean dituzten jardunbide egokien berri ematea.

Funtsean, haren eginkizuna da aipatutako ekintzak modu inklusiboan eta parte-hartzailean gauzatzea UBEko GIHko sektore guztian.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Pertsona bat izatea: 40.000 € urtean. | 2015-2024 | Sustatzailea: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Berritzegune Gernika<br>Ikastetxeak<br>Baserri-eskolak<br>UBC<br>SEEZ |

| Helburu orokorra | 1 | Garapen iraunkorraren alorreko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-eragileen koordinazioa eta lankidetza lortzea, eremu bakoitzean eta horien guztien artean; hala, elkarrekin, UBEn garapen iraunkorra lortzeko aurrera egite aldera. |
|---|---|---|
| Helburu espezifikoa | H.1.4 | Lankidetza-sareei eustea. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.1.4.1 | Unescoren eta nazioarteko truke-ekimenetan eta -programetan parte hartzea. | |
| Deskribapena | | |
| Patronatuak parte hartuko du Unescoren eta nazioarteko truke-ekimenetan eta -programetan; besteak beste, honako hauetan:<br>—UNESCOren EuroMaB programa.<br>—RRBBEE<br>—EUROPARC-Espainia<br>—Nazioarteko ikerketa-sareak.<br><br>Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren maila sustatu nahi da nazioartean, eta ikusgarri egin nahi da UNESCOren MaB programaren alorrean eta Nazio Batuen barruan Biosfera Erreserben kudeaketari buruzko esperientzia-trukearekin zerikusia duten gertaeretan. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| 25.000 € urtean. | 2015-2024 | Sustatzailea: Unesco - Etxea |



## 3. 5. 2. Informazio eta Komunikazio Programa

### 3. 5. 2. 1. Programako ekintzen laburpena

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. |
| Helburu espezifikoa | H.2.1 | UBEren informazio- eta komunikazio-ekintzak ondo planifikatuta eta koherentziaz gauzatzea. |
| Ekintza | | |
| E.2.1.1 | UBEren komunikazio-arduraduna. | |
| E.2.1.2 | UBEren hainbat urtetarako komunikazio-programa. | |
| E.2.1.3 | Irudi korporatiboaren eskuliburua. | |
| Helburu espezifikoa | H.2.2 | UBEren webgune korporatibo bat izatea, UBEri buruzko informazio guztia hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan integratuko duena. |
| Ekintza | | |
| E.2.2.1 | UBEren webgune korporatiboa edo subhomea Eusko Jaurlaritzaren webgunean. | |
| Helburu espezifikoa | H.2.3 | UBEri eta tokiko biztanleei zuzenduta dituen jarduerei buruzko informazioa eta komunikazioa hobetzea, biztanleriak UBErekin eta haren jarduerekin bat egin dezan; hori guztia, UBEren hainbat urtetarako etorkizuneko komunikazio-programaren esparruan. |
| Ekintza | | |
| E.2.3.1 | Presentzia komunikabideetan. | |
| E.2.3.2 | Akordioak tokiko egunkari eta/edo aldizkariekin, bai eta irrati-/telebista-kateekin ere, UBEri buruzko informazioa txertatzeko. | |
| E.2.3.3 | UBEko jardueren urteko memoria: idaztea eta zabaltzea. | |
| E.2.3.4 | Buletin elektronikoa. | |
| E.2.3.5 | Buletina papereko edizioan. | |
| E.2.3.6 | UBEko planen eskuliburu praktikoak argitaratzea (EKPZ, JSHGP eta PICE-IGHP). | |
| E.2.3.7 | Eskuliburu praktikoen aurkezpen-saioak. | |
| E.2.3.8 | UBEren presentzia sare sozialetan. | |
| Helburu espezifikoa | H.2.4 | UBEri buruzko informazio-puntuak eta bisitarien harrera-puntuak izatea. |
| Ekintza | | |
| E.2.4.1 | UBEko informazio-puntuen sarea. | |
| Helburu espezifikoa | H.2.5 | UBEren dokumentazio-zentroa eguneratuta, eraginkor eta UBEren organo kudeatzaileari lotuta izatea. |
| Ekintza | | |
| E.2.6.1 | Seinaleztapenaren homogeneizazioa UBEn. | |
| E.2.6.2 | Seinaleak jartzea. | |

| Helburu espezifikoa | H.2.6 | UBEri dagokion lurraldean, seinaleztapen bakar osoa eta homogeneoa lortzea, lurraldean seinaleztapena ezartzen duten eragileekin adostuta eta bateratuta. |
|---|---|---|

| Ekintza | |
|---|---|
| E.2.6.1 | Seinaleztapenaren homogeneizazioa UBEn. |
| E.2.6.2 | Seinaleak jartzea. |



## 3. 5. 2. 2. Programako ekintzak

| Helburu orokorra | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. |
|---|---|---|
| Helburu espezifikoa | H.2.1 | UBEren informazio- eta komunikazio-ekintzak ondo planifikatuta eta koherentziaz gauzatzea. |

**Ekintza**

**E.2.1.1** UBEren komunikazio-arduraduna.

**Deskribapena**

Komunikazioaz arduratuko den teknikari bat, gutxienez, izendatzea, UBEko zerbitzuaren esanetara lan egingo duena. Besteak beste, hauek izango dira komunikazioaz arduratuko den teknikariaren funtzio nagusiak:

— UBEko hainbat urtetarako komunikazio-programa aplikatzea eta haren jarraipena egitea.

— Informazio-/komunikazio-ekintzen urteko plangintza egitea eta horiek gauzatzea (prentsaurrekoak antolatzea, prentsa-oharrak idaztea, informazio-buletina, etab.).

— UBEren web orria eta albiste-buletina mantentzea eta eguneratzea.

2014: UBEren komunikazioaz arduratzeko profil egokia duen teknikari baten laguntza izateko beharra identifikatzea.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Komunikazio-bulegorako laguntza teknikoa: 40.000 € urtean, 2015etik aurrera. | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.2.1.2 | UBEren hainbat urtetarako komunikazio-programa. |

**Deskribapena**

UBEren hainbat urtetarako komunikazio-programa idaztea. Haren edukiak gutxienez honako hauek hartu behar ditu barnean:

—Transmititu beharreko UBEren balioen zehaztapena eta esplizitazioa.

—UBEren komunikazio-ekintza egokirako hartzaileak, bideak eta bitartekoak.

—Gauzatu beharreko ekintza zehatzak: deskribapena, egutegia eta aurrekontua.

—UBE markaren balizko publizitate- eta hedapen-ekintzen azterketa, hala nola jarduera iraunkorren edo kirol-taldeen babesletzak, etab.

—Sare sozialen erabilera, UBEren komunikazio-estrategian.

Plan honetan UBEren komunikazio-irudia landu behar da, nola kanpora begira hala bertan bizi den biztanleriari begira.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kontabilizatu gabeko idazte-kostua, erakunde sustatzaileak bere gain hartua (komunikazio-arduraduna: E 2.1.1.).<br><br>100.000 €-ko gutxi gorabeherako kostua; aldatu egingo da programa zehaztu ahala. | 2015-2016 (Plana idaztea)<br><br>2015-2024 (aurreikusitako gauzatzea) | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.2.1.3 | Irudi korporatiboaren eskuliburua. |

**Deskribapena**

UBEren irudi korporatiboaren eskuliburu bat prestatzea, Urdaibai markaren erabilera arautuko duena: markaren izendapena eta definizioa, irizpide grafikoak, argitalpenetan erabiltzeko arauak, seinaleztapena, altzariak, merchandisinga, on line komunikazioa, hura erabil dezaketen inplikatutako eragileak, etab.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kontabilizatu gabeko kostua, erakunde sustatzaileak bere gain hartua (komunikazio-arduraduna: E 2.1.1.). | 2016-2017 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br><br>Beste eragile edo erakunde batzuk; marka eta irudia bateratzeko proposamena egin dakieke |





| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. |
| Helburu espezifikoa | H.2.2 | UBEren webgune korporatibo bat izatea, UBEri buruzko informazio guztia hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan integratuko duena. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.2.2.1 | UBEren webgune korporatiboa edo subhomea Eusko Jaurlaritzaren webgunean. |

**Deskribapena**

Egun, Eusko Jaurlaritzaren webgune ofiziala (www.euskadi.net/urdaibai) eta Urdaibairi lotutako beste domeinu batzuk daude, beste entitate pribatu batzuetako domeinuetan jasota daudenak (urdaibai.org; urdaibai.com). Webgune ofizialaren posizionamendua hobetu daiteke.

UBEren webgune korporatibo bat diseinatzea eta sortzea. Dagoen webgunea eguneratzea eta berritzea, produktua hobetzeko eta biztanleriarentzat interesgarriak diren baliabide berriak txertatzen jarraitzeko. Honako hau lortu nahi da:

- UBEren irudi korporatiboa hobetzea (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarekin egun duen loturari eutsita). “Urdaibaiko Biosfera Erreserba” marka, haren xedeak eta balioak argi ikustea.
- Webgune berriaren erabilgarritasuna hobetzea (erabiltzaileak dena argi eta erraz ulertzeko moduari esaten diogu erabilgarritasuna). Inpaktua ebaluatzea eta areagotzea, trafikoaren informazioa aztertuta.
- Webgunea posizionatzea, UBEri Urdaibaiko udalerrietan eta EAEn GIHren buru izateko aukera emango dioten eduki eguneratuak hornitzeko on line dokumentazio- eta dibulgazio-zentro gisa. Honako hauek barneratzea:
  - Interpretazioari, ikerketari, gaikuntzari, GIHri eta turismoari buruzko eduki eguneratuak.
  - UBEren kudeaketari eta politikei buruzko erreferentziazko plan espezifikoak, bai eta mundu-mailako eta EAEko planak ere.
  - GIHren alorrean erreferentziazkoak diren eduki eguneratuak.
- Tokiko biztanleriarentzako edukiak modu berezian tratatzea.
- Beste webgune batzuekin interkonexioa eta sareko lana erraztea. Bi noranzkoko esteka garrantzitsuak txertatzea:
  - Interpretazio-ekipamenduen subhomea.
  - Eskualdeko turismoaren subhomea:
  - Hezkuntzari buruzko subhomea: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2591/es.
  - Ihitza aldizkariko baliabideak: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4155/es/contenidos/boletin_revista/ihitza/es_ihitza/indice.html
  - Ihobeko baliabideak: http://www.ihobe.net.
  - UBEko kide diren udalerri guztien webgune ofizialak.
  - Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren webguneak.
- Herritarrentzako kontsultarako eta partaidetzarako eremuak sortzea:
  - Gai zehatza duten foroak.
  - Eskariak (hala nola “maiz egiten diren galderak”, iradokizunen ekarpenak, kexak, etab.) eta horien etengabeko kudeaketa.
  - UBEn erabilitako ekipamenduei eta zerbitzuei buruzko bisitarien eta erabiltzaileen balorazioa (turismoan ardaztutako TripAdvisor Travel Affiliate enpresaren programaren antzekoa).

Gazteak inplikatzeko mekanismoak barneratzea (H.4.7).

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Lan teknikoa komunikazio-bulegoko laguntza teknikoak hartuko du bere gain: E.2.1.1. | 2018 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. |
| Helburu espezifikoa | H.2.3 | UBEri eta tokiko biztanleei zuzenduta dituen jarduerei buruzko informazioa eta komunikazioa hobetzea, biztanleriak UBErekin eta haren jarduerekin bat egin dezan; hori guztia, UBEren hainbat urtetarako etorkizuneko komunikazio-programaren esparruan. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.3.1 | Presentzia komunikabideetan. | |
| Deskribapena | | |
| UBEk komunikabideetan duen presentzia areagotzea, albiste nabarmenenak eta artikuluak aldizka eta sistematikoki tokian tokiko, lurraldeko eta autonomia-erkidegoko komunikabideei helarazita.<br>—Edukiak zein komunikabidetara (prentsa idatzia, irratiak eta telebista-kateak) igorriko diren identifikatzea.<br>—Gutxienez hiru hilean behin argitaratzeko / emateko eta bidaltzeko artikulu bat sortzea.<br>—Komunikazio Bulegotik, harremanak egitea irrati-etxeekin eta/edo telebista-programekin, UBEri buruzko edukiak (aldizkakoak nahiz zehatzak) txertatu ditzaten.<br><br>Ekintza hori hainbat urtetarako komunikazio-programaren ondorioen/ekintzen mende dago. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Lan teknikoa komunikazio-bulegoko laguntza teknikoak hartuko du bere gain: E.2.1.1 | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.3.2 | Akordioak tokian tokiko egunkari eta/edo aldizkariekin, bai eta irrati-/telebista-kateekin ere, UBEri buruzko informazioa txertatzeko. | |
| Deskribapena | | |
| Tokiko egunkari edo aldizkariren batekin edo zenbaitekin akordio bat egitea (ahal dela, dohainik banatutako argitalpenen bat barnean hartu), UBEri buruzko informazio-atal egonkor bat gehitze aldera; buletinari tarte bat eskainiz egin daiteke hori, edo aldian-aldian atal espezifiko bat argitaratuz.<br><br>Irratiekin edo telebista-kateekin akordioak egitea, dagoen programazioan UBEri buruzko informazioa txertatzeko edo tarte espezifiko bat sortzeko. Ekintza hori hainbat urtetarako komunikazio-programaren ondorioen/ekintzen mende dago. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Lan teknikoa komunikazio-bulegoko laguntza teknikoak hartuko du bere gain: E.2.1.1.<br><br>Akordioak komunikabideekin: 3.000 € urtean. | 2019-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.3.3 | UBEko jardueren urteko memoria: idaztea eta zabaltzea. | |
| **Deskribapena** | | |
| Urtero UBEren jardueren memoria egitea eta esteka digital baten bidez PICE-IGHPn esku hartzen duten eragile guztiei bidaltzea (ikusi soziograma eta eragileen zerrenda). | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| Lan teknikoa komunikazio-bulegoko laguntza teknikoak hartuko du bere gain: E.2.1.1. Hedapena on line tresnen bidez egingo dela uste da. | 2018-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.3.4 | Buletin elektronikoa. | |
| **Deskribapena** | | |
| UBEren hiruhilekoko informazio-buletin elektroniko bat egitea, web bidezko doako harpidetzen bitartez; hura izango da tokiko biztanleriarekiko eta gizarte-eragileekiko informazio- eta komunikazio-baliabide nagusia. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| Lan teknikoa komunikazio-bulegoko laguntza teknikoak hartuko du bere gain: E.2.1.1. | 2017-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.3.5 | Buletina papereko edizioan. | |
| **Deskribapena** | | |
| Hiru hiletik behin informazio-buletin bat argitaratzea papereko edizioan, zehaztutako informazio-puntuetara, ikastetxeetara eta jende gehien biltzen duten udal-ekipamendu nagusietara banatzeko. Buletin elektronikoan landuko den eduki berbera landuko da, baina beste publiko bati egongo da zuzenduta. A-4 edo A-3 tolestu batean argitaratu daiteke. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| Lan teknikoa komunikazio-bulegoko laguntza teknikoak hartuko du bere gain: E.2.1.1. | 2017-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.2.3.6 | UBEko planen eskuliburu praktikoak argitaratzea (EKPZ, JSHGP eta PICE-IGHP). |

**Deskribapena**

Etorkizuneko JSHGPen EKPZ berriaren eta Plan honen eskuliburu praktiko/dibulgatzaile bat egitea, barnean hartuko dituena alderdi nabarmenenak, inplikazio nagusiak, etab.; UBEn jarduerak egiten dituzten eragileei eta bertan bizi direnei egongo da zuzenduta.

—UBEren webgunean bertsio digitala argitaratzea, eta plan honetan inplikatutako eragile guztiei argitaratu dela jakinaraztea.

—Paperezko edizio dibulgatzaile bat egitea, EKPZen aurkezpen-saioetan dohainik banatzeko.

—JSHGP berria egiteko preskripzio teknikoen pleguan, eskuliburuko edukien idazketa txertatzea.

—Paperezko edizio dibulgatzaile bat egitea, JSHGPen aurkezpen-saioetan dohainik banatzeko.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 100.000 €, bi eskuliburu dibulgatzaileen ediziorako eta horiek egiteko materialetarako. Edukiak idazteko lan teknikoa komunikazio-bulegoko laguntza teknikoak hartuko du bere gain: E.2.1.1. | 2015, 2016 eta 2017 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.2.3.7 | Eskuliburu praktikoen aurkezpen-saioak. |

**Deskribapena**

Tokiko biztanleei eta gizarte-eragileei zuzenduta, etorkizuneko JSHGPen EKPZ berriaren eta PICE-IGHPren –hura onartu ondoren– aurkezpen-saioak antolatzea, eskuliburu praktikoaren/dibulgatzailearen edukia oinarri hartuta. Eskuliburu bakoitzeko, 3 saio antolatuko dira publiko orokorrarentzat (9 saio guztira).

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kontabilizatu gabeko kostua, erakunde sustatzaileak bere gain hartua (komunikazio-arduraduna: E.1.2.1.). | 2015, 2016 eta 2018 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.2.3.8 | UBEren presentzia sare sozialetan. |

**Deskribapena**

Sare sozialak (Facebook, twitter, youtube) erabiltzea UBEren eta egiten diren jardunbideen dibulgazio-lanak egiteko, UBEren hainbat urtetarako komunikazio-programak ezarritako ildoen arabera.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Lan teknikoa komunikazio-bulegoko laguntza teknikoak hartuko du bere gain: E.2.1.1. | 2016-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| | | |
|---|---|---|
| **Helburu orokorra** | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. |
| **Helburu espezifikoa** | H.2.4 | UBEri buruzko informazio-puntuak eta bisitarien harrera-puntuak izatea. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.2.4.1 | UBEko informazio-puntuen sarea. |

**Deskribapena**

UBEren informazio-puntuen sarea zehazteko, dagokien kudeatzaileekin lankidetza-akordio bat egitea. Honako hauek osatuko dute informazio-puntuen sarea:

— Dauden turismo-bulegoek.

— Gernika-Lumoko Bakearen eta Euskal Herriaren Museoek.

— Garapen iraunkorrerako hezkuntzarako ekipamendu autonomoek.

— Turismo-establezimenduek (ostatuek; bereziki, landa-turismoko ostatuek).

— Hala behar balitz, Urremendi LGEk sustatutako informazio- eta harrera-puntu berriek (Zugastieta, Donieneko Gaztelugatxe edo Turismo Planaren E.5.2 ekintzaren arabera etorkizunean gauzatu daitezkeen beste batzuk).

Egoki irizten zaio ekipamendu horiek UBEri buruzko eta hark zer suposatzen eta bisitariari zer eskaintzen dion azaltzen duen aurkezteko leku bat izateari, bai eta UBEri buruzko dibulgazioko argitalpenak eta materialak eskura izateari ere. Puntu horietara materialak behar bezala hornitzearen ardura Patronatuko langileengan (komunikazio-arduraduna) jartzea proposatzen da, eta turismo-establezimenduen kasuan, Urremendi LGEren bitartez egin daiteke (E.3.4.1).

Bereziki garrantzitsua izango da puntuetako arduradun eta langile guztiek materialei eta haien edukiei buruzko informazioa eta prestakuntza jasotzea.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kosturik gabe. | 2016-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Udalak |



| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. |
| Helburu espezifikoa | H.2.5 | UBEren dokumentazio-zentroa eguneratuta, eraginkor eta UBEren organo kudeatzaileari lotuta izatea. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.5.1 | UBEko dokumentazio-zentroa. | |
| Deskribapena | | |
| Madariaga dorretxearen ekipamenduan, espazio bat egokitzea UBEren dokumentazio-zentro gisa; ikerketaren, jarraipenen, GIHren, gaikuntzaren, interpretazioaren eta turismoaren alorreko dokumentazio eta baliabide guztiak zentralizatuko ditu. UBEren webgunean eskuragarri dauden eduki digitalak maximizatzea, on line dokumentazio-zentro gisa.<br>—Lekua egokitzea eta dokumentu-funts guztia Udetxea jauregitik ekartzea.<br>—Dokumentazioa sailkatzea.<br>—Ezarritako ordutegian publikoari zabaltzea.<br>—Webgunearen, UBEko buletinen eta komunikabideen bitartez zabaltzea | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Kontabilizatu gabeko kostua, erakunde eragileak bere gain hartua. | 2016-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>UBEko zerbitzua<br>IHOBE<br>BFA |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.5.2 | UBEko dokumentazio-katalogoa. | |
| Deskribapena | | |
| UBEko dokumentazio-zentroko funtseko katalogo digitala prestatzea eta hura eguneratuta izatea, eta Euskadiko Liburutegien Katalogoan txertatzeko akordioa egiteko eta beharrezko ekintzak aurrera eramateko aukera aztertzea. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Ekintza-plana gauzatzeko aurrekontua ez dago aurreikusita. | 2018-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>UBEko zerbitzua<br>IHOBE<br>BFA |



| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. |
| Helburu espezifikoa | H.2.6 | UBEri dagokion lurraldean, seinaleztapen bakar osoa eta homogeneoa lortzea, lurraldean seinaleztapena ezartzen duten eragileekin adostuta eta bateratuta. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.6.1 | Seinaleztapenaren homogeneizazioa UBEn. | |
| Deskribapena | | |
| Turismo-administrazioekin eta eragile pribatuekin, irudi- eta kalitate-estandarren araberako eta Urdaibai marka modu bateratuan transmitituko duen seinaleztapena diseinatzea. Elkarrekin, seinaleztapenaren alorreko bide-orri bat ezartzea (Turismo Planaren E.5.6 ekintzan parte hartzea).<br><br>UBEko egungo seinaleztapenaren egoeraren inbentarioa eta diagnosia egitea (Turismo Planeko E.5.6 ekintzan aurreikusitako inbentarioarekin koordinatzea), bai eta seinaleztapen berria berritzeko, aldatzeko eta jartzeko ekintza-plan bat ere.<br><br>Mundu guztiak naturagune babestu batean dagoela jakitea da horren xedea, eta, GIHren alorrean ikaskuntza errazte aldera, bisitariarentzako eta ingurunearen interpretaziorako beharrezko informazioa eta orientazioa eskaintzea. Seinaleztapenak behar adinakoa izan behar du nahi den mezua helarazteko, baina ez du inpaktu negatiborik eragin behar lurraldean.<br><br>Seinaleztapenak honako hauek adierazi behar ditu:<br>—UBEren sarrerak.<br>—GIHren alorreko ekipamendu ez-formalak.<br>—UBEko informazio-puntuak.<br>—Interpretazio-baliabide nagusiak.<br>—Bideak.<br>—Segurtasun-oharrak.<br><br>Ekintza horrek lotura du Turismoko Gida Planarekin, turismo-irudiaren eskuliburu bat idaztea aurreikusten baitu (E.7.1). | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Kostua sustatzaileak hartuko du bere gain. | 2017-2020 | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEren zerbitzua<br>EJ<br>BFA<br>Udalak |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.2.6.2 | Seinaleak jartzea. | |
| Deskribapena | | |
| Beharrezkotzat jotzen den seinaleztapena ekoiztea eta ezartzea, UBEko erabiltzaileak bisitatu nahi dituzten baliabide nagusiak eta elementu nabarmenak behar bezala aurkituko dituztela eta haietara behar bezala iritsiko direla bermatzeko. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Ekintza-plana gauzatzeko aurrekontua ez dago aurreikusita. | 2017-2024 | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEren zerbitzua<br>EJ<br>BFA<br>Udalak |

## 3. 5. 3. Dibulgazio eta Interpretazio Programa

### 3. 5. 3. 1. Programako ekintzen laburpena

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.1 | UBEren etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan, UBE ezagutzeko eta haren balioa handitzeko jarduerak biltzea eta zabaltzea, tokiko biztanleriari pizgarriak eskainita. |
| Ekintza | | |
| E.3.1.1 | Urteko “Bizi Urdaibai” programa. | |
| E.3.1.2 | Urdaibai Eguna. | |
| E.3.1.3 | Tokiko biztanleei eta eragile sozioekonomikoei UBEko natura-ingurunea zaintzeari eta UBEren irudiari lotutako onurak transmititzea. | |
| Helburu espezifikoa | H.3.2 | Bisitariari UBEren ikuspegi osoa eskainiko dion dibulgazio-materialen oinarrizko bilduma bat izatea, bai eta tokiko ingurunea eta kultura ezagutzeko eta errespetatzeko beharrezko informazioa ere, idazteko dagoen etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan. |
| Ekintza | | |
| E.3.2.1 | Dibulgazio-materialen inbentario zenbatetsia. | |
| E.3.2.2 | UBEri buruzko oinarrizko dibulgazio-material berriak. | |
| E.3.2.3 | UBEri buruzko gidaliburuen eta gaikako eskuliburuen argitalpen-plangintza. | |
| E.3.2.4 | *Merchandising* produktuen lerroa. | |
| Helburu espezifikoa | H.3.3 | UBEren Informazio eta Interpretazio Zentro bat izatea Madariaga dorretxean. |
| Ekintza | | |
| E.3.3.1 | UBEren Informazio eta Interpretazio Zentroa Madariaga dorretxean. | |
| Helburu espezifikoa | H.3.4 | Egindako informazio- eta dibulgazio-materialen banaketa-sare zabal eta eraginkor bat ezartzea, haien hedapena tokiko biztanleriaren artean nahiz UBEra hurbiltzen diren turisten artean maximizatzeko. |
| Ekintza | | |
| E.3.4.1 | UBEri buruzko informazio- eta dibulgazio-materialen banaketa-sarea. | |
| E.3.4.2 | Bisitaria asebetetzeko eta karakterizatzeko mekanismoak. | |
| Helburu espezifikoa | H.3.5 | UBEko bideak sustatzea eta haien berri ematea, lurraldea ezagutzeko eta interpretatzeko baliabide garrantzitsua diren aldetik. |
| Ekintza | | |
| E.3.5.1 | Bide-eskaintzari buruzko dibulgazio-/interpretazio-materiala. | |
| E.3.5.2 | Mugikortasun urriko pertsonei eta ikusteko edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonei egokitutako bidea. | |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu espezifikoa | H.3.6 | UBEko natura- eta kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzea, haren bisitarako eta interpretaziorako, bai eta baliabide turistikoa den aldetik ere. |
| Ekintza | | |
| E.3.6.1 | UBEko ondarearen interpretaziorako natura- eta kultura-baliabideen inbentarioa eta mantentze-lanak. | |
| E.3.6.2 | *Ekoturismoari eta turismo aktiboari lotutako eskualdeko lan publikoaren eta pribatuaren ikuspegiari dagokionez, Basquetourren produktu-estrategiarekin lerrokatzea.* | |
| E.3.6.3 | Bideak eta BTT ibilbideak aukeratzea eta horietan mantentze-lanak egitea. | |
| E.3.6.4 | Zaldizko ibilbideen seinaleztapen- eta mantentze-plana. | |
| E.3.6.5 | Birding Euskadi. Euskadi mailan posizionatzea. | |
| E.3.6.6 | Ekoturismoaren eta turismo aktiboaren alorreko zerbitzuen gabeziak identifikatzea. | |
| E.3.6.7 | *Bermeoko eta Elantxobeko itsas eta arrantza-kulturako itemak zehaztea eta finkatzea.* | |
| E.3.6.8 | *Basquetourrek sustatutako Donejakue Bidearen Gida Planean posizionatzea.* | |
| E.3.6.9 | *Kultura-programa bat garatzea, helmugaren erakargarritasun-faktoreak kontuan hartuta.* | |
| E.3.6.10 | Interpretazio- eta/edo turismo-produktu berriak. | |
| E.3.6.11 | Eskualdeko webgune turistikoa konfiguratzea eta eguneratzea. | |
| Helburu espezifikoa | H.3.7 | Ezagutzen koordinaziorako, lankidetzarako, transmisiorako eta trukerako mekanismoak izatea, ondarearen interpretazioan eta turismoan inplikatutako eragile guztien artean. |
| Ekintza | | |
| E.3.7.1 | UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko topaketa. | |
| E.3.7.2 | *UBEko Turismo Iraunkorraren edo Turismo arduratsuaren ziurtagiria.* | |



## 3. 5. 3. 2. Programako ekintzak

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.1 | UBEren etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan, UBE ezagutzeko eta haren balioa handitzeko jarduerak biltzea eta zabaltzea, tokiko biztanleriari pizgarriak eskainita. |

**Ekintza**

| | |
|---|---|
| E.3.1.1 | Urteko “Bizi Urdaibai” programa. |

**Deskribapena**

Urtero UBEn egiten diren gizarte-, kultura- eta ingurumen-jardueren programa bateratua zehaztea eta garatzea, udalen edo interpretazio-zentroen agenda partikularrak gaindituta. Urteko jardueren egutegi horrek egun dagoeneko egiten diren jarduerak ere hartuko ditu barnean. Bereziki tokiko biztanleei zuzendutako jarduera-programa bat da, baina irekita dago gainerako turistei ere bai.

Gainera, UBEtik hezkuntza ez-formaleko eta hezkuntza informaleko zenbait jarduera sustatuko dira (jarduera plastikoak, eszenikoak, musikalak, literarioak, folklorikoak, etab.), UBEko natura- eta kultura-ondarea zabaltzeko eta ezagutzeko. Jarduerak UBEko naturaguneetan garatuko dira, bai eta hura osatzen duten udalerrietako beste hainbat lekutan ere.

Helburu hauek dituzte:

- UBEko balioen eta ingurumen-arazoen kontzientziazioa bultzatzea.
- Tokiko biztanleen artean UBEko pertenentzia-sentimendua eta nortasuna bultzatzea eta sustatzea.
- Gizarte-harremanetarako eta komunikaziorako modu berriak aztertzea UBEren, haren kudeaketa-organo eta inplikatutako eragileen, UBEren inguruko udalerrietako biztanleen eta bisitarien artean.
- UBEko kultura-proposamenak zabaltzea.
- Boluntariotza-ekintzak bultzatzea.
- Funtzio didaktikoaren eta aisialdiaren bide berriak probatzea.

Askotariko izaera duten jarduerak garatzea proposatzen da, turismo-erakundeek, kultura-elkarteek eta UBEko hezkuntza-ekipamenduek sustatuta. Besteak beste, honako hauek:

- Eskulangintza-tailerrak, pedagogikoak.
- Kirol-ikuskizun ludikoak (herri-kirolak, zesta-punta eta estropadak).
- Tokiko izaera duten musika- eta irakurketa-ikuskizun artistikoak.
- Folklore-jaiak: musika eta tradizioak.
- Gai gidari nagusi bat duten natura-ibilbide kolektiboak.
- Ibilbide enogastronomikoak: bisitak upeltegietara eta kontserba-fabriketara, eta pintxoaren kulturaren, txakolinaren, Gernikako babarrunen, piperren, gazten eta eztiaren hedapena.
- Lehiaketak: argazki-lehiaketak, pintura azkarra, etab.

Boluntariotza-ekintzak eta ingurune zehatzak hobetzeko planifikatutako proiektuetan parte hartzea.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| UBEko erakundeen jardueren agenda bateratu bat egitea. | 2020-2024 | Sustatzailea: IHOBE + UBEko zerbitzu Teknikoa<br>Udalak<br>Turismo-eragileak<br>Urremendi LGE<br>BFA<br>EJ |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.1.2 | Urdaibai Eguna. | |
| **Deskribapena** | | |
| *Urdaibai Eguna* ospatzea, Urdaibaiko tokiko biztanleen eta gizarte-eragileen parte-hartzea duen jaialdi bat antolatuz. Jaialdi horren bitartez, UBEko gaurkotasunean garrantzitsuenak diren alderdiak eta gaiak partekatuko dira, eta horien berri emango zaie tokiko biztanleei eta bisitariei. Partaidetua izango denez, biztanleria orokorraren eta lurraldeko erakundeen ekimena izan behar du bermatuta; haien proposamenak hartu behar dira barnean eta edukien ekarpena egingo dutela sustatu behar da.<br><br>Egun bateko iraupena izango duen ekitaldia da, eta haren bitartez, lurraldearekiko nortasuna ikusaraziko da, helburuak, emaitzak eta erronkak partekatuko dira, eta tokiko biztanleriari eskerrak emango zaizkio urte osoan parte hartu izanagatik. UBErentzat esanguratsua den data batean antolatzea proposatzen da, eta UBEko Udalek ezarrita dituzten beste egun batzuetatik bereiztea komeni da (aurreko planean UBEren izendapenaren eguna / Legearen onarpen-eguna egiten da).<br><br>Adibideak: *Festival della Biodiversità – Milano; Mamaterra Biodiversidad Fundazioarena; Esperanzah – Prat de Llobregat-Bartzelona;* herriguneetan edo natura-inguruneei lotutako eremuetan antolatzen dira. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| 30.000 € bi urtetik behin (gertaeraren antolakuntza eta dinamizazioa). Eragileen borondatezko parte-hartzea izango du (erakundeak eta elkarteak). | 2015-2024 | Sustatzailea: IHOBE<br>Tokiko erakundeak<br>Udalak<br>Turismo-eragileak<br>BFA<br>EJ<br>Urremendi LGE |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.1.3 | Tokiko biztanleei eta eragile sozioekonomikoei UBEko natura-ingurunea zaintzeari eta UBEren irudiari lotutako onurak transmititzea. | |
| **Deskribapena** | | |
| Tokiko biztanleei eta eragileei eremu babestu baten parte izateak dakartzan onura sozioekonomiko guztiak helaraztea. UBEren memoriei lotutako dibulgazio-materiala eta komunikazio-ekintza hori indartzeko aurkezpen dibulgatzaile bat egingo lirateke.<br><br>Ekintza honek barnean hartzen ditu:<br>— Bereziki, zerbitzu ekosistemikoen balorazioari buruzko emaitzak. GIIHK katedrak aurrera eramandako Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazio Programak izan behar du abiapuntua ikerketaren emaitzak UBEren natura-ingurunearen zaintzari lotutako onurak helaraztea azaltzeko, nola ekonomiaren ikuspegitik hala bizi-kalitatearen ikuspegitik.<br>— Lortutako onurei buruzko eduki informatiboak aukeratzea (finantzaketa lortuta eskatu diren proiektuak eta proiektu horiek lurraldearentzat eta tokiko biztanleentzat eman dituzten emaitza positiboak) eta horiek tokiko biztanleriari eta eragile sozioekonomikoei zabaltzea, UBEko hainbat urtetarako komunikazio-programari dagozkion kanalen bitartez. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| 3.000 € jardunaldiko. Jardunaldi bat 5 urtetik behin, UBEren balioak eta onurak aurkezteko. | 2017 eta 2022 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>GIIHK<br>EJ<br>BFA<br>Ikerketa-taldeak<br>Finantzaketa lortu duten eta UBEn proiektuak gauzatu dituzten beste eragile batzuk |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.2 | Bisitariari UBEren ikuspegi osoa eskainiko dion dibulgazio-materialen oinarrizko bilduma bat izatea, bai eta tokiko ingurunea eta kultura ezagutzeko eta errespetatzeko beharrezko informazioa ere, idazteko dagoen etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.2.1 | Dibulgazio-materialen inbentario zenbatetsia. |
| **Deskribapena** | |
| Gaur egun dauden dibulgazio-materialen inbentario dokumental zenbatetsi bat sortzea, material horien mezuak eta edukiak identifikatzeko, bai eta UBEko hainbat urtetarako komunikazio-programaren arabera dibulgatu behar direnak identifikatzeko ere. Sortutako materialekin eguneratu behar da.<br><br>Kontzeptu-lerro horiek garrantzitsuak izango dira honako ekintza hauetan: E.3.2.2 eta E.2.2.3. | |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Lan teknikoa erakunde bultzatzaileek hartuko dute bere gain. | 2016-2017 | Sustatzailea: IHOBE +UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE<br>BFA<br>EJ |



| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.2.2 | UBEri buruzko oinarrizko dibulgazio-material eta produktu berriak. |

**Deskribapena**

Egindako inbentarioa oinarri hartuta, interpretazio-proiektu berriak diseinatzea (ikusi E.3.2.1 ekintza) tokiko biztanleei eta bisitariei eskaintzeko. Besteak beste, honako hauek proposatzen dira:

- Baserriaren ibilbidea eta interpretazio-zentroa: izan ditzakeen kokapenak aztertzea, diseinua, gauzatzea eta dibulgazioa.
- Lehen sektoreko produktuei buruzko ibilbideak, tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko: diseinua, gauzatzea eta dibulgazioa.
- Kultura-ondareari buruzko dibulgazio-ibilbidea: ondare arkeologikoa, arkitektonikoa, immateriala, beste batzuk…: diseinua, gauzatzea eta dibulgazioa.
- Puntu panoramikoetan miradoreak atontzea: diseinua, gauzatzea eta dibulgazioa.
- Natura-ondarea interpretatzeko ibilbideak: diseinua, gauzatzea eta dibulgazioa.
- Hegazti migratzaileei behatzeko ibilbide espezifikoak. Birdinga sustatzea: diseinua, gauzatzea eta dibulgazioa.
- Hobetzeko eragile sustatzaileekin Turismo Planeko E.5.4 ekintzan aurreikusitako beste baliabide batzuetan elkarlanean aritzea.

UBEko dibulgazio-material berriak diseinatzea eta argitaratzea, aukeratutako eta gauzatutako interpretazio-produktuentzat kalitate- eta irudi-estandar bateratu bati jarraituz. Produktu horiek UBEko natura- eta kultura-ondarearen elementu nagusien ezagutza eta balioespena sustatu beharko dute. UBEko hainbat urtetarako komunikazio-programaren ildoak oinarri hartuta, honako hauek izateko proposamena egiten da:

- UBEren irudiari buruzko triptiko edo diptiko generiko bat: sorrera, eginkizuna, helburuak, etab. Doan banatuko da eta tokiko biztanleei eta bisitariei zuzenduta egongo da.
- UBEko mapa bat, UBEk sustatutako interpretazio-baliabideak, ekipamenduak eta ibilbideen hasiera-puntuak behar bezala adierazita dituena. Doan banatuko da.
- Integratutako garraio publikoaren ordutegien, tarifen eta ibilbideen urteko liburuxka bat, bertako biztanleen artean nahiz bisitarien artean garraio publikoaren erabilera sustatzeko. Doan banatuko da.
- Helburu publizitarioa eta UBEri buruzko gertaera garrantzitsuenak zabaltzeko helburua duen urteko egutegi-poster bat (E.3.1.1 eta E.3.1.2).
- “UBEren gidaliburua”, oinarrizko informazio guztia zentralizatuta eta ordenatuta dituena: sorrera, eginkizuna, helburuak, natura- eta kultura-ondarea, ekipamenduak, bideak, etab. Saltzeko argitaratuko da.
- UBEk sustatutako seinalizatutako bideak antolatzeko dibulgazio-mapa.
- UBEren ikus-entzunezko material argigarri orokorra, bai eta haren interpretazio-baliabide nagusiei, ekosistemen eta giza ingurunearen arteko harremanari edo garatutako proiektuei buruzkoa ere.
- UBEko bideak kokatzeko gailu mugikorretarako aplikazioa eta bide horiei buruzko gidaliburu automatikoa.

Euskarri horiek era askotakoak izango dira eta elementu bakoitzari egokituta egongo dira, bisita eta interpretazioa errazte aldera (mapa, tracka, liburuxka espezifikoa, etab.).

Material horiek UBEren komunikazio-planean zehaztutako informazio-puntuetan egongo dira eskuragarri, eta webgunearen bidez eskainiko dira.

Beharrezkoa da proposamenak material horiek planifikatzen, diseinatzen eta gauzatzen dituzten eragileekin ere –bereziki, turistikoekin– koordinatzea, kontraesanik eta/edo bikoiztasunik egon ez dadin.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 150.000 €, honako hauek argitaratzera bideratuta: triptiko edo diptiko bat, liburuxka bat, urteko egutegi-poster bat, “UBEren gidaliburua”, seinalizatutako bideen dibulgazio-mapa eta ikus-entzunezko materiala.<br><br>Ez ditu barnean hartzen UBEko bideak kokatzeko gailu mugikorretarako aplikazioa eta bide horiei buruzko gidaliburu automatikoa.. | 2017-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.2.3 | UBEri buruzko gidaliburuen eta gaikako eskuliburuen argitalpen-plangintza. |

**Deskribapena**

UBEri buruzko gaikako gidaliburuen eta eskuliburuen argitalpenaren ildoarekin jarraitzeko plangintza egitea, eta hura urteko aurrekontuan barneratzea.

Gaien aukera estrategikoa, proposamenen kalitatea (interes sozialekoa, tokiko biztanleriarentzat edo bisitarientzat) eta denboran programatutako jarraitutasuna, bata bestea bezain garrantzitsuak dira. Egun interesgarriak diren gaiak eta egungo errealitate soziala eta interesak jorratzen dituztenak aukeratuko dira.

—Natura-ondarea: ingurune fisikoa eta biotikoa, ekosistemak, interes geologikoko eremuak.

—Kultura-ondarea: arkitektura, folklorea eta tradizioa, antzinako ogibideak eta praktikak, arkeologia.

—Paisaia.

Gizakiaren eta ingurunearen arteko interakzioa: inpaktuak, jardunbide egoki iraunkorrak sektore desberdinetan.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kontabilizatu gabeko kostua, erakunde eragileak bere gain hartua. | 2019-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>GIIHK<br>Ikerketa-taldeak<br>Urremendi LGE<br>EJ |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.2.4 | *Merchandising* produktuen lerroa. |

**Deskribapena**

Mikro-marketineko eta merkaturatzeko produktu-lerro berri bat (merchandising) diseinatzea eta sortzea, marka indartzeko eta dirusarrerak lortzeko. Irizpide hauetan oinarrituta egingo da hori:

—"Urdaibaiko Biosfera Erreserba" edo "Urdaibai" markaren irudi argi eta bateratu bat sustatzea, eta irudia, logotipoa, formatua eta diseinua erabiltzea.

—Iraunkortasun-irizpideen erabilera aukeratutako produktuen diseinuan, fabrikazioan eta banaketan.

—Banatutako produktuak tokiko biztanleriaren eta bisitarien egiazko beharren eta itxaropenen arabera aukeratuko dira.

—UBEren eginkizunari eta helburuari eutsiko zaie aukeratutako produktuak merkaturatzean.

—Banatutako produktuak aukeratzeko, kontuan hartuko dira beste eremu geografiko batzuekiko UBEk dituen desberdintasunak, berrikuntza eta balioak (UBEren nortasuna, biztanleriarekiko hurbiltasuna, sinpletasuna eta erabilgarritasuna bilatuko dira).

Urtero, produktuen kalitatea ekonomikoki eta sozialki baloratuko dira, ekintza honen bilakaerak hobera egin dezan.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 60.000 €-ko hasierako inbertsioa lehen urtean, materialak diseinatzeko eta egiteko.<br><br>10.000 € urtean, stocka izateko. | 2021-2024 | Sustatzailea: IHOBE + UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE<br>EJ |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.3 | UBEren Informazio eta Interpretazio Zentro bat izatea Madariaga dorretxean. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.3.1 | UBEren Informazio eta Interpretazio Zentroa Madariaga dorretxean. |

**Deskribapena**

Madariaga dorretxeari UBEko Informazio eta Interpretazio Zentro gisa jarduteko behar dituen ezaugarriak emateko proiektu bat egitea. Proiektu bat egingo da dagokion bideragarritasun-planarekin, Madariaga dorretxean Informazio eta Interpretazio Zentroa sortzeko eta H.1.3 helburuan zehaztutako lankidetza-eginkizun berria emateko.

Ekintza hori detektatu diren behar hauetan oinarritu da:

—UBEren balioen eta edukien hedapenari eta dibulgazioari egokitutako Interpretazio Zentro bat zehaztea.

—UBEren pertzepzioa eta sinbolismoa indartzea tokiko biztanleriarengan.

Zentroa UBEren balioak interpretatzeko eta dibulgatzeko erreferentziazko gune gisa pentsatu da; Urdaibai lurraldea azalduko eta interpretatuko du, bisitariak modu bereizlean eta motibagarrian –eta beste naturaguneekin hertsiki erlazionatuta–, identifika ditzan lurraldeari lotutako ingurumen-balioak. Zentroan, bisitariaren eskura jarriko da hark UBEren ezagutzara hurbiltzeko eta horretan sakontzeko behar duen informazio egituratua. Dokumentu-funts ireki bat emango zaio (materialak, baliabideak, indarrean dauden eta proposatutako ekintza-planak, etab.) (H.2.5). *Eskualdeko turismo-erakargarri guztiei buruzko informazioa ere izango du; puntu bakar batean bateratuko du eskaintza orokorra eta bakartasuna emango dio Busturialdea Urdaibaiko eskaintzari* (E.8.1 ekintza, Turismo Plana).

Zentroak UBEren lurralde osoan garapen iraunkorraren arloan dagoen hezkuntza-eskaintza zabalari buruzko informazioa emango du, zentroak berak eskaintzen duenari nahiz handik kanpo eskaintzen denari buruzkoa: Ingurumen-alorreko prestakuntza-programak, eskola-ikasleentzako eta helduentzako tailerrak, bisita gidatuak eta txangoak, etab. Madariaga dorretxeak bisitariak proposamen eta jarduera horiek egiten dituzten beste ekipamendu eta hezkuntza-erakunde batzuetara bideratzea proposatzen da.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 100.000 €, UBEren interpretazio-espazio berria egokitzeko.<br><br>Kudeaketa-kostuak ez daude kontabilizatuta. | 2015-2017 | Sustatzailea: IHOBE + UBEko zerbitzua |



| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.4 | Egindako informazio- eta dibulgazio-materialen banaketa-sare zabal eta eraginkor bat ezartzea, haien hedapena tokiko biztanleriaren artean nahiz UBEra hurbiltzen diren turisten artean maximizatzeko. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.4.1 | UBEri buruzko informazio- eta dibulgazio-materialen banaketa-sarea. | |
| Deskribapena | | |
| Komunikazio-arduradunaren bitartez, UBEko informazio- eta dibulgazio-materialak behar bezala hornitzea honako ekipamendu hauei:<br>—UBEko informazio-puntuak (turismo-bulegoak eta turismo-informazioko puntuak, garapen iraunkorraren alorreko interpretazio- eta hezkuntza-ekipamendu autonomoak, eta turismo-establezimenduak).<br>—Ikastetxeak.<br>—Jende gehien erakartzen duten udal-ekipamenduak.<br><br>Urremendi LGEren eta turismo-eragileen artean dagoen egungo banaketa-sarea erabiltzea, UBEri buruz eskuragarri dauden dibulgazio-materialak turismo-establezimendu guztiei banatzeko (lankidetza-hitzarmena Urremendi LGErekin). | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Banaketa-kostua, sustatzaileen langileekin. | 2016-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua + IHOBE<br>Urremendi LGE<br>Udalak<br>Gernika-Lumoko, Bermeoko eta Mundakako Turismo Bulegoak eta BTT Mendata<br>Santimamiñeko kobak<br>Baserri-eskolak eta SEEZ<br>Urdaibai Bird Center<br>Ikastetxeak<br>Turismo-eragileak |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.4.2 | Bisitaria asebetetzeko eta karakterizatzeko mekanismoak. | |
| Deskribapena | | |
| UBEko ekipamenduetan eta informazio-puntuetan, informazio-prozesuen asebetetze-maila aintzat hartzeko eta bisitarien ezaugarri nagusiak ezagutzeko inkestak egin behar dira.<br><br>Inkesta horiek lagungarriak izan daitezke Plan honetan espero diren zenbait emaitza baloratzeko; bereziki, helburu honena: UBEko natura- eta kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzea, haren bisitarako eta interpretaziorako, bai eta baliabide turistikoa den aldetik ere. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Mekanismoak diseinatzea eta lantzea: 15.000 € (2016)<br><br>Sistema ezartzea: Kontabilizatu gabeko kostua, erakunde eragileak bere gain hartua. | 2016-2024 | Sustatzailea: IHOBE<br>UBEko zerbitzua.<br>Urremendi LGE.<br>Udalak.<br>Gernika-Lumoko, Bermeoko eta Mundakako Turismo Bulegoak eta BTT Mendata<br>Santimamiñeko kobak<br>Baserri-eskolak<br>Urdaibai Bird Center<br>SEEZ<br>Ikastetxeak<br>Turismo-eragileak |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.5 | UBEko bideak sustatzea eta haien berri ematea, lurraldea ezagutzeko eta interpretatzeko baliabide garrantzitsua diren aldetik. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.5.1 | Bide-eskaintzari buruzko dibulgazio-/interpretazio-materiala. | |
| Deskribapena | | |
| Dibulgazio-materiala prestatzea eta argitaratzea, tokiko biztanleei eta bisitariei bideen berri emateko. Bideen gidaliburua eguneratzea, seinalizatutako bideen eskaintza erantsita (ikusi E.3.5.1 eskaintza). | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| E.3.6.10 ekintzaren barnean hartua | 2016-2020 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.5.2 | Mugikortasun urriko pertsonei eta ikusteko edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonei egokitutako bidea. | |
| Deskribapena | | |
| Bideen eskaintzan mugikortasun urriko pertsonei eta ikusteko edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonei egokitutako bide bat eransteko aukerei buruzko azterketa bat egitea. Aukera egokienari buruzko proposamen (proiektu) bat egitea, aurrekontu eta guzti, eta bideragarria balitz, hura gauzatzea. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| 18.000 € | 2023-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE |





| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.6 | UBEko natura- eta kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzea, haren bisitarako eta interpretaziorako, bai eta baliabide turistikoa den aldetik ere. |

**Ekintza**

| | |
|---|---|
| E.3.6.1 | UBEko ondarearen interpretaziorako natura- eta kultura-baliabideen inbentarioa. |

**Deskribapena**

UBEren ondarea interpretatzeko natura- eta kultura-baliabideen inbentario bat egitea, nola hezkuntza-interesduna eta sentsibilizatzera bideratua hala turismo-interesekoa izango dena (Turismo Planeko E.5.1 ekintzan parte hartzea). Egun dauden interpretazio-materialetan inbentariatutako baliabideen presentzia aztertuko da, gaur egun interpretatu gabeko baliabideak identifikatzeko; hala, pixkanaka txertatu ahal izango dira UBEko dibulgazio- eta interpretazio-materialetan (E.3.2.1 ekintza)

Eremu eta adibide hauek identifikatu dira, eta horien gainean egingo da lan (ikusi IN.11 diagnosian):

- Ingurune biotikoko elementuak: hainbat ekosistema mota, biodibertsitatea.
- Ingurune fisikoa – ondare geologikoa: Interes Geologikoko Lekuen inbentarioa; Kantera Gorria.
- Arkeologia: Arrolako kastroa, Foruako aztarnategia, trikuharriak, etab.
- Mugarriak eta paisaia-intereseko elementuak.
- Arkitektura eta arkitektura-ondarea: baserriak, burdinolak, errotak…
- Gizarte- eta kultura-ingurunea: galtzear dauden abileziak eta lanbideak dituzten pertsonak; hazi-barietate autoktonoak dituzten barazkiak, sailak eta mintegiak.
- Ondare immateriala: euskara, errituak eta kondairak, jaiak…
- Omako basoa.

Honako hauek baliabideak izan daitezke, baina egun ez da horien interpretaziorik egiten:

- Ibilbide geologikoak / Geologia Interesdun Lekuak.
- Landa-ondarea: etxolak, galtzadak eta zubiak.
- San Romango artea, zuhaitz berezia, eta mitologia (etnografia).
- Talaiak, miradoreak eta bideak.
- Industria-ekoizpena. Fabrikak.
- Ingurumen-arazoak.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Idazteko laguntza teknikoa, 6.000 €. | 2017 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE<br>Eskualdeko turismo-mahaia |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.6.2 | *Ekoturismoari eta turismo aktiboari lotutako eskualdeko lan publikoaren eta pribatuaren ikuspegiari dagokionez, Basquetourren produktu-estrategiarekin lerrokatzea.* |

| Deskribapena |
|---|
| Turismo Planeko E.8.1 ekintzan parte hartzea: *Ekoturismoari eta turismo aktiboari lotutako eskualdeko lan publikoaren eta pribatuaren ikuspegiari dagokionez, Basquetourren produktu-estrategiarekin lerrokatzea. Protokoloa sinatzea.*<br><br>*Lurraldean ekoturismoari eta turismo aktiboari egokitutako eskaintza bat osatzeko, eskualdeko lankidetza-akordioak sinatuko dira turismoan eskumena duten gobernu-erakundeekin, hala nola Turismoaren Euskal Agentziarekin. Premisa horren arabera, Urremendi LGE Helmugak Basquetourren Produktuen Sailarekin Atxikitzeko Protokoloari batuko zaio; horri esker, Busturialdea Urdaibaiko turismo-produktu horrek babesa izango du kudeaketari, sustapenari, laguntza teknikoari eta etengabeko hobekuntzari dagokionez, aipatutako hitzarmen horretan jaso bezala. Bestalde, turismo aktiboari dagokionez, indarrean dago Urremendi LGE Basquetourri Atxikitzeko Protokoloa Euskadiko mendi-ibiliak eta BTT Euskadiri dagokionez; protokolo horrek bi erakundeak behartzen ditu eskualdean turismo-jarduera bultzatzeko eta finkatzeko zenbait betebehar betetzera.* |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2017 (Egutegia del Plan de Turismo) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Basquetour<br>Turdaibai<br>Turismo-eragileak<br>Eskualdeko turismo-mahaia |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.6.3 | Bideak eta BTT ibilbideak aukeratzea eta horietan mantentze-lanak egitea. |

| Deskribapena |
|---|
| Turismo Planeko E.8.1 ekintzan parte hartzea: *BTT ibilbideak aukeratzea, honako irizpide hauek kontuan hartuta: eskaria, eduki bereizlea, erakargarritasuna, lurralde-oreka, mantentze-lanak.* |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2017 (Turismo Planeko egutegia) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua.<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>BTT Mendata.<br>Gernika Lumoko Ilunzar Mendi Kirol Elkartea- BTT elkartea.<br>Eskualdeko turismo-mahaia |





| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.6.4 | Zaldizko ibilbideen seinaleztapen- eta mantentze-plana. |

| Deskribapena |
|---|
| Turismo Planeko E.8.1 ekintzan parte hartzea: *Zaldizko ibilbideen seinaleztapen- eta mantentze-plana zehaztea.* |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2017 (Turismo Planeko egutegia) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Turismo-eragileak<br>Eskualdeko turismo-mahaia<br>Zaldizkoen elkarteak eta klubak |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.6.5 | Birding Euskadi. Euskadi mailan posizionatzea. |

| Deskribapena |
|---|
| Turismo Planeko E.8.1 ekintzan parte hartzea: *Birding Euskadi. Euskadi mailan posizionatzea, Urdaibai Bird Centerren turismora ere bideratutako erabilerak zehaztuta.* |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2017 (Turismo Planeko egutegia) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Urdaibai Bird Center<br>Basquetour<br>Turismo-eragileak<br>Eskualdeko turismo-mahaia |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.6.6 | Ekoturismoaren eta turismo aktiboaren alorreko zerbitzuen gabeziak identifikatzea. |

| Deskribapena |
|---|
| Turismo Planeko E.8.1 ekintzan parte hartzea: *Ekoturismoaren eta turismo aktiboaren alorreko zerbitzuen gabeziak identifikatzea.* |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2017 (Turismo Planeko egutegia) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Turdaibai.<br>Basquetour.<br>Turismo-eragileak.<br>Eskualdeko turismo-mahaia |

| Ekintza | | | |
|---|---|---|---|
| E.3.6.7 | *Bermeoko eta Elantxobeko itsas eta arrantza-kulturako itemak zehaztea eta finkatzea.* | | |
| Deskribapena | | | |
| Turismo Planeko E.8.2 ekintzan parte hartzea: *Bermeoko eta Elantxobeko itsas eta arrantza-kulturako itemak zehaztea eta finkatzea.* | | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak | |
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2017 (Turismo Planeko egutegia) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua.<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Kultura Saila (BFA).<br>Turismo-eragileak.<br>Eskualdeko turismo-mahaia. | |

| Ekintza | | | |
|---|---|---|---|
| E.3.6.8 | *Basquetourrek sustatutako Donejakue Bidearen Gida Planean posizionatzea.* | | |
| Deskribapena | | | |
| Turismo Planeko E.8.2 ekintzan parte hartzea: *Basquetourrek sustatutako Donejakue Bidearen Gida Planean posizionatzea.* | | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak | |
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2017 (Turismo Planeko egutegia) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Kultura Saila (BFA)<br>Turismo-eragileak<br>Eskualdeko turismo-mahaia | |

| Ekintza | | | |
|---|---|---|---|
| E.3.6.9 | *Kultura-programa bat garatzea, helmugaren erakargarritasun-faktoreak kontuan hartuta.* | | |
| Deskribapena | | | |
| Turismo Planeko E.8.2 ekintzan parte hartzea: *Kultura-programa bat garatzea, helmugaren erakargarritasun-faktoreak kontuan hartuta.*<br><br>Baserriaren eta landa-ingurunearen kulturan oinarritutako turismo-produktu bat sustatzea, eta eskaintza hori “Bizi Urdaibai” programako eskaintzan txertatzea. | | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak | |
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2017 (Turismo Planeko egutegia) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Kultura Saila (BFA)<br>Turismo-eragileak<br>Eskualdeko turismo-mahaia | |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.6.10 | Interpretazio- eta/edo turismo-produktu berriak. | |
| Deskribapena | | |
| Eragile sustatzaileekin batera, UBEn interpretazio- eta/edo turismo-produktu berriak eskaintzeko aukera aztertzea, hala nola trenaren erabilera turismo-baliabide gisa, globo-bisitaldiak sustatzea, etab. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2019-2024 | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>UBEko zerbitzua.<br>ILPS (EJ). Euskotren<br>Turismo-eragileak<br>Eskualdeko turismo-mahaia<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.6.11 | Eskualdeko webgune turistikoa konfiguratzea eta eguneratzea. | |
| Deskribapena | | |
| UBEren webgunean lasterbide baten bidez integratzea, eta webgune horren eta eskualdeko turismo-webgunearen artean edukiak koordinatzea (Turismo Planeko E.5.2, E.7.3 eta E.9.4 ekintzak). | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Kostua ez dago zehaztuta Turismo Planean. | 2015-2018 (Turismo Planeko egutegia) | Sustatzailea: Urremendi LGE<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea.<br>Ekonomia Sustatzeko Saila (BFA). |



| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.7 | Ezagutzen koordinaziorako, lankidetzarako, transmisiorako eta trukerako mekanismoak izatea, ondarearen interpretazioan eta turismoan inplikatutako eragile guztien artean. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.3.7.1 | UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko topaketa. |

**Deskribapena**

Ahal izanez gero, aldian-aldian UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko topaketa bat antolatzea, interpretazio-, hezkuntza- eta turismo-eragileen parte-hartzearekin. Topaketa horrek helburu hauek izango ditu:

— UBEren, haren baliabideen eta ingurumen-interpretaziorako balioen ezagutza kolektiboa handitzea eta zabaltzea.

— UBEko interpretazio-eskaintza ezagutzea.

— Interpretazio- eta turismo-jardueren hartzaileei igorri beharreko oinarrizko edukia elkarrekin lantzea.

— Tokian, eskualdean edo nazioartean interesgarriak diren ekimenak erakustea.

— Eskaintza etengabe hobetzeko kalitate-irizpideen edo jardunbide egokien zehaztapena elkarrekin lantzea, eta UBEren interpretazioan esku hartzen duten hezkuntza-eragileen artean adostasuna bilatzea. Adibidez, erabiltzaileentzako arreta-protokoloak, ratioak, material iraunkorren erabilera, interpretazioaren kostua-eraginkortasuna erlazioa maximizatzea, etab.

— Interpretazioaren eta UBEren erabilera publikoaren alorrean prestakuntza-/gaikuntza- eta ikerketa-beharrak identifikatzea.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 20.000 € bi urtean behin, antolakuntzarako eta gauzatzeko. | 2015-2024 | Sustatzailea: IHOBE + UBEko zerbitzua<br><br>UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE<br>GIHko mahaia<br>Eskualdeko turismo-mahaia<br>Santimamiñeko kobak<br>GIIHK<br>MD<br>Baserri-eskolak<br>UBC<br>Berritzegune Gernika<br>Ingurugela (HB - EJ)<br>SEEZ<br>Ikastetxeak<br>EJ<br>Basquetour<br>Gernika-Lumoko, Bermeoko eta Mundakako Turismo Bulegoak eta BTT Mendata<br>Turdaibai<br>Turismo-eragileak<br>BFA<br>Gizarte- eta ingurumen-museoak eta -fundazioak, eta kultura-elkarteak |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.3.7.2 | UBEko Turismo Iraunkorraren edo Turismo arduratsuaren ziurtagiria. | |
| **Deskribapena** | | |
| UBEko Turismo Iraunkorraren edo Turismo arduratsuaren ziurtagiria ezartzea. UBEn, Turismo Iraunkorrerako Europako Kartaren aukera ari dira aztertzen Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren alorrean kudeaketa-sistema gisa erabiltzeko; horri esker, *ingurumen-iraunkortasuneko irizpideak txertatuko dira turismo-plangintzan, eta lurraldearen kudeaketa-mekanismo integralak aplikatuko dira* (Turismo Planeko E.6.1 ekintza). Baina badira antzeko filosofiak eta ikuspegi desberdinak dituzten beste sistema batzuk, eta horiek ere aplika daitezke. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| 30.000 € kalkulatu dira, prozesu parte-hartzailearen diseinurako eta dinamizaziorako laguntza teknikoa lortzeko eta Hautagaitza Txostena idazteko. | 2016-2020 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Urremendi LGE<br>Eskualdeko Turismo Lankidetzako Erakundea<br>Turdaibai<br>Eskualdeko turismo-mahaia<br>Udalak<br>Turismo-eragileak |



## 3. 5. 4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa: hezkuntza testuinguru formala eta ez-formala

### 3. 5. 4. 1. Programako ekintzen laburpena

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
| Helburu espezifikoa | H.4.1 | Garapen iraunkorrerako hezkuntza-berrikuntza lortzeko, ekintza-programa oso eta koherente bat zehaztea eta ezartzea. |
| Ekintza | | |
| E.4.1.1 | UBEn, GIHren alorreko berrikuntzarako Ekintza Programa bat zehaztea. | |
| E.4.1.2 | GIHrako ekipamenduetan biztanleriaren sektore berriei arreta eskaintzeko aukera emango duten programa pilotuak garatzea. | |
| E.4.1.3 | SEEZn eskola-haurren talde berriak gehitzeko bideragarritasunaren azterketa. | |
| E.4.1.4 | Programen urtaroko joera hautsiko duten programa pilotuak garatzea. | |
| E.4.1.5 | Zentroen eta ekipamenduen ingurumenaren alorreko ekintza-planean UBEren irudia sustatzea. | |
| E.4.1.6 | Lurraldearen komunitate-jarraipenerako programak sustatzea. | |
| E.4.1.7 | Garapen iraunkorraren inguruan komunitatearen parte-hartzea bultzatzen duten hezkuntza-metodoak erabiltzen hastea. | |
| E.4.1.8 | Natura-ingurunearen ezagutza biztanleriari gerturatuko dioten proiektu berritzaile berriak sustatzea. | |
| E.4.1.9 | Iraunkortasunean ekiteko programak sustatzea. | |
| Helburu espezifikoa | H.4.2 | Gaztediaren inplikazioa lortzea, garapen iraunkorrerako aldaketa-eragile diren aldetik. |
| Ekintza | | |
| E.4.2.1 | Gazteei zuzendutako gaikuntza-tresna parte-hartzaileak sortzea, haien ustez UBEn garrantzitsuak diren gaietan heziketa lortzeko aukera ematen dutenak. | |
| E.4.2.2 | Teknologia berrien bidez gaikuntza eta informazioa ematea. | |
| E.4.2.3 | Teknologia berrietan oinarritutako herritarren ikerketa-ekintzak. | |
| Helburu espezifikoa | H.4.3 | Adostutako kalitate-irizpideak ezartzea eta aplikatzea UBEko GIH-ekipamenduetan eta -programetan, etengabeko jarraipen-, ebaluazio- eta hobekuntza-prozesu baten barruan. |
| Ekintza | | |
| E.4.3.1 | Kalitatezko irizpide bateratuak adostea, GIHren alorreko UBEko ekipamenduetan eta programetan. | |
| E.4.3.2 | Etengabe hobetzeko sistema bat ezartzea eta kalitate-irizpideak aplikatzea. | |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu espezifikoa | H.4.4 | Iraunkortasun-ziurtagiri bati atxikitako ikastetxeen ehunekoa areagotzea. |
| Ekintza | | |
| E.4.4.1 | Aholkularitza- eta hedapen-lana egitea, "Iraunkortasunerako eskolak" kalitate-ziurtagiria lortzeko. | |
| E.4.4.2 | Ikastetxeak UNESCOri lotutako eskolen munduko programari atxikitzeko lan egitea. | |
| Helburu espezifikoa | H.4.5 | Gizarte-ingurunea ikastetxeetako hezkuntza-proiektuekin uztartzea eta inplikatzea. |
| Ekintza | | |
| E.4.5.1 | UBEko gai garrantzitsuak txertatzea eta eguneratzea ikastetxeetako EA21etan. | |
| E.4.1.7 | Lurraldearen komunitate-jarraipenerako programak sustatzea. | |
| E.4.1.8 | Komunitateari garapen iraunkorraren inguruan laguntzeko Ikaskuntza-Zerbitzua (IkZ) hezkuntza-metodoa erabiltzen hastea. | |
| Helburu espezifikoa | H.4.6 | Berrikuntzarako garapen iraunkorrerako hezkuntza-esperientzien eta -metodologien trukeak erraztea. |
| Ekintza | | |
| E.4.6.1 | UBEn Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Topaketa antolatzea. | |
| E.4.6.2 | Ekipamenduek GIHren alorrean dituzten jardunbide egokien berri ematea. | |
| E.1.3.1 | GIHn koordinatzea eta aholkatzea, irudi tekniko baten bitartez. | |
| E.3.7.1 | UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko topaketa. | |
| Helburu espezifikoa | H.4.7 | Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza barneratzea, lurraldearen kudeaketarako zeharkako alderdi gisa. |
| Ekintza | | |
| E.4.7.1 | GIHko ekintzak UBEn egingo diren planetan, programetan eta proiektuetan txertatzea. | |



### 3. 5. 4. 2. Programako ekintzak

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
| Helburu espezifikoa | H.4.1 | Garapen iraunkorrerako hezkuntza-berrikuntza lortzeko, ekintza-programa oso eta koherente bat zehaztea eta ezartzea. |

**Ekintza**

| | |
|---|---|
| E.4.1.1 | UBEn, GIHren alorreko berrikuntzarako Ekintza Programa bat zehaztea. |

**Deskribapena**

Ekintza hau GIHko koordinatzaileak bultzatuta eta Hezkuntza Mahaiaren esparruan egingo da, eta interpretazio- eta hezkuntza-ekipamenduen antolakuntza-eredu funtzional berriari jarraituz. Ekintzaren buru GIHko koordinatzaile den teknikaria izango da, eta hark dinamizatuko du eginkizun hauek izango dituen prozesua:

—Mahaiari GIHn diagnostikatzeko eta proposatzeko lan-metodologia erraztea.

—Hezkuntza Mahaian parte hartuko duten eragileen partaidetza sustatzea.

—Kontsulta-prozesuan, Hezkuntza Mahaiko eragileen eskariei erantzutea eta haien zalantzak argitzea.

—Prozesuan, ekarpenak eta ideiak jasotzea.

—Ekintza-programa zehaztea, adostea eta onartzea.

Ekintza-programa honek gaur egun garrantzitsutzat diagnostikatutako edukiak jorratuko ditu:

(a) Hezkuntza-berrikuntza formatuan (planteamendu berriak) edo bitartekoetan (baliabide berriak).

(b) Transdiziplinaritatea txertatzea proposamenetan.

(c) GIHren hartzaileen arreta eta dibertsifikazioa (egungo joerak barnean hartzen ez dituen adinak); bereziki, tokiko biztanleen artean.

(d) Egungo proposamenen urtarokotasuna haustea.

(e) Hezkuntza-espazio berriak.

(f) UBEren kudeaketan inplikazioa duten proposamenak.

(g) Ikastetxearen mugak gainditzea, eta kanpoko hezkuntza-eragileekiko lotura areagotzea.

(h) Ikerketa sustatzea hezkuntza-berrikuntzan.

(i) Urdaibaiko ikastetxeak komunitatearentzako iraunkortasun-ereduak izan daitezen laguntzea.

(j) Instalazioek eta espazioek ingurumenaren alorreko jardunbide egokiak isla ditzatela sustatzea (plaka fotovoltaikoak, euri-urak biltzea, konpostagailuak…), eta ikastetxeek erabiltzen dituzten baliabideen jatorriari eta beren hondakinen helmugari buruzko datu eta informazio zehatzak izan ditzatela sustatzea.

(k) Hezkuntza-komunitateak (ez ikasleek bakarrik) jardunaren eta esperientziaren bitartez ikas dezala, eta koherentzia areagotu dadila “ikasten” dutenaren eta “egiten” dutenaren artean.

(l) Teknologia berriak erabiltzea, berrikuntzarako garapen iraunkorrerako hezkuntza-esperientzien eta -metodologien trukerako.

(m) Estatuko, Europako eta munduko beste BE batzuetako ikastetxeekiko komunikazioa erraztea.

Ekintza Programa honek beste zenbait metodo ere jorratuko ditu, hala nola programa pilotu zehatzen garapena eta komunitate-dimentsioa duten proiektu berriak txertatzea; horietako batzuk UBEn garatzen hasi berriak dira, eta sustatzea komeni da.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 30.000 €, Plana idazten laguntzeko laguntza teknikorako. GIHren mahaiaren esparruan egingo da hori. | 2017-2019 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Ingurugela (HB - EJ)<br>Berritzegune Gernika<br>GIHko mahaia<br>GIIHK<br>IHOBE |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.1.2 | GIHrako ekipamenduetan biztanleriaren sektore berriei arreta eskaintzeko aukera emango duten programa pilotuak garatzea. | |
| **Deskribapena** | | |
| Ekintza hau GIHren alorreko UBEko berrikuntzarako Ekintza Programaren barruan kokatuta dago (E.4.1.1). GIHko ekipamenduetan, programa pilotuak garatzea proposatzen da, biztanleriaren sektore berriak ekipamendu bakoitzaren behar eta interesen arabera hartzeko; ekipamendu horien ezaugarria izango da berrikuntza-balioa izango dutela egungo ereduetan estandarra ez den publiko hartzailea izateagatik (helduak, enpresak eta unibertsitate-ikasleak). | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1. | 2019-2020 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Ingurugela (HB - EJ)<br>Berritzegune Gernika<br>GIHko mahaia |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.1.3 | SEEZn eskola-haurren talde berriak gehitzeko bideragarritasunaren azterketa. | |
| **Deskribapena** | | |
| Ekintza hau GIHren alorreko UBEko berrikuntzarako Ekintza Programaren barruan dago kokatuta (E.4.1.1). Bideragarritasun ekonomikoa eta logistikoa aztertzeko proposamena egin da, SEEZak hezkuntza-programa pilotuak eskaini ditzan 3-6 urteko eskola-haurrei eta lehen hezkuntzako hasierako zikloko haurrei zuzenduta. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1<br><br>Aholkularitzako laguntza teknikoa. E.3.2.1 ekintzaren barnean hartuta: 10.000 €. | 2022-2024 | Sustatzailea: SEEZ (HB - EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Ingurugela (HB - EJ) |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.1.4 | Programen urtaroko joera hautsiko duten programa pilotuak garatzea. | |
| **Deskribapena** | | |
| Ekintza hau GIHren alorreko UBEko berrikuntzarako Ekintza Programaren barruan kokatuta dago (E.4.1.1). Urdaibaiko GIHren alorreko egungo ekipamendu-eskaintza osatzea proposatu da, programen urtaroko joerarekin hautsiko duten aukeren eta interesen analisi bat eginez. Negurako GIHren alorreko hezkuntza-proposamenak sustatuko dira UBEn. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1. | 2021-2022 | Sustatzailea: Ingurugela (HB—EJ)<br>GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB - EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Berritzegune Gernika<br>GIHko mahaia |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.4.1.5 | UBEren irudian eskolako agenda 21en eta zentroen eta ekipamenduen urteko plana sustatzea. |

**Deskribapena**

Ekintza hau GIHren alorreko UBEko berrikuntzarako Ekintza Programaren barruan kokatuta dago (E.4.1.1). UBEren irudia ikastetxeetako eta ekipamenduetako urteko planean eta eskolako agenda 21en (EA21) txertatzea, hurbileko lurralde-kudeaketa ezagutuz eta ulertuz.

UBEko kudeatzaile taldeekin jorratutako ingurumen-arazoen ezagutzan, eta horiek hobetzeko parte-hartzean eta ekintzan oinarritutako hezkuntza-jarduerak sustatuko dira. Lan estua egingo da Ingurugelarekin eta Udalekin, hezkuntza-aukerak eta ingurumen-ekintzarako aukerak identifikatu ahal izateko.

UBEko Patronatuak kudeaketari buruzko informazio garrantzitsua eta eguneratua eman behar die ikastetxeei eta ekipamenduei. Informazio hori GIHrako programaren koordinazio-batzordearen eta Hezkuntza Mahaiaren bitartez hedatuko da.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3. | 2016-2024 | Sustatzailea: Ingurugela (HB—EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Berritzegune Gernika<br>GIHko mahaia<br>Udalak |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.4.1.6 | Lurraldearen komunitate-jarraipenerako programak sustatzea. |

**Deskribapena**

Ekintza hau GIHren alorreko UBEko berrikuntzarako Ekintza Programaren barruan kokatuta dago (E.4.1.1). Lurraldearen jarraipena egiten duten programak sustatzeko proposamena egin da, GIHrako ekipamenduetako programetan tresna parte-hartzaileak erabiliz, eta horiek ikastetxeetan zabalduz eta eskainiz. Bereziki, eragileen arteko koordinazioa landu behar da, programak sustatzeko.

Ikasleen parte-hartzea sustatuko da lehendik dauden programetan, hala nola “Aztertu” programan. Programa hori honako hauek osatzen dute: “Ibaialde” programak (ibaietako ekosistemen egoeraren jarraipena, eta 1996tik ezarria) eta “Azterkosta” programak (itsas kostaldeko ekosistemen jarraipena, eta 1992tik ezarria).

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1 | 2016-2024 | Sustatzailea: Ingurugela (HB—EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Berritzegunea<br>GIIHK<br>Ikastetxeak<br>Baserri-eskolak<br>UBC<br>SEEZ<br>GIHko mahaia<br>IHOBE |



| Ekintza | |
|---|---|
| E.4.1.7 | Garapen iraunkorraren inguruan komunitatearen parte-hartzea bultzatzen duten hezkuntza-metodoak erabiltzen hastea. |

**Deskribapena**

Garapen iraunkorraren inguruan komunitatearen parte-hartzea bultzatzen duten hezkuntza-metodoak erabiltzen hastea. Adibidez: Ikaskuntza-Zerbitzua (IkZ), Ikaskuntza-komunitateak… Ekintza hau GIHren alorreko UBEko berrikuntzarako Ekintza Programaren barruan kokatuta dago (E.4.1.1).

Komunitateari laguntzeko Ikaskuntza-Zerbitzua (IkZ) hezkuntza-metodoa txertatzea proposatu da, hain zuzen, UBEko ikastetxeetan garapen iraunkorraren alorreko gaiak jorratzeko.

Ikastetxeetan metodologia aktibo horren garapena sustatuko da, EA21en bitartez eta programaren funtzionamenduaren egungo metodoak erabiliz:

(a) Ikastetxeetan eta ikastetxeek berek proposatuko dute, Ingurugelaren aholkularitzarekin.

(b) Proiektu bat zehaztuko da.

(c) Ikastetxe boluntario batean ezarri eta gauzatuko da.

(d) Ebaluazioa egin, eta EA21 sareko beste ikastetxe batzuetara hedatzearen balorazioa egingo da.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1. | 2016-2024 | Sustatzailea: Ingurugela (HB—EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>GIIHK<br>Ikastetxeak<br>Baserri-eskolak<br>UBC<br>SEEZ<br>GIHko mahaia<br>IHOBE |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.4.1.8 | Natura-ingurunearen ezagutza biztanleriari gerturatuko dioten proiektu berritzaile berriak sustatzea. |

**Deskribapena**

Ekintza hau GIHren alorreko UBEko berrikuntzarako Ekintza Programaren barruan kokatuta dago (E.4.1.1). Natura-ingurunearen ezagutza biztanleriari hurbiltzeko proiektu berritzaileak sustatzea proposatu da.

UBE bisitatzen duen biztanleria orokorrari UBEko egungo problematikei buruzko jarduketei eta hobekuntzei buruzko gaiak hurbiltzeko programa pilotuak sustatuko dira.

Besteak beste, gaur egun sustatzen diren programa hauek nabarmentzen dira:

— “Inguruko hegaztiak”. Familietan eta eskoletan hegaztientzako janontziak ezartzean datza, eta ikastetxeetako ikasleek horien erabileraren jarraipena egiten dute (UBCk eta Ingurugelak sustatzen dute, Montorre eta Urretxindorra ikastetxeetan).

— UBEn arrano arrantzalearen proiektuari lotutako hezkuntza-plana.

— Ondare geologikoari buruzko interpretazioari eta hezkuntzari buruz EHUko Irakasle Eskolak EAEko hezkuntza formalean eta ez-formalean egindako analisia.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 110.000 €, proiektuak gauzatzeko. | 2016-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Ingurugela (HB - EJ)<br>GIIHK<br>Ikastetxeak<br>Baserri-eskolak<br>UBC<br>SEEZ<br>GIHko mahaia |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.4.1.9 | Iraunkortasunean ekiteko programak sustatzea. |

**Deskribapena**

Ekintza hau GIHren alorreko UBEko berrikuntzarako Ekintza Programaren barruan kokatuta dago (E.4.1.1).

*Global Action Plan* (GAP) programa NBIPk (Nazio Batuen Ingurumen Programa) sustatutako nazioarteko programa bat da, eta UNESCOk bermatzen du (2005-2014 Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada). Programa horren helburua da pertsonen bizi-baldintzak hobetzea ingurumenean sortzen dugun inpaktua murriztuz, eta horretarako, etxean bertan edo lantokian aurrera eraman daitezkeen hainbat ekintza proposatzen dira.

Bizkaian, GAP programa 2000. urteaz geroztik garatzen da, eta parte-hartze aldakorra izan du. Aktibatu + Busturialdea-Urdaibai eskualdean garatzen ari dira, 2014-2015 ikasturtean. 2019. urtean, etxeen eta ikastetxeen parte-hartzea ingurumen-iraunkortasunaren alorrean sustatzen duen programa hori Bizkaia osoan egongo da ezarrita.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE), Garbiker Sozietate Publikoak, Eroski Taldeak, Metro Bilbaok eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak sustatutako ekimena da, eta herritarren parte-hartzea sustatzen du ingurumen-iraunkortasunaren alde.

Euronet 50/50 max. proiektuan, udalek (fakturak ordaintzen dituzte) eta ekipamenduek (ikastetxeak, beste eraikuntza publiko batzuk…) konpromiso bat sinatu dute. Udalek konpromisoa hartzen dute lortutako aurrezkien % 50 itzultzeko, eta ekipamenduek, berriz, jardunbide egoki multzo bat aplikatzeko eta proiektu baten buru izateko konpromisoa hartzen dute.

Hain zuzen ere, urtero prestakuntzarako/sentsibilizaziorako saio bat egitea ere proposatu da iraunkortasunaren alorrean, tokiko biztanleriari zuzenduta. Jorratu beharreko gai hauek identifikatu dira, gutxi gorabehera:

— Biosfera Erreserba kontzeptua: balioak, helburuak eta beste babes-irudi batzuekiko aldeak.

— Energia aurreztea eta energia-eraginkortasuna.

— Energia berriztagarriak.

— Mugikortasuna.

— Ura aurreztea eta eraginkortasuna uraren kudeaketan.

— Hondakinak.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1. | 2015-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br><br>UBEko zerbitzua<br>Ingurugela (HB - EJ<br>GIIHK<br>Ikastetxeak<br>GIHko mahaia<br>Programen sustatzaileak<br>Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila |





| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
| Helburu espezifikoa | H.4.2 | Gaztediaren inplikazioa lortzea, garapen iraunkorrerako aldaketa-eragile diren aldetik. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.2.1 | Gazteei zuzendutako gaikuntza-tresna parte-hartzaileak sortzea, haien ustez UBEn garrantzitsuak diren gaietan heziketa lortzeko aukera ematen dutenak. | |
| Deskribapena | | |
| Gaikuntza-tresna parte-hartzaileak sortzea, haien ustez garrantzitsuak diren gaietan heziketa lortzeko aukera ematen dutenak. Hiru urteko prozesu bat hasiko da, hiru fase izango dituena (egiazko urte bakoitzeko bat):<br>(a) diseinua; plangintza; dibulgazioa eta komunitate birtualen prestakuntza. Komunikazio-kanal eraginkorrak identifikatzea.<br>(b) gazteen parte-hartzea abian jartzea; produktuak sortzea eta dinamizatzea; foroak dinamizatzea eta beren proiektuak sortzea.<br>(c) “Gazteen foroa” prestatzea. UBEko ekipamendu batean, elkarrekin bizi, eta sortutako ekoizpenak partekatuko dira; eztabaidak aurrez aurre garatuko dira eta prozesuak baloratuko dira. Parte-hartze presentziala eta hirurteko parte-hartzaile berri baten hasiera.<br>(d) prozesuaren emaitzak biztanleria parte-hartzaileari itzultzea.<br>Azkenik, bereziki garrantzitsua da gizarteari, kudeatzaileei eta politikariei gazteak gehien arduratzen dituzten ingurumen-gaiak edo UBEn gehien interesatzen zaizkien gaiak jakinaraztea, bai eta proposatu dituzten konponbideak ere. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Hirurteko bakoitzeko, urtean 5.000 € hornitzea. | 2018-2020<br>2021-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>GIIHK |



| Ekintza | |
|---|---|
| E.4.2.2 | Teknologia berrien bidez gaikuntza eta informazioa ematea. |

**Deskribapena**

Ekintza honen bitartez, herritarren gaikuntza eta prestakuntza sustatu eta zehaztu nahi dira, bai eta haiek informazioa eskuratzea ere. Testuinguru formalean egin nahi da hori, e-learning produktuen bidez. Biztanleriaren ikaskuntza birtuala sustatuko duen produktu-lerro bat garatzea proposatzen da, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiliz ezagutza eskuratu dezaten.

Gaur egun, gazteentzat Eusko Jaurlaritzak eta Urremendi LGEk antolatutako Auzolandegiak (tokikoak eta nazioartekoak) baino ez daude. Hori dela eta, IKTak hezkuntza-baliabide berriak sortzeko eta gazteekin (18-30 urte; egun, oso gutxi landutako adin-tartea) komunikatzeko (E.4.2.3) erabili behar dira. Hala, prozesuaren emaitzak gazteei itzuliko zaizkie; hau da, beren iritziak kontuan hartu direla emango zaie aditzera.

Hori zehazteko, IKTak erabiliz UBEko zenbait ingurumen-arazori buruzko produktuak garatuko dira, eta horiei esker, giza inpaktuaren inguruan eta haren ondorioak areagotzen edo murrizten dituen denbora-dimentsioaren inguruan egin ahal izango dute gogoeta. Adibidez: itsas maila goratzearen, klima-aldaketaren edo kutsatzaileak isurtzearen ondorioak.

Ekintza honek lotura du webgunearen sorrerarekin (E.4.1.1), baina aurrekontuko partida bereizia du..

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Aukerak aztertzeko kanpoko aholkularitza: 30.000€. | 2018-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>GIIHK<br>UPV-EHU<br>UBC<br>GIHko mahaia |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.4.2.3 | Teknologia berrietan oinarritutako herritarren ikerketa-ekintzak. |

**Deskribapena**

Urdaibain, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila sustatzen ari den biodibertsitatearen alorreko herritarren zientzia-plataforma hedatzea eta sustatzea. Herritar-ikerketaren ekintzek mekanismoak izan behar dituzte parte-hartzaileei informazioa itzultzeko.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1. | 2018-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>GIIHK<br>UPV-EHU<br>UBC<br>GIHko mahaia |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
| Helburu espezifikoa | H.4.3 | Adostutako kalitate-irizpideak ezartzea eta aplikatzea UBEko GIH-ekipamenduetan eta -programetan, etengabeko jarraipen-, ebaluazio- eta hobekuntza-prozesu baten barruan. |

<table>
<tr><td colspan="3">Ekintza</td></tr>
<tr><td>E.4.3.1</td><td colspan="2">Kalitatezko irizpide bateratuak adostea, GIHren alorreko UBEko ekipamenduetan eta programetan.</td></tr>
<tr><td colspan="3">Deskribapena</td></tr>
<tr><td colspan="3">Koordinazio-batzordearen eta Hezkuntza ez-formalaren mahaiaren esparruan, zenbait kalitate-irizpide bateratu adostea, GIHren alorreko UBEko ekipamenduetan eta programetan aplikatzeko.<br><br>Lanari ekiteko, lehendik dagoen dokumentazioa har daiteke oinarri:<br>—Koordinazio-batzordearen eta Hezkuntza ez-formalaren mahaiaren esparruan, zenbait kalitate-irizpide bateratu adostea, GIHren alorreko UBEko ekipamenduetan eta programetan aplikatzeko.<br>—Lanari ekiteko, lehendik dagoen dokumentazioa har daiteke oinarri.<br><br>Egungo hezkuntza-jardunbideak aztertuko dira, honako alor hauetan ezarri beharreko kalitate-irizpideak zehazteko:<br>—Helburuak, edukiak eta jomugak.<br>—Metodoa.<br>—Ebaluazioa.<br>—Baliabideak.<br>—Lurraldea.<br>—Antolakuntza eta plangintza.</td></tr>
<tr><td>Aurrekontua</td><td>Egutegia</td><td>Inplikatutako eragileak</td></tr>
<tr><td>Kostua GIHren mahaiaren esparruan dago barneratuta. Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1.</td><td>2016-2018</td><td>Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Ingurugela (HB—EJ)<br>Berritzegune Gernika<br>GIIHK<br>IHOBE<br>GIHko mahaia</td></tr>
</table>





| Ekintza | |
|---|---|
| E.4.3.2 | Etengabe hobetzeko sistema bat ezartzea eta kalitate-irizpideak aplikatzea. |
| **Deskribapena** | |
| Adostutako irizpideen aplikazioaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat ezartzea, ekipamenduek praktika ebaluatu dezaten. Gutxi gorabeherako protokolo hau zehaztu da:<br>((a) Ekipamenduek zehaztutako irizpideen arabera diagnostikatuko dituzte jardunbideak.<br>(b) Ikastetxe bakoitzak jardunbide egokiak identifikatuko eta proposatuko ditu (E.4.6.2).<br>(c) Jardunbide egokitzat hartutako esperientzia-banku bat egingo da.<br>(d) Ikastetxe bakoitzak hobekuntza-proposamenak egingo ditu, kalitate-irizpideen orientabideei jarraituta.<br>(e) Hobetzeko proposamenak ebaluatuko dira. Ondo, autoebaluazioagatik; ondo, ikastetxeetako/ekipamenduetako langileek elkar ebaluatzeagatik.<br>(f) Lortutako emaitzak Koordinazio Batzordean eta “Hezkuntza Mahaian” jakinaraziko eta partekatuko dira, etengabe hobetzen jarraitzeko. | |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kostua GIHren mahaiaren esparruan dago barneratuta. Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1. | 2018-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Ingurugela (HB—EJ)<br>Berritzegune Gernika<br>GIIHK<br>IHOBE<br>GIHko mahaia |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
| Helburu espezifikoa | H.4.4 | Iraunkortasun-ziurtagiri bati atxikitako ikastetxeen ehunekoa areagotzea. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.4.1 | Aholkularitza- eta hedapen-lana egitea, "Iraunkortasunerako eskolak" kalitate-ziurtagiria lortzeko. | |
| Deskribapena | | |
| Ingurugelarekin lan egitea, ikastetxe motibatuenak edo ziurtagiria lortzeko irizpideak eta aholkularitza lortzetik, hura gauzatzetik edo hura lortzeko jarraipenetik gertuen daudenak identifikatzeko. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Sustatzaileen ohiko aurrekontuan sartuko da. | 2016-2024 | Sustatzailea: Ingurugela (HB—EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Ikastetxeak<br>GIHko mahaia |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.4.2 | Ikastetxeak UNESCOri lotutako eskolen munduko programari atxikitzeko lan egitea. | |
| Deskribapena | | |
| Ingurugelarekin, Unesco Etxearekin eta ikastetxeekin lan egitea, ikastetxe motibatuenak edo atxikitzeko irizpideak eta aholkularitza lortzetik gertuen daudenak identifikatzeko. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Sustatzaileen ohiko aurrekontuan sartuko da. | 2016-2024 | Sustatzailea: UNESCO Etxea<br>UBEko zerbitzua.<br>Ikastetxeak.<br>GIHko mahaia |





| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
| Helburu espezifikoa | H.4.5 | Gizarte-ingurunea ikastetxeetako hezkuntza-proiektuekin uztartzea eta inplikatzea. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.5.1 | UBEko gai garrantzitsuak txertatzea eta eguneratzea ikastetxeetako EA21etan. | |
| Deskribapena | | |
| Ekintza honek EA21 programan parte hartzen duten ikastetxeen hurbileko gizarte-ingurunea inplikatzeko balizko bideak sustatzen eta aztertzen ditu. EA21 programako ohiko lanean eta horien eta udal-teknikarien artean egindako koordinazio-bileretan egindako eranste estrategikoa da. Ikastetxeek UBEko lurralde zehatzetan egindako esperientziak esperientzien trukerako koordinazio-batzordearen eta GIHren mahaiaren esparruan jakinaraziko dira.<br><br>Nabarmendu behar da bereziki garrantzitsua dela ikastetxeen eta Biosfera Erreserben eginkizuna, UNESCOren *Global Action Programme on Education for Sustainable Development* programaren jarraipenaren berri ematean. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Kostua GIHren mahaiaren esparruan dago barneratuta. Lan teknikoa GIHko koordinatzaileak hartuko du bere gain: E.1.3.1. | 2016-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua.<br>Berritzegune Gernika<br>Ingurugela (HB—EJ)<br>Ikastetxeak<br>Udalak<br>GIHko mahaia |

| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
|---|---|---|
| Helburu espezifikoa | H.4.6 | Berrikuntzarako garapen iraunkorrerako hezkuntza-esperientzien eta -metodologien trukeak erraztea. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.6.1 | UBEn Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Topaketa antolatzea. | |
| Deskribapena | | |
| Hezkuntza-eragile guztiek (testuinguru formalekoek nahiz ez-formalekoek) parte hartuko duten GIHri buruzko topaketa bat antolatzea, garapen iraunkorrerako helburuei eta hezkuntza-metodologiei buruzko ezagutzak sustatzeko, transmititzeko eta trukatzeko. Ezagutza horiek Urdaibaitik bertan edo gertuko beste ekimen batzuetan izango dute jatorria, edo estatuko nahiz nazioarteko beste Biosfera Erreserben sareak baliatuta eskuratuko dira. Ekintza hori prestakuntza-ekintza egiteko baliatuko da, eta Koordinazio Batzordeko eragileen eta Hezkuntza ez-formaleko mahaiaren arteko topagune gisa dago antolatuta.<br><br>1996. eta 2006. urteetan antolatutakoak hartu behar dira kontuan. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| 10.000 € bi urtez behin, topaketa antolatzeko, dinamizatzeko eta gauzatzeko. | 2016-2024 | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>GIHko mahaia |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.6.2 | Ekipamenduek GIHren alorrean dituzten jardunbide egokien berri ematea. | |
| Deskribapena | | |
| Ekintza hau GIHren alorreko kalitate-irizpideen etengabeko hobekuntzarako eta aplikaziorako sistemaren ezarpenaren esparruan dago (E.4.3.2). Ekintza horretan proposatzen den bezala:<br>(a) Ekipamenduek zehaztutako irizpideen arabera diagnostikatuko dituzte jardunbideak.<br>(b) Ikastetxe bakoitzak jardunbide egokiak identifikatuko eta proposatuko ditu.<br>(c) Jardunbide egokitzat hartutako esperientziaen banku bat egingo da.<br><br>GIHri buruzko topaketan, identifikatutako jardunbide egokiak aurkeztuko dira, eta argitalpen digital bat egin nahi da metodologia aplikatu eta handik 4 urtera jasotako materialarekin; gero, tokian nahiz nazioartean hedatuko da. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| E.4.3.1 eta E.4.3.2 ekintzetako aurrekontuetatik etekina aterako duen ekintza.<br><br>Horrez gain, 6.000 € beharko dira jardunbide egokiak argitaratzeko eta horiek zabaltzeko (2019 eta 2023). | 2020-2024<br><br>2021 (argitalpena) | Sustatzailea: GIHko koordinatzailea (E.1.3.1) (HB – EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>Ingurugela (HB - EJ)<br>Berritzegune Gernika<br>GIHko mahaia<br>Ikastetxeak<br>Baserri-eskolak<br>UBC<br>SEEZ |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
| Helburu espezifikoa | H.4.7 | Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza barneratzea, lurraldearen kudeaketarako zeharkako alderdi gisa. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.4.7.1 | GIHko ekintzak UBEn egingo diren planetan, programetan eta proiektuetan txertatzea. | |
| **Deskribapena** | | |
| Patronatuko zerbitzuak planei eta programei ekarpenak egiteko lana, haien garapenean eta modu positiboan GIHren alorreko ekintzak edo sentsibilizazio-ekintzak eransteko. Adibidez, errepide berri baten proiektuan biztanleria orokorrari zuzendutako gidatze eraginkorreko ikastaro bat har daiteke barnean (sustatzailearen edo UBEren aurrekontua).<br><br>Are zehatzago, Patronatuak gauzatutako proiektu guztietan GIHren alorreko ekintza zehatzak egin beharko dira. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| Proiektu edo programa bakoitzari lotutako aurrekontua. | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>EJ<br>BFA<br>Lanbide Ekimenak<br>Behargintza Bermeo<br>GIIHK<br>GIHko mahaia<br>Urremendi LGE |

## 3. 5. 5. Iraunkortasunerako Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa

### 3. 5. 5. 1. Programako ekintzen laburpena

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 5 | UBEko komunitateak beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izatea, ingurumenaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorrean lurraldean garapen iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko. |
| Helburu espezifikoa | H.5.1 | UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea. |
| Ekintza | | |
| E.5.1.1 | Prestakuntza-/gaikuntza-beharrei buruzko saio monografikoa, Lankidetza Batzordeko eragileekin, Osoko Bilkurakoekin, udal-eragileekin (udalak eta Udalsarea 21) eta GIHren eta Turismoarekin Mahaietako eragileekin. | |
| E.5.1.2 | UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoen inguruko akordioa. | |
| E.5.1.3 | JSHGP berrian identifikatutako behar eta lehentasunak UBEren prestakuntza-/gaikuntza-estrategian txertatzea. | |
| E.5.1.4 | Prestakuntza-/gaikuntza-ekintzen urteko plangintza. | |
| E.5.1.5 | Prestakuntza-/gaikuntza-lehentasunak Eskualdeko Garapen Foroan (15 foroa) azaltzea. | |
| E.1.1.4 | Lankidetza-akordioa gaikuntza-agentziekin. | |
| E.4.1.8 | Komunitateari garapen iraunkorraren inguruan laguntzeko Ikaskuntza-Zerbitzua (IkZ) hezkuntza-metodoa erabiltzen hastea. | |
| E.4.1.10 | Iraunkortasunean ekiteko programak sustatzea. | |
| Helburu espezifikoa | H.5.2 | Eragile hauetako bakoitzari zuzendutako prestakuntza-/gaikuntza-ekintza antolatzea, eta horien artean elkarren arteko prestakuntza sustatzea:<br>—Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioan jarduten duten langileak.<br>—Hezkuntza ez-formaleko zentroetako hezitzaileak.<br>—Zerbitzuen sektorea eta turismoa.<br>—Lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza edo basogintza).<br>—Industria- eta eraikuntza-sektorea. |
| Ekintza | | |
| E.5.2.1 | UBEko interpretatzaileei zuzendutako heziketa-zikloa. | |
| E.5.2.2 | Jolas-jardueren praktikarako gida: irizpideak eta arauak. | |
| E.5.2.3 | Iraunkortasunerako prestakuntza-ekintza lehen sektorean. | |
| E.5.2.4 | Iraunkortasunerako prestakuntza-ekintza industria-sektorean. | |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu espezifikoa | H.5.3 | Udaletako arduradun politikoei eta teknikariei UBEren kudeaketaren inguruko informazio garrantzitsuenaren berri ematea: helburuak, balioak, ekintzak, etab. |
| Ekintza | | |
| E.5.3.1 | Informazio- eta ongietorri-jardunaldia, tokiko eta autonomia-erkidegoko gobernu-talde berrientzat. | |
| E.5.3.2 | Udaletako arduradun politikoei Patronatuaren Osoko Bilkurako aktak eta kudeaketa-memoriak helaraztea. | |
| E.5.3.3 | Udal-arduradunak UBEren buletin elektronikoan harpidetzea. | |
| E.5.3.4 | Aholkularitza- eta orientabide-zerbitzua udaletako teknikarientzat eta politikarientzat. | |
| E.5.3.5 | Sareko lan konparatiboa udal-zerbitzuetan. | |
| E.5.3.6 | Udaletako arduradun politikoei eta teknikoei zuzendutako prestakuntza-ekintza. | |
| Helburu espezifikoa | H.5.4 | UBEko irakasleei zuzendutako prestakuntza-eskaintza handitzea, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean metodologia berritzaileak txertatzeko eta UBErekin lotura estuagoa lortzeko. |
| Ekintza | | |
| E.5.4.1 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorreko hezkuntza-metodologia berritzaileei buruzko ikastaroa, eta EA21en lotura lurraldearen behar espezifikoekin. | |



## 3. 5. 5. 2. Programako ekintzak

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 5 | UBEko komunitateak beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izatea, ingurumenaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorrean lurraldean garapen iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko. |
| Helburu espezifikoa | H.5.1 | UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.5.1.1 | Prestakuntza-/gaikuntza-beharrei buruzko saio monografikoa, Lankidetza Batzordeko eragileekin, Osoko Bilkurakoekin, udal-eragileekin (udalak eta Udalsarea 21) eta GIHren eta Turismoarekin Mahaietako eragileekin. | |
| Deskribapena | | |
| Lankidetza Batzordean eta Patronatuaren Osoko Bilkuran saio monografiko bat egitea, UBEn garapen iraunkorraren alorreko prestakuntzaren/gaikuntzaren alorrean jorratu beharreko behar eta gai estrategikoak aberaste aldera, eta hala, haiek betetze eta adoste aldera. Saio monografiko horietara Batzordeko edo Osoko Bilkurako kide ez diren eragileak gonbidatu daitezke, hala nola Behargintzak eta Lanbide, sareko lana eta lan bateratua egite aldera.<br><br>Halaber, udalekin eta Udalsarea 21ekin ere egingo da lan, lehentasunetan zein txertatuko diren identifikatzeko saio monografiko baten bitartez.<br><br>PICE-IGHPn identifikatutako beharrak eta lehentasunak hartuko dira oinarrian (E.5.1.2) (eta GIHren eta turismoaren alorreko sektoreko mahaietan jasotakoak), eta parte-hartzaileei baloratuko dituzte. Parte-hartzaileei UBEren garapen iraunkorrerako lehentasunezkoak iruditzen zaizkien prestakuntza-/gaikuntza-beharrak azaltzeko eskatuko zaie. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | 2015, 2019 eta 2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Lankidetza Batzordea<br>Patronatuaren Osoko Bilkura<br>Lanbide Ekimenak<br>Behargintza Bermeo<br>Udalak (udal-teknikariak)<br>Udalsarea 21 |



| Ekintza | |
|---|---|
| E.5.1.2 | UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoen inguruko akordioa. |

**Deskribapena**

Prestakuntzaren/gaikuntzaren alorrean jorratu beharreko eta plan honetan identifikatutako beharrak eta gaiak eta egindako saio monografiko parte-hartzailearen emaitzak oinarrian hartuta (E.5.1.1), "Garapen iraunkorrerako prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak UBEn" izeneko dokumentu bat idatziko eta onartuko da. Dokumentu hori PICE-IGHPren indarraldian ekintza-programa hau garatzeko bide-orria izango da.

Honako hauek dira PICE-IGHPn identifikatuta dauden prestakuntzaren/gaikuntzaren alorrean jorratu beharreko ildo estrategikoak:

- UBEren irudiaren, inplikazioen, abantailen eta mugen ezagutza areagotzea.
- UBEko natura- eta kultura-ondarearen ezagutza areagotzea, bai eta ingurunea-gizartea interakzioa ere.
- Ekosistemen Zerbitzuak Giza Ongizaterako paradigma berrian barneratzea.
- Iraunkortasuna kontzeptua UBEko eragile sozioekonomikoei aurkeztea eta haiengan hura finkatzea.
- Garapen iraunkorrerako estrategiak abian jartzeak dituen tokian tokiko eta lurraldeko inplikazioak transmititzea.
- Lurraldeko administrazio- eta kudeaketa-langileak eta sektore sozioekonomikoak Ingurumen Prestakuntzako prozesuetan txertatzea.
- Ekonomia berdearen eta ekoekintzailetzaren alorreko beharrezko prestakuntza/gaikuntza ahalbidetzea, UBEren garapen iraunkorrerako aukerekin lerrokatutako jarduera ekonomikoaren garapena sustatzeko, bai eta lehendik dagoen edo etorkizunean egon daitekeen ingurumenaren alorreko jarduera ekonomikoarekin ere.

Eragile bakoitzaren gaikako eduki espezifikoak H.5.2, H.5.3 eta H.5.4 helburuetan datoz garatuta.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | 2016, 2020 eta 2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Lankidetza Batzordea<br>Patronatuaren Osoko Bilkura<br>Lanbide Ekimenak<br>Behargintza Bermeo<br>Udalak (udal-teknikariak) |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.5.1.3 | JSHGP berrian identifikatutako behar eta lehentasunak UBEren prestakuntza-/gaikuntza-estrategian txertatzea. |

**Deskribapena**

Jarduera Sozioekonomikoak Harmonizatzeko eta Garatzeko Programa (JSHGP) berri bat lantzea eta onartzea UBEn; aurreikusita dago hori.

Ziur asko, behar eta lehentasun berriak identifikatuko ditu garapen iraunkorrerako prestakuntzaren/gaikuntzaren alorrean. Indarrean dauden ildo estrategikoak (E.5.1.3 ekintza) JSHGP berrian proposatutakoekin lerrokatuta dauden egiaztatu beharko da, eta behar balitz, ildo horiek Plan berriko erabakietara egokitu beharko dira, UBEko plangintza- eta kudeaketa-tresna guztien artean lerrokatze egoki batekin jarraitzeko.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | JSHGP berria onartu ondoren (2017-2018) | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Lankidetza Batzordea<br>Patronatuaren Osoko Bilkura<br>Lanbide Ekimenak<br>Behargintza Bermeo<br>Udalak (udal-teknikariak) |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.5.1.4 | Prestakuntza-/gaikuntza-ekintzen urteko plangintza. |
| Deskribapena | |
| Prestakuntza-ekintza gaikuntza-agentziekin koordinatzea, Plan honetan identifikatutako garapen iraunkorrerako prestakuntza-beharrak prestakuntza-errealitatearekin alderatuta, eta horiek gaikuntza-agentzien egungo gaitasunekin ahokatuta, gauzatu ahal izateko. Hala, lehentasunezkotzat jotako eta gaikuntza-agentziek bere gain hartzen ez dituzten prestakuntza-jarduerak Patronatuak osatu ahal izango ditu.<br><br>Inplikatutako eragileekin batera garatu beharreko prestakuntza-/gaikuntza-ekintzen urteko plangintza egitea, adostutako eta onartutako ildo estrategikoen arabera, eta horiek gauzatzeko beharrezko bitartekoen eta baliabideen plangintza eginda. | |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | 2016-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Lanbide Ekimenak<br>Behargintza Bermeo<br>Udalak (udal-teknikariak) |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.5.1.5 | Prestakuntza-/gaikuntza-lehentasunak Eskualdeko Garapen Foroan (15 foroa) azaltzea. |
| DESKRIBAPENA | |
| UBEko garapen iraunkorrerako prestakuntzaren/gaikuntzaren ildo estrategikoak sortzen ari den Eskualdeko Garapen Foroari (15 foroa) helaraztea, bai eta prestakuntzaren/gaikuntzaren urteko plangintza ere; hala, sinergia positiboak sortuko dira, ez da ezer ezkutatuko eta koordinazioa eta lan bateratua maximizatuko dira. | |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | 2016-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>15 foroa |



| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 5 | UBEko komunitateak beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izatea, ingurumenaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorrean lurraldean garapen iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko. |
| Helburu espezifikoa | H.5.2 | Eragile hauetako bakoitzari zuzendutako prestakuntza-/gaikuntza-ekintza antolatzea, eta horien artean elkarren arteko prestakuntza sustatzea:<br>—Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioan jarduten duten langileak.<br>—Hezkuntza ez-formaleko zentroetako hezitzaileak.<br>—Zerbitzuen sektorea eta turismoa.<br>—Lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza edo basogintza).<br>—Industria- eta eraikuntza-sektorea. |

| Ekintza | |
|---|---|
| A.5.2.1 | UBEko interpretatzaileei zuzendutako heziketa-zikloa |

## Deskribapena

Hiru urtean behin egingo den UBEko gidari interpretatzaileen ikastaro bat diseinatzea eta egitea, egungo eskaintzaren kalitatea hobetzeko, jardunbide egokiak sustatzeko eta alor horretan garapen ekonomikorako aukera berriak sustatzeko.

Orientazio gisa, honako oinarrizko eduki hauek proposatzen dira:

1. Merkatu ekoturistikoaren eta ondarearen interpretazioaren egitura UBEn. Goraka ari diren zerbitzuak eta negozio-aukerak.
2. Natura- eta kultura-ondareari aplikatutako ondarearen interpretazioaren printzipioak eta teknikak.
3. Ekoturismoko eta naturako gidaria-interpretatzailea. Profila eta aukerak.
4. UBEko natura- eta kultura-baliabideen ezagutza eta balorazioa. UBEko lurraldearen eta dagoen eskaintzaren ikuspegi osoa (UBEko habitatak eta espezieak, ondare geologikoa, kultura-ondarea, usadio tradizionalak).
5. Ekosistemen Zerbitzuak Giza Ongizaterako paradigma berrian barneratzea.
6. Natura-ingurunean identifikatzeko materiala eta oinarrizko teknikak.
7. UBEko natura-ondareari buruzko hezkuntza- eta turismo-baliabideak eta haien trataera.
8. UBEko ondarea interpretatzeko ibilbideen plangintza egitea.
9. Erabilera publikoko azpiegiturak UBEn.
10. UBEren jasate-ahalmena: jasate-ahalmen ekologikoa eta soziala.
11. Kalitate-irizpideak ondarearen interpretazioan.
12. Jardunbide egokiak ondarearen interpretazioan.
13. Berrikuntza ondarearen interpretazioan.

Urtero, natura- eta kultura-ondarearen interpretazioan lanean diharduten langileei zuzendutako prestakuntza-ekintza espezifiko bat egitea.

Ekintzaren formatua aldakorra izan daiteke, eta honela egituratu daiteke: modulu metagarriak (UBEko gidari titulua osatu eta lortu arte), jardunaldi teknikoa, prestakuntza-ikastaroa, tailer praktikoa, landa-irteera, etab. UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko topaketaren esparruan kokatuko da (E.3.7.1 ekintza).

Publikoak interpretazioaren sektore guztiak hartu behar ditu barnean: eskola-umeak, formala eta ez-formala, eta turistikoa.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Ikastaroa sortzea: 18.000 € (2017).<br><br>18.000 € edizioko (hiru urtekoa, 2017-2023). | 2017-2024, hiru urtetik behin | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Behargintza Bermeo<br>Lanbide Ekimenak<br>GIH mahaia<br>EJ<br>BFA<br>GIIHK<br>UPV-EHU<br>UBC<br>Ondarearen interpretazioko eragileak |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.5.2.2 | Jolas-jardueren praktikarako gida: irizpideak eta arauak. | |
| **Deskribapena** | | |
| Jolas- eta turismo-jarduerak sustatzen diharduten pertsonei eta kolektiboei zuzendutako jolas-jardueren praktikarako gidaliburu bat egitea eta argitaratzea, eta zenbait irizpide eta arau ematea jarduera horiek ingurumenean inpaktu negatiborik izan ez dezaten.<br>Gidaliburua hedatzeko, UBEren webgunean argitaratzea eta, plan honetako eragileen zerrendaren arabera, jolas-jarduerak egiten dituzten eragile guztiei bidaltzea. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| 10.000 €. Gidaliburuaren lanketa kanporatzea (edukia, parte-hartzea, diseinua eta maketazio digitala). | 2020 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Behargintza Bermeo<br>Lanbide Ekimenak<br>GIIHK<br>Ondarearen interpretazioko eragileak |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.5.2.3 | Garapen iraunkorrerako prestakuntza-ekintza lehen sektorean. | |
| **Deskribapena** | | |
| Lehen sektoreko eragileei (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza edo basogintza) zuzendutako prestakuntza-ekintza espezifikoak egitea.<br>Ekintzaren formatu aldakorra izan daiteke, baina honela egituratu daiteke: jardunaldi teknikoa, prestakuntza-ikastaroa, tailer praktikoa, landa-irteera, etab. Jorratu beharreko gai hauek identifikatu dira, gutxi gorabehera:<br>—Basoko baliabideen kudeaketa iraunkorra:<br>• Baso-masen ingurumen-zerbitzuak.<br>• Kalitate-irizpideak eta jardunbide egokiak basogintza-sektorean.<br>• Baso-kudeaketa iraunkorra. Ziurtagiria.<br>• Basoko azpiproduktuak. Errealitatea eta aukerak UBEn.<br>• Basoaren funtzio aniztasuna.<br>—Nekazaritza iraunkorra:<br>• Agrobiosistema ulertzera bideratutako oinarrizko ekologiaren inguruko kontzeptuak, nekazaria gai egingo dutenak nekazaritza-arazoei konponbide ekologikoak emateko.<br>• Biodibertsitatearen eta produktibitatearen artean dagoen bateragarritasuna. Eredu bateragarriak nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan.<br>• Ur-zikloa eta lurzorua ezagutzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenetan kaltea jasan dezaketen baliabideak diren aldetik. Ur-zikloari eustea.<br>• Izurrien eta gaixotasunen kontrol ekologikoa.<br>• Nekazaritza ekologikoa. Negozio-aukerak.<br>• Kalitate-irizpideak eta jardunbide egokiak nekazaritza-sektorean.<br>—Arrantza iraunkorra:<br>• Itsas ekologiaren inguruko oinarrizko kontzeptuak, itsas eta itsaski-baliabideak kostaldean kontserbatzeari buruzkoak.<br>• Aparailu ez-selektiboekin harrapatutako espezie babestuak.<br>• Arrantza-aparailu desberdinen ingurumen-inpaktua (inguraketa, tresmaila, tretza, kanabera, etab.).<br>• Arrantzaren ondorio diren hondakinen kudeaketa: bilketa eta birziklapena.<br>• Kalitate-irizpideak eta ingurumenaren alorreko jardunbide egokiak arrantza-sektorean. | | |
| **Aurrekontua** | **Egutegia** | **Inplikatutako eragileak** |
| 5.000-10.000 € urtean. Urtero zehaztutako ekintzaren arabera zehazteko. | 2017-2024 | Sustatzailea: Behargintza zerbitzua<br>UBEko zerbitzua<br>Lanbide Ekimenak<br>EJ<br>BFA<br>GIIHK<br>UPV-EHU<br>Basogintza-, nekazaritza- eta arrantza-sektoreko eragileak<br>BFAko Nekazaritza Saila<br>Nekazari Elkarteak (EHNE, ENBA) |



| Ekintza | |
|---|---|
| E.5.2.4 | Garapen iraunkorrerako prestakuntza-ekintza industria-sektorean. |

**Deskribapena**

Urtero industria-sektoreko eragileei zuzendutako prestakuntza-ekintza espezifiko bat egitea. Ekintzaren formatua aldakorra izan daiteke, baina honela egituratu daiteke: jardunaldi teknikoa, prestakuntza-ikastaroa, tailer praktikoa, landa-irteera, etab.

Jorratu beharreko gai hauek identifikatu dira, gutxi gorabehera:

— Biosfera Erreserba kontzeptua: balioak, helburuak eta beste babes-irudi batzuekiko aldeak.

— Industria-jarduera desberdinek UBEn duten ingurumen-inpaktua.

— Ekonomia berdea. Kalitate-irizpideak eta ingurumenaren alorreko jardunbide egokiak industria-sektorean.

— Ingurumen-kudeaketako sistemak. Ziurtagiriak.

— Enpresen gizarte-erantzukizuna.

— Berrikuntza eta garapena ekoindustriaren alorrean. Errealitatea eta aukerak.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 5.000-10.000 € urtean. Urtero zehaztutako ekintzaren arabera zehazteko. | 2017-2024 | Sustatzailea: Behargintza Bermeo<br>UBEko zerbitzua.<br>Lanbide Ekimenak<br>EJ<br>BFA<br>GIIHK<br>UPV-EHU<br>Industria-sektoreko eragileak |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 5 | UBEko komunitateak beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izatea, ingurumenaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorrean lurraldean garapen iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko. |
| Helburu espezifikoa | H.5.3 | Udaletako arduradun politikoei eta teknikariei UBEren kudeaketaren inguruko informazio garrantzitsuenaren berri ematea: helburuak, balioak, ekintzak, etab. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.5.3.1 | Informazio- eta ongietorri-jardunaldia, tokiko eta autonomia-erkidegoko gobernu-talde berrientzat. | |
| Deskribapena | | |
| Hauteskunde-prozesu bakoitzaren ondoren, informazio- eta ongietorri-jardunaldi bat diseinatzea eta antolatzea tokian tokiko eta autonomia-erkidegoko gobernu-taldeetako kideei zuzenduta; hala, zuzenean transmitituko zaie zer den UBEren irudia, zer balio eta onura dituen, eta zer lankidetza-ekintza burutu daitezkeen, lurraldearen garapen iraunkorra lortzeko. Jardunaldi hori bide ireki bat izango da, gerturatzeko xedea duena; ondoren, arduradun politikoen eta Patronatuko eta haren Zerbitzu Teknikoko arduradunen arteko komunikazioa erraztuko du. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Erakunde sustatzaileak bere gain hartutako lan teknikoa. | Hauteskunde-prozesu bakoitzaren ondoren. 2016 eta 2018 eta 2021 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Udalak<br>EJ<br>BFA<br>UBEren eremuko arduradun politikoak |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.5.3.2 | Udaletako arduradun politikoei Patronatuaren Osoko Bilkurako aktak eta kudeaketa-memoriak helaraztea. | |
| Deskribapena | | |
| UBEren zerbitzutik Patronatuaren Osoko Bilkuraren aktak eta kudeaketa-memoriak UBE osatzen duten Udal guztietako udal-arduradun politikoei sistematikoki helaraztea. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Ez du kosturik lotuta. | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Udalak<br>EJ<br>BFA<br>UBEren eremuko arduradun politikoak |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.5.3.3 | Udal-arduradunak UBEren buletin elektronikoan harpidetzea. | |
| Deskribapena | | |
| UBE osatzen duten Udaletako udal-arduradun politikoei eta teknikoei zuzenean eskatzea UBEren buletin elektronikoaren harpidedun egiteko. Harpidetzen ehunekoa ebaluatzea, eta komunikazio-estrategia bat diseinatzea kolektibo horren % 100 harpidetu dadin.<br><br>Kontuan hartu behar da ekintza hau hauteskunde-prozesu bakoitzaren ondoren gauzatu behar dela. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Ez du kosturik lotuta. | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Udalak<br>UBEren eremuko arduradun politikoak eta teknikoak |

| Ekintza | |
| --- | --- |
| E.5.3.4 | Aholkularitza- eta orientabide-zerbitzua udaletako teknikarientzat eta politikarientzat. |
| Deskribapena | |
| UBEtik, UBEko araudiari eta plangintzari buruzko aholkularitza- eta orientabide-zerbitzu bat eskaintzea udaletako teknikariei eta politikariei; behar bezala zabalduko da UBEko hainbat urtetarako Komunikazio Programan ezarritako kanalen bidez.<br><br>Erabilera bakoitzaren ondoren, zerbitzua baloratzeko erregistro- eta inkesta-protokolo bat ezartzea, zerbitzuarekiko erabilera- eta asebetetze-mailaren jarraipen- eta ebaluazio-prozesu bat egin ahal izateko. | |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| --- | --- | --- |
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | 2016-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Udalak<br>UBEren eremuko arduradun politikoak eta teknikoak |

| Ekintza | |
| --- | --- |
| E.5.3.5 | Sareko lan konparatiboa udal-zerbitzuetan. |
| Deskribapena | |
| Udalerrien arteko konparazio-metodologian oinarritutako proba pilotu bat egitea, UBEko udalerrien sareko lanerako. Bartzelonako Diputazioak udal-zerbitzuetan egindako Udalen arteko Konparazio Taldeak (http://www.diba.cat/es/web/menugovernlocal/cci) horren adibide arrakastatsua dira.<br><br>Horren xedea da inpaktu handiena duten ingurumenaren alorreko udal-ekintzak alderatzea eta ezarpena etengabe hobetu ahal izatea, bottom-up deritzon lan-metodologia erabiliz. Metodologia horrek aukera ematen du udalen arteko jardunbide egokiak modu estandar batean alderatzeko eta zabaltzeko, bai eta zeharkako lana egiteko ere. Urteetan zehar lortutako ebaluazio-informazio konparatua elementu erabilgarria izan daiteke tokiko arduradunentzat garatutako eremuetan erabakiak hartzeko prozesuan. | |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| --- | --- | --- |
| Laguntza teknikoa: 18.000 €. | 2020-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Udalak<br>UBEren eremuko arduradun politikoak eta teknikoak |

| Ekintza | |
| --- | --- |
| E.5.3.6 | Udaletako arduradun politikoei eta teknikoei zuzendutako prestakuntza-ekintza. |
| Deskribapena | |
| Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) eta/edo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) prestakuntza-eskaintzaren barruan, iraunkortasunaren alorreko eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako arduradun politikoei eta teknikoei zuzendutako urteko prestakuntza-ekintza bat txertatzea.<br><br>Harremanak egitea inplikatutako eragileekin, dauden aukerak ebaluatzeko eta zer prestakuntza mota eta eduki eskain daitezkeen zehazteko. Prestakuntza-ekintza diseinatzea eta egungo prestakuntza-eskaintzaren barnean sartzea. | |

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| --- | --- | --- |
| Kostua HAEEk edo EUDELek hartuko dute bere gain. UBEko langileak.. | 2018-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Udalak<br>EUDEL<br>HAEE |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 5 | UBEko komunitateak beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izatea, ingurumenaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorrean lurraldean garapen iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko. |
| Helburu espezifikoa | H.5.4 | UBEko irakasleei zuzendutako prestakuntza-eskaintza handitzea, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean metodologia berritzaileak txertatzeko eta UBErekin lotura estuagoa lortzeko. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.5.4.1 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorreko hezkuntza-metodologia berritzaileei buruzko ikastaroa, eta EA21en lotura lurraldearen behar espezifikoekin. |

**Deskribapena**

Irakasleen prestakuntza-eskaintzan (GARATU) garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorreko hezkuntza-metodologia berritzaileei buruzko ikastaro espezifiko bat txertatzea urtean, UBEri eta Urdaibaiko ikastetxeen EA21en esparruko ekintzak lurraldearen egiazko beharrei lotzeko aukerei buruz.

Plan horren esparruan, UBEko Patronatuaren, Ingurugelaren eta Gernikako Berritzegunearen arteko lankidetzan, garatu beharreko prestakuntza-ekintzak diseinatzea: prestakuntza motak, inplikatutako eragileak, edukiak, egutegia, etab. Hori irakasleentzako prestakuntza-eskaintzan txertatzea.

Urteen buruan, ikastaroak gai desberdinak jorratu ditzala proposatzen da.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Erakunde sustatzaileak bere gain hartutako lan teknikoa. | 2017-2024 | Sustatzailea: Ingurugela (HB - EJ)<br>UBEko zerbitzua<br>GARATU<br>Berritzegune Gernika<br>GIHko mahaia |

## 3. 5. 6. Ikerketa Zientifikorako Programa

### 3. 5. 6. 1. Programako ekintzen laburpena

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 6 | Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea. |
| Helburu espezifikoa | H.6.1 | Ikerketa-jarduera koordinatzea. |
| Ekintza | | |
| E.1.1.5 | Lankidetza-akordioa UNESCO katedraren eta UBEko Patronatuaren artean, ikerketa-jarduera koordinatzeko. | |
| Helburu espezifikoa | H.6.2 | UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketa zientifikoaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea. |
| Ekintza | | |
| E.6.2.1 | UBEren kudeaketarako iraunkortasunaren alorreko ikerketa- eta/edo aholkularitza-lanen beharrak identifikatzea. | |
| E.6.2.2 | Ikerketa-beharrei buruzko saio monografikoa, Lankidetza Batzordeko eragileekin, Osoko Bilkurakoekin eta udal-eragileekin (udalak eta Udalsarea 21). | |
| E.6.2.3 | UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoen inguruko akordioa. | |
| E.6.2.4 | JSHGP berrian eta EKPZ berrian identifikatutako behar eta lehentasunak UBEren ikerketa zientifikorako estrategian txertatzea. | |
| Helburu espezifikoa | H.6.3 | UBErako identifikatutako beharrak jorratzen dituzten ikerlan zientifikoak sustatzea. |
| Ekintza | | |
| E.6.3.1 | Ikerketa-jarduera lehentasunezko ildoetan sustatzeko mekanismoak. | |
| Helburu espezifikoa | H.6.4 | Ezagutza zientifikoaren trukerako eta transmisiorako tresna egonkorrak ezartzea. |
| Ekintza | | |
| E.6.4.1 | Ikerketa- eta aholkularitza-proiektuei buruzko dibulgazio-ekintzak. | |
| E.6.4.2 | Ikerketari buruzko topaketa UBEn. | |
| E.3.7.3 | Teknologia berrietan oinarritutako herritarren ikerketa-ekintzak. | |
| E.6.4.3 | Ikerketaren emaitzak Lankidetza Batzordeari, Osoko Bilkurari eta sektoreko mahaiei helaraztea. | |

| Helburu espezifikoa | H.6.5 | Patronatuak sustatuta, Garapen iraunkorraren alorreko ikerketa- edo behaketa-jarduerei berriz heltzea edo eustea. |
|---|---|---|

| Ekintza | |
|---|---|
| E.6.5.1 | Natura-inguruneari, eta kultura-, gizarte- eta ekonomia-ondareari buruzko informazioa duten datu-baseak. |
| E.6.5.2 | UBEn bizi den biztanleriaren iritziaren egoera. |
| E.6.5.3 | UBEren garapen iraunkorrari buruzko kanpoko ebaluazioa. |
| E.6.5.4 | UBEren garapen iraunkorraren behatokia. |



### 3. 5. 6. 2. Programako ekintzak

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 6 | Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea. |
| Helburu espezifikoa | H.6.1 | Ikerketa-jarduera koordinatzea. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.1.1.5 | Lankidetza-akordioa UNESCO katedraren eta UBEko Patronatuaren artean, ikerketa-jarduera koordinatzeko. |



| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 6 | Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea. |
| Helburu espezifikoa | H.6.2 | UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketa zientifikoaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.6.2.1 | UBEren kudeaketarako ikerketa- eta/edo aholkularitza-lanen beharrak identifikatzea. | |
| Deskribapena | | |
| Patronatuaren barruan, UBEren kudeaketan ikerketa- eta/edo aholkularitza-lanen bitartez konpondu daitezkeen arazoak eta beharrak identifikatzea, eta alor bakoitzean jorratu beharreko lehentasunen zerrenda bat egitea. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | 2015-2016<br>2019-2020<br>2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>GIIHK |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.6.2.2 | Ikerketa-beharrei buruzko saio monografikoa, Lankidetza Batzordeko eragileekin, Osoko Bilkurakoekin eta udal-eragileekin (udalak eta Udalsarea 21). | |
| Deskribapena | | |
| Lankidetza Batzordean eta Patronatuaren Osoko Bilkuran saio monografiko bat egitea, UBEn garapen iraunkorraren alorreko ikerketa zientifikoaren alorrean jorratu beharreko behar eta gai estrategikoak aberaste aldera, eta hala, haiek betetze eta adoste aldera.<br><br>Halaber, udalekin eta Udalsarea 21ekin ere egingo da lan, lehentasunetan zein txertatuko diren identifikatzeko saio monografiko baten bitartez.<br><br>Plan honetan identifikatutako beharrak eta lehentasunak hartuko dira oinarrian (eta GIHren eta turismoaren alorreko sektoreko mahaietan jasotakoak), eta parte-hartzaileek baloratuko dituzte. Parte-hartzaileei UBEren garapen iraunkorrerako lehentasunezkoak iruditzen zaizkien ikerketa-lerroak azaltzeko eskatuko zaie. Hala, PICE-IGHPn identifikatutako ildo estrategikoak osatu eta adostu nahi dira. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | 2015, 2019 eta 2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>Lankidetza Batzordea<br>Patronatuaren Osoko Bilkura<br>GIIHK<br>UPV-EHU<br>Ikerketa-taldeak<br>Udalak<br>Udalsarea 21 |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.6.2.3 | UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoen inguruko akordioa. |

**Deskribapena**

Ikerketaren alorrean jorratu beharreko eta plan honetan identifikatutako beharrak eta gaiak eta egindako saio monografiko partehartzailearen emaitzak oinarrian hartuta (E.6.2.2), "Garapen iraunkorrerako ikerketaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak UBEn" izeneko dokumentu bat idatziko eta onartuko da. Dokumentu hori PICE-IGHPren indarraldian ekintza-programa hau garatzeko bide-orria izango da.

PICE-IGHPn identifikatutakoaren arabera, honako hauek dira ikerketaren eta/edo aholkularitzaren alorrean jorratu beharreko ildo estrategiko batzuk:

- *Prozesu sedimentarioak eta hidrodinamikoak estuarioan.* Egungo karakterizazioa, horiei eragin diezaieketen jardunbide antropikoak eta etorkizunerako joerak klima-aldaketako agertoki batean.
- *Biodibertsitatearen bilakaera.* Oro har, UBEren ingurumen-egoera ezagutzera zuzendutako ikerketa eta jarraipenak, eta, behar balitz, hura hobetzeko proposamenak. Abiapuntu gisa, Urdaibaiko KBEen Kudeaketa Planean ezarritako ikerketei jarraituko zaie.
- *Gizarte-zientziei eta UBEren bilakaera sozioekonomikoari buruzko ildoak.* Beste eskualde batzuekin alderatuta egindako analisiak. Tokiko biztanleek Biosfera Erreserbaren irudiarekiko duten pertzepzioaren bilakaera. Garapen iraunkorraren soziologia (herritarren interesak eta iraunkortasunean aurrera egiteko jarduketa estrategikoen identifikazioa), etab.
- *Giza eragina BEn.* Giza jardueren eragina, mugak eta kudeaketa-ereduak.
- *UBEren baitako mugikortasunaren analisia*. Diagnosia eta kudeaketa-ereduak, mugikortasun iraunkorra lortzeko.
- *Paisaiaren dinamika.* Egungo egoera eta egindako gestioaren araberako agertokiak.
- *Baso-sartzeak*. Nola eragiten duten lurzoruaren galeran; baso-sartzeetan biodibertsitatea handitzeko neurriak. Azken urteetan, hedatzen ari da eukalipto-basoen landaketa, kudeaketa horren ondorioen analisia; tokiko hostozabalen baso-laborantzen bideragarritasuna, etab.
- *Prozesu karstikoak eta uraren zikloa.* Egungo karakterizazioa, horiei eragin diezaieketen jardunbide antropikoak eta etorkizunerako joerak klima-aldaketako agertoki batean.
- *Ibaietako prozesuak.* Egungo karakterizazioa, horiei eragin diezaieketen jardunbide antropikoak eta etorkizunerako joerak klima-aldaketako agertoki batean

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | 2016, 2020 eta 2024 | Sustatzailea: GIIHK<br>UBEko zerbitzua<br>Lankidetza Batzordea<br>Patronatuaren Osoko Bilkura<br>GIHren mahaia<br>Eskualdeko turismo-mahaia<br>Udalsarea 21<br>Udalak |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.6.2.4 | JSHGP berrian eta EKPZ berrian identifikatutako behar eta lehentasunak UBEren ikerketa zientifikorako estrategian txertatzea. |

**Deskribapena**

Aurreikusita dago UBEn Erabili eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea (EKPZ) berri bat eta Jarduera Sozioekonomikoak Harmonizatzeko eta Garatzeko Programa (JSHGP) berri bat prestatzea eta onartzea, eta horri esker, ikerketaren alorreko behar eta lehentasun berriak identifikatuko dira ziur asko. Indarrean dauden ildo estrategikoak (E.6.2.3 ekintza) plangintza-tresna berrietan proposatutakoekin lerrokatuta dauden egiaztatu beharko da, eta behar balitz, ildo horiek tresna horietan hartutako erabakietara egokitu beharko dira, UBEko plangintza- eta kudeaketa-tresna guztien artean lerrokatze egoki batekin jarraitzeko.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratutako kostua. | EKPZ berria eta JSHGP berria onartu ondoren.<br>2015<br>2017-2018 | Sustatzailea: GIIHK<br>UBEko zerbitzua |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 6 | Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea. |
| Helburu espezifikoa | H.6.3 | UBErako identifikatutako beharrak jorratzen dituzten ikerlan zientifikoak sustatzea. |

| Ekintza | |
|---|---|
| E.6.3.1 | Ikerketa-jarduera lehentasunezko ildoetan sustatzeko mekanismoak. |

**Deskribapena**

Ikerketa-jarduera sustatzeko mekanismoak sortzea eta mantentzea, eta identifikatutako ildo berriak landuko dituzten ikerketa-lerroak zabaltzea. Honako hauek izan daitezke lerro horietako batzuk:

—UNESCO katedrak koordinatutako ikerketarako urteko laguntzen deialdia. Tesiak eta tesinak egiteko deialdia izan daiteke bide eraginkor bat.

—Lankidetza-akordioa UBEn jarduera zientifiko-teknikoa garatzen duten erakundeekin, lehentasunezko gaikako lerroetan proiektuak sustatzeko eta finantzatzeko.

—Akordioa UBEn jarduera zientifiko-teknikoa garatzen duten erakundeekin eta EAEko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekin, UBEn ikerketak sustatzeko diru-laguntzak edo ikerketa-bekak eskaintzeko.

—Proiektu interesgarriak elkarrekin aurkeztea, autonomia-erkidegoko, Espainiako, Europako edo nazioarteko finantzazioa jasotzeko aukera izate aldera.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| 50.000 € urtean. | 2017-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>GIIHK<br>EAEko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea |



| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 6 | Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea. |
| Helburu espezifikoa | H.6.4 | Ezagutza zientifikoaren trukerako eta transmisiorako tresna egonkorrak ezartzea. |

**Ekintza**

| | |
|---|---|
| E.6.4.1 | Ikerketa- eta aholkularitza-proiektuei buruzko dibulgazio-ekintzak. |

**Deskribapena**

Ikerketa- eta aholkularitza-proiektuak bukatzean, haien emaitzak inplikatutako eragileei edo, proiektuak edo ikerketak zer gai duen kontuan hartuta, interesa izan dezaketenei zuzenean ematea. Honako hau proposatzen da:

— Inplikatutako eragileei zuzendutako dibulgazio-materiala prestatzea eta aurkezpen-ekintza bat egitea, ikerketarako eta aholkularitzako lan teknikoak kontratatzeko diru-laguntzak eskatu ahal izateko baldintza gisa.

— Amaitutako ikerketa-lanen emaitzen eta aplikazioen aurkezpena egitea: nori zuzenduta dagoen identifikatzea, publiko horri deialdia egitea eta aurkezpen dibulgatzailea egitea.

| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
|---|---|---|
| Kostua ikerketa- edo aholkularitza-proiektuen aurrekontuaren barnean hartuta dago. | 2017-2024 | Sustatzailea: GIIHK<br>UBEko zerbitzua<br>UPV-EHU<br>Ikerketa-taldeak<br>Esleipendun aholkularitza-enpresak |



| Ekintza | | | |
|---|---|---|---|
| E.6.4.2 | Ikerketari buruzko topaketa UBEn. | | |
| Deskribapena | | | |
| UBEri buruzko ezagutza zientifikoa aurkezteko eta partekatzeko topaketa bat egitea. Topaketa horren edizio bakoitzean, lehentasunezko ikerketa-lerroen alderdietako bat jorratuko da, gai horretan diharduten ikerketa-taldeak biltzeko eta aukeratutako gaiaren diziplina anitzeko eta lankidetzazko ikuspegia sustatzeko. 1994. eta 1999. urteetako aurrekariak kontuan hartu beharko dira.<br><br>Goizeko topaketa bat proposatzen da: banakako aurkezpen laburrak, mahai-inguru bat eta, amaitzeko, eztabaida bat egingo lirateke bertaratutako guztiekin.<br><br>Topaketa ikertzaileei zuzenduta dago, baina proposatutako gaian interesa duten eragile guztiek ere har dezakete parte (teknikariak, profesionalak, eragile sozioekonomikoak). Argitalpen digital bat egitea proposatzen da, topaketako materialekin, eta UBEren webgunean jartzea, hedapena sustatzeko. | | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak | |
| 15.000 € bi urtean behin (topaketaren antolakuntza eta materialen edizio digitala). | 2017-2024 | Sustatzailea: GIIHK<br>UBEko zerbitzua<br>UPV-EHU<br>Ikerketa-taldeak | |

| Ekintza | | | |
|---|---|---|---|
| E.6.4.3 | Ikerketaren emaitzak Lankidetza Batzordeari, Osoko Bilkurari eta sektoreko mahaiei helaraztea. | | |
| Deskribapena | | | |
| UBEri buruz egindako ikerketa zientifikoaren emaitzen inguruko oinarrizko informazioa urtero Lankidetza Batzordeari, Osoko Bilkurari eta aurrez beharrak eta lehentasunak identifikatzen parte hartu duten sektoreko mahaiei helaraztea. | | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak | |
| Kostua UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratuta dago. | 2017-2024 | Sustatzailea: GIIHK<br>UBEko zerbitzua<br>Lankidetza Batzordea<br>Patronatuaren Osoko Bilkura<br>GIHko mahaia<br>Eskualdeko turismo-mahaia<br>UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko urteko topaketako parte-hartzaileak | |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 6 | Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea. |
| Helburu espezifikoa | H.6.5 | Patronatuak sustatuta, Garapen iraunkorraren alorreko ikerketa- edo behaketa-jarduerei berriz heltzea edo eustea. |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.6.5.1 | Natura-inguruneari, eta kultura-, gizarte- eta ekonomia-ondareari buruzko informazioa duten datu-baseak. | |
| Deskribapena | | |
| UBEren datu-base integratu bat mantentzea eta sustatzea. Datu-base hori lehendik dauden datu-baseei (Eusko Jaurlaritzako natura-ondarearen datu-basea, Eustat, etab.) lotuta egongo da, bai eta detektatutako ikerketa-beharrei lotuta ere. UBEko Dokumentazio Zentroan kontsultatu ahal izango da, bai eta on line ere, UBEren webgunean. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Erakunde sustatzaileak bere gain hartutako lan teknikoa. | 2018 - 2024 | Sustatzailea: GIIHK<br>UBEko zerbitzua<br>UPV-EHU<br>Ikerketa-taldeak |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.6.5.2 | Urdaibaiko Biosfera Erreserban bizi den biztanleriaren iritziaren egoera. | |
| Deskribapena | | |
| “Urdaibaiko Biosfera Erreserbako biztanleriaren iritziaren egoera” deritzon bost urtez behingo azterketa soziologikoari berriz ekitea, eta haren emaitzak web bitartez zabaltzea. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| 10.000 € azterketa bakoitzeko. | 2016 eta 2021 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>UBEko zerbitzua<br>EJ |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.6.5.3 | UBEren garapen iraunkorrari buruzko kanpoko ebaluazioa. | |
| Deskribapena | | |
| UNESCOren MaB Batzordeko Kontseilu Zientifikoak egindako UBEren hamar urteko Ebaluazio Txostenak egiten jarraitzea. Hamar urteko txosten horien bitartez, Biosfera Erreserben Munduko Sarearen Estatutu Esparruko artikulu bat betetzen da; hain zuzen ere, Biosfera Erreserben egoeraren aldian behingo azterketa aurreikusten duena hamar urtetik behin. Horrez gain, Erreserba bakoitzak azterketak egiten ditu urtero adierazle-sistema baten bitartez, eta gero, UBEren zerbitzuak MaB batzordeari igortzen dizkio horiek. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Kostuaren zati bat UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratuta dago, eta beste zati bat OAPNen. - MaB Programa. | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua |

| Ekintza | | |
|---|---|---|
| E.6.5.4 | UBEren garapen iraunkorraren behatokia. | |
| Deskribapena | | |
| UBEko zerbitzuan, BFAk kalkulatutako Iraunkortasun Adierazleen Sistema – Bizkaia 21eko adierazleen integrazioa lantzea, eta UBEko udalerrietako datuak eranstea; gero, urtero jarraipena egitea.<br><br>Aurrez egindako ikerketak hartu behar dira kontuan, hala nola Ingurumenaren Egoerari eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren garapenari buruzkoak. Adierazle horiek planaren beraren eta haren gauzatzearen jarraipen-programaren adierazle gisa egokiak ote diren aztertuko da, eta horiek biltzeak lana aurreztuko ote lukeen ebaluatuko da.<br><br>Kudeaketa hobetzeko behar diren proposamenak zehaztea, horretarako beharra duten adierazleen emaitzak hobetzeko.<br><br>Adierazleen bilakaeraren berri ematea, UBEko hainbat urtetarako Komunikazio Programan aurreikusitako kanalen bitartez: buletin elektronikoa, papereko edizioko informazio-buletina, web orria, etab. | | |
| Aurrekontua | Egutegia | Inplikatutako eragileak |
| Kostuaren zati bat UBEko zerbitzuaren lanaren esparruan barneratuta dago, eta beste zati bat OAPNen. - MaB Programa. | 2015-2024 | Sustatzailea: UBEko zerbitzua<br>BFA (jasangarritasuna)<br>RRBBEE (OAPN) |



## 3.6. Gutxi gorabeherako aurrekontua

Aurrekontuaren laburpen-taula, programen arabera:

| Programa | Guztira (€) |
|---|---|
| 1. programa. Koordinazioa eta Lankidetza | 785.000,00 |
| 2. programa. Informazioa eta Komunikazioa | 440.000,00 |
| 3. programa. Dibulgazioa eta Interpretazioa | 675.000,00 |
| 4. programa. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza: Hezkuntza Testuinguru Formala eta Ez-Formala | 272.000,00 |
| 5. Programa. Iraunkortasunerako Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza | 171.000,00 |
| 6. programa. Ikerketa Zientifikoa | 480.000,00 |
| Guztizko orokorra | **2.823.000,00** |





# 4. Jarraipen- eta ebaluazio-programa

## 4. 1. Jarraipenaren arduraduna

Idazkaritza Tekniko bakoitzeko arduraduna arduratuko da PICE-IGHPren eta haren gauzatze-mailaren jarraipena egiteaz.

## 4.2. PICE-IGHP berrikustea

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako garapen iraunkorraren arloko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-planak 10 urterako plangintza hartzen du barnean (2015-2025).

Idazketaren egoeraren eta plana onartu zen uneko baldintza sozioekonomikoen ondorioz, interesgarri irizten zaio kudeaketa moldagarria izateari; hori dela eta, hainbat jarraipen-mekanismo aurkezten dira:

— Ekintza-planean, UBEko jardueraren urteko memoria bat idaztea proposatzen da. Komunikazio-tresna hori gauzatze-mailaren eta, egutegiaren arabera, proposatutako ekintzen garapenaren urteko jarraipena egiteko baliatuko da.

— Plana gauzatu eta handik hiru (2018), sei (2021) eta bederatzi urtera (2024) behean azaldutako adierazleak berrikustea proposatzen da, helburuaren eta programaren arabera; hala, helburuak bete ote diren ebaluatuko da (espero diren emaitzak kontuan hartuta).

— Berrikuste partzial horrek plana eta gauzatze-maila berriz ebaluatzeko balio behar du, bai eta haren ekintza berriz mailakatzeko; horrenbestez, 10 urterako ekintza estrategikoa pentsatuko da eta behar diren aldaketak erantsiko dira. Eta horrela, 3 urtetik behin 10 urterako plangintza egingo da; horri esker, ikuspegi estrategikoa lortuko da, baina, aldi berean, kudeaketa erreala eta zehatzagoa ere, aldakorra den testuinguru sozioekonomiko honetan.

33 helburu espezifiko eta 98 ekintza proposatu dira.

Berrikuste partaidetua:

3 urtez behin aurreikusitako berrikuspenean, programa bakoitzeko eragile nagusiei adierazleen azalpen bat egitea proposatzen da; hala, elkarrekin parte hartu ahal izango dute ebaluazioan, eta pentsatze-lan estrategikoa egingo dute.



## 4. 2. 1. Koordinazio eta Lankidetza Programaren jarraipen-adierazleak

| Helburua | Kop. | Deskribapena | Adierazlea | Informazio-iturria |
|---|---|---|---|---|
| Helburu orokorra | 1 | Garapen iraunkorraren alorreko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-eragileen koordinazioa eta lankidetza lortzea, eremu bakoitzean eta horien guztien artean; hala, elkarrekin, UBEn garapen iraunkorra lortzeko aurrera egite aldera. | | |
| Helburu espezifikoa | H.1.1 | Planaren alor bakoitzeko eragileen artean eta horien eta Patronatuaren artean komunikaziorako eta lankidetzarako mekanismo eraginkorrak izatea. | Azken urtean koordina-zio-batzordeetara bertaratu den erakunde kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3)<br><br>Bileren aktak. |
| Helburu espezifikoa | H.1.2 | Partaidetzaren bitartez, Madariaga dorretxeari lankidetzazko ekipamendu gisa antolakuntza funtzionaleko eredu berri bat zehaztea, dauden interpretazio-, hezkuntza- eta turismo-ekipamenduen eta -zerbitzuen artean koordinazioa eta sinergiak sortzea lortze aldera. | — | — |
| Helburu espezifikoa | H.1.3 | UBEn, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean garapen iraunkorrerako koordinazio-mekanismo eraginkor eta eskuragarri bat izatea. | GIHko koordinatzailea egotea. | Urteko jarduera-memo-ria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.1.4 | Lankidetza-sareei eustea. | UBEko Zerbitzu Teknikoaren urteko bilera kopurua edo lankidetza-sareetako ordezkari kopurua. | Urteko jarduera-memo-ria (E.2.3.3). |



## 4. 2. 2. Informazioa eta Komunikazioa Programaren jarraipen-adierazleak

| Helburua | Kop. | Deskribapena | Adierazlea | Informazio-iturria |
|---|---|---|---|---|
| Helburu orokorra | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. | | |
| Helburu espezifikoa | H.2.1 | UBEren informazio- eta komunikazio-ekintzak ondo planifikatuta eta koherentziaz gauzatzea. | Urteko komunikazio-ekintzak. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.2.2 | UBEren webgune korporatibo bat izatea, UBEri buruzko informazio guztia hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan integratuko duena. | Webgunean jasotako bisiten trafikoa. | Web analisia. |
| Helburu espezifikoa | H.2.3 | UBEri eta tokiko biztanleei zuzenduta dituen jarduerei buruzko informazioa eta komunikazioa hobetzea, biztanleriak UBErekin eta haren jarduerekin bat egin dezan; hori guztia, UBEren hainbat urtetarako etorkizuneko komunikazio-programaren esparruan. | UBEren ezagutzari eta haren pertzepzio sozialari buruzko adierazleak<br><br>(3.1.2 Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren izendapenari buruzko iritzia). | Urdaibaiko Biosfera Erreserban bizi den biztanleriaren iritziaren egoera. (A.6.5.2). |
| Helburu espezifikoa | H.2.4 | UBEri buruzko informazio-puntuak eta bisitarien harrera-puntuak izatea. | UBEko informazio-puntu kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.2.5 | UBEren dokumentazio-zentroa eguneratuta, eraginkor eta UBEren organo kudeatzaileari lotuta izatea. | UBEko dokumentazio-zentroan jasotako bisita kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.2.6 | UBEri dagokion lurraldean, seinaleztapen bakar osoa eta homogeneoa lortzea, lurraldean seinaleztapena ezartzen duten eragileekin adostuta eta bateratuta. | — | — |



## 4. 2. 3. Dibulgazioa eta Interpretazioa Programaren jarraipen-adierazleak

| Helburua | Kop. | Deskribapena | Adierazlea | Informazio-iturria |
|---|---|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. | | |
| Helburu espezifikoa | H.3.1 | UBEren etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan, UBE ezagutzeko eta haren balioa handitzeko jarduerak biltzea eta zabaltzea, tokiko biztanleriari pizgarriak eskainita. | UBEk tokiko biztanleri-arentzat antolatutako jar-duera kopurua. | Urteko jarduera-memo-ria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.3.2 | Bisitariari UBEren ikuspegi osoa eskainiko dion dibulgazio-materialen oinarrizko bilduma bat izatea, bai eta tokiko ingurunea eta kultura ezagutzeko eta errespetatzeko beharrezko informazioa ere, idazteko dagoen etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan. | UBEren dibulgaziorako eskuragarri dagoen pro-duktu kopurua. | Urteko jarduera-memo-ria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.3.3 | UBEren Informazio eta Interpretazio Zentro bat izatea Madariaga dorretxean. | Madariaga dorretxeko zentroko bisitari kopu-rua. | Eskolako Agenda 21en memoria. |
| Helburu espezifikoa | H.3.4 | Egindako informazio- eta dibulgazio-materialen banaketa-sare zabal eta eraginkor bat ezartzea, haien hedapena tokiko biztanleriaren artean nahiz UBEra hurbiltzen diren turisten artean maximizatzeko. | UBEko informazio-puntu kopurua. | Eskolako Agenda 21en memoria. |
| Helburu espezifikoa | H.3.5 | UBEko bideak sustatzea eta haien berri ematea, lurraldea ezagutzeko eta interpretatzeko baliabide garrantzitsua diren aldetik. | Erlazionatutako interpre-tazio-elementuak dituzten bideen kilome-tro kopurua. | Urteko jarduera-memo-ria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.3.6 | UBEko natura- eta kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzea, haren bisitarako eta interpretaziorako, bai eta baliabide turistikoa den aldetik ere. | UBEko interpretazio elementuak barnean hartzen dituzten pakete turistikoak. | Urteko jarduera-memo-ria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.3.7 | Ezagutzen koordinaziorako, lankidetzarako, transmisiorako eta trukerako mekanismoak izatea, ondarearen interpretazioan eta turismoan inplikatutako eragile guztien artean. | UBEn antolatutako ingurumen-interpretazioari buruzko topaketara bertaratutakoen kopurua. | Urteko jarduera-memo-ria (E.2.3.3). |



## 4. 2. 4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza: hezkuntza testuinguru formala eta ez formala Programaren jarraipen-adierazleak

| Helburua | Kop. | Deskribapena | Adierazlea | Informazio-iturria |
|---|---|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. | | |
| Helburu espezifikoa | H.4.1 | Adostutako kalitate-irizpideak ezartzea eta aplikatzea UBEko GIH-ekipamenduetan eta -programetan, etengabeko jarraipen-, ebaluazio- eta hobekuntza-prozesu baten barruan. | Kalitate-irizpideen arabera funtzionatzen duten ekipamenduak eta programak. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.4.2 | Garapen iraunkorrerako hezkuntza-berrikuntza lortzeko, ekintza-programa oso eta koherente bat zehaztea eta ezartzea. | UBEn, GIHren alorreko berrikuntzarako Ekintza Programa ezartzen inplikatutako eragileak. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.4.3 | Gizarte-ingurunea ikastetxeetako hezkuntza-proiektuekin uztartzea eta inplikatzea. | UBEko tokiko ingurune zehatzetan EA21eko ikastetxeek garatzen dituzten hezkuntza-proposamenen kopurua. | Eskolako Agenda 21en memoria. |
| Helburu espezifikoa | H.4.4 | Iraunkortasun-ziurtagiri bati atxikitako ikastetxeen ehunekoa areagotzea. | Iraunkortasun ziurtagiri bati atxikitako ikastetxe kopurua. | Eskolako Agenda 21en memoria. |
| Helburu espezifikoa | H.4.5 | Berrikuntzarako garapen iraunkorrerako hezkuntza-esperientzien eta -metodologien trukeak erraztea. | UBEko Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Jardunaldira bertaratutakoen kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.4.6 | Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza barneratzea, lurraldearen kudeaketarako zeharkako alderdi gisa. | Erlazionatutako GIHrako jardueren proiektu exekutiboen kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.4.7 | Gaztediaren inplikazioa lortzea, garapen iraunkorrerako aldaketa-eragile diren aldetik. | UBEko edozein ekitalditara bertaratutako pertsonen batez besteko adina. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |



## 4. 2. 5. Iraunkortasunerako Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programaren jarraipen-adierazleak

| Helburua | Kop. | Deskribapena | Adierazlea | Informazio-iturria |
|---|---|---|---|---|
| Helburu orokorra | 5 | UBEko komunitateak beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izatea, ingurumenaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorrean lurraldean garapen iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko. | | |
| Helburu espezifikoa | H.5.1 | UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea. | UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren eta gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak izatea. | UBEko Bulegoaren barne-txostena. |
| Helburu espezifikoa | H.5.2 | Eragile hauetako bakoitzari zuzendutako prestakuntza-/gaikuntza-ekintza antolatzea, eta horien artean elkarren arteko prestakuntza sustatzea:<br>—Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioan jarduten duten langileak.<br>—Hezkuntza ez-formaleko zentroetako hezitzaileak.<br>—Zerbitzuen sektorea eta turismoa.<br>—Lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza edo basogintza).<br>—Industria- eta eraikuntza-sektorea. | Sektore bakoitzeko prestakuntza-ekintza kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.5.3 | Udaletako arduradun politikoei eta teknikariei UBEren kudeaketaren inguruko informazio garrantzitsuenaren berri ematea: helburuak, balioak, ekintzak, etab. | Buletin elektronikora harpidetutako udal kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.5.4 | UBEko irakasleei zuzendutako prestakuntza-eskaintza handitzea, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean metodologia berritzaileak txertatzeko eta UBErekin lotura estuagoa lortzeko. | Sektore bakoitzeko prestakuntza-ekintza kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |



## 4. 2. 6. Ikerketa Zientifikoa Programaren jarraipen-adierazleak

| Helburua | Kop. | Deskribapena | Adierazlea | Informazio-iturria |
|---|---|---|---|---|
| Helburu orokorra | 6 | Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea. | | |
| Helburu espezifikoa | H.6.1 | Ikerketa-jarduera koordinatzea. | Ikerketa-jardueraren koordinatzailerik ba ote dagoen. | |
| Helburu espezifikoa | H.6.2 | UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketa zientifikoaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea. | UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketa zientifikoaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak izatea. | UBEko Bulegoaren barne-txostena. |
| Helburu espezifikoa | H.6.3 | UBErako identifikatutako beharrak jorratzen dituzten ikerlan zientifiko aplikatuak sustatzea. | Ildo estrategikoekin lerrokatutako ikerketa-proiektu kopurua. | UBEko Bulegoaren barne-txostena. |
| Helburu espezifikoa | H.6.4 | Ezagutza zientifikoaren trukerako eta transmisiorako tresna egonkorrak ezartzea. | UBEko ikerketari buruzko topaketara bertaratutakoen kopurua. | Urteko jarduera-memoria (E.2.3.3). |
| Helburu espezifikoa | H.6.5 | Patronatuak sustatuta, Garapen iraunkorraren alorreko ikerketa- edo behaketa-jarduerei berriz heltzea edo eustea. | — | — |



## 4. 3. Etorkizuneko agertokia eta espero diren emaitzak

Helburu bakoitzak zehaztuta ditu espero diren emaitzak, Planaren aplikazioaren amaieran (10 urte) lortu nahiko liratekeenak.

Emaitza horiek gutxi gorabeherakoak dira, nora iritsi nahi den eta zer lortu nahi den kontuan hartzen badugu; planaren jarraipen zehatza egiteko, adierazleak aurkeztu dira.

### 4.3.1. Koordinazio eta Lankidetza Programa

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 1 | Garapen iraunkorraren alorreko interpretazio-, ikerketa-, gaikuntza- eta hezkuntza-eragileen koordinazioa eta lankidetza lortzea, eremu bakoitzean eta horien guztien artean; hala, elkarrekin, UBEn garapen iraunkorra lortzeko aurrera egite aldera. |
| Helburu espezifikoa | H.1.1 | Planaren alor bakoitzeko eragileen artean eta horien eta Patronatuaren artean komunikaziorako eta lankidetzarako mekanismo eraginkorrak izatea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Bi urtetik behin UBEko natura- eta kultura-ondarearen interpretazioari buruzko topaketa bat egitea, eta deitutakoen % 75ek parte har dezala. | | |
| Gutxienez Hezkuntza Mahaiaren hiru bilera egitea urtean. | | |
| Gutxienez EA21en lankidetza-sarearen 10 bilera egitean urtean. | | |
| Patronatua 15 foroaren 2 bileratara joan dadila gutxienez urtean. | | |
| Lankidetzako esparru-hitzarmen bat egon dadila UNESCO katedraren eta Patronatuaren artean. | | |
| Ikerketa-koordinazioaren irudia egon dadila UNESCO katedran. | | |
| Patronatua Turismo-foroaren 2 bileratara joan dadila gutxienez urtean. | | |
| Helburu espezifikoa | H.1.2 | Partaidetzaren bitartez, Madariaga dorretxeari lankidetzazko ekipamendu gisa antolakuntza funtzionaleko eredu berri bat zehaztea, dauden interpretazio-, hezkuntza- eta turismo-ekipamenduen eta -zerbitzuen artean koordinazioa eta sinergiak sortzea lortze aldera. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Akordio bat egon dadila MDren, baserri-eskolen eta UBCen artean, lankidetza-eginkizun berria ezartzeko. | | |
| Akordio bat egon dadila MDren eta beste turismo-eragile batzuen artean (gutxienez hiru), lankidetza-eginkizun berria ezartzeko. | | |
| Helburu espezifikoa | H.1.3 | UBEn, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean garapen iraunkorrerako koordinazio-mekanismo eraginkor eta eskuragarri bat izatea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Zentro formalentzako nahiz ez-formalentzako GIHren alorreko koordinazio- eta aholkularitza-irudia egon dadila. | | |
| Hezkuntza ez-formalaren Mahaiaren hiru bilera egitea gutxienez urtean. | | |
| Helburu espezifikoa | H.1.4 | Lankidetza-sareei eustea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Biosfera Erreserbak Biosfera Erreserben Espainiako Sarearen urteko 2 bileretan parte har dezala. | | |
| Biosfera Erreserbak gutxienez nazioarteko bi truke-programatan parte har dezala (UNESCO). | | |
| Biosfera Erreserbak EUROPARCen urteko bileran parte har dezala. | | |

## 4.3.2. Informazio eta Komunikazio Programa

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 2 | Interpretazioaren, ikerketaren, gaikuntzaren, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta turismoaren alorrean, UBEri eta haren jarduerari buruzko informazio-fluxua lortzea, tokiko biztanleekiko eta bisitariekiko. |
| Helburu espezifikoa | H.2.1 | UBEren informazio- eta komunikazio-ekintzak ondo planifikatuta eta koherentziaz gauzatzea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Komunikazio-arduradun bat izatea UBEn. | | |
| UBEn, hainbat urtetarako komunikazio-programa bat izatea indarrean. | | |
| Urdaibai markaren erabilera eta haren erabiltzaileak arautuko dituen marka-estrategia eta -eskuliburu bat izatea. | | |
| Helburu espezifikoa | H.2.2 | UBEren webgune korporatibo bat izatea, UBEri buruzko informazio guztia hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan integratuko duena. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEk webgune korporatibo bat izan dezala, E.2.2.1 ekintzan zehaztutako funtzioak egin ahal izateko. | | |
| Egungo webgune korporatiboarekin alderatuta (www.euskadi.net/urdaibai), adierazle hauei eustea edo horiek areagotzea:<br>—Guztizko trafikoa.<br>—Bilatzaileetatik datorren trafikoa.<br>—Hartzeko estekak. | | |
| Helburu espezifikoa | H.2.3 | UBEri eta tokiko biztanleei zuzenduta dituen jarduerei buruzko informazioa eta komunikazioa hobetzea, biztanleriak UBErekin eta haren jarduerekin bat egin dezan; hori guztia, UBEren hainbat urtetarako etorkizuneko komunikazio-programaren esparruan. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Urtean gutxienez 3 artikulu eta 3 albiste argitaratzea, tokiko, lurraldeko eta autonomia-erkidegoko eta estatu-mailako komunikabide batean. | | |
| UBEri buruzko informazioa ematea, gutxienez irrati- eta telebista-kate batean. | | |
| Youtuben, Twitterren eta Facebooken kontu bana izatea, UBEren hedapenerako. | | |
| Sail edo tarte bat izatea, gutxienez hedapen zabaleko tokiko egunkari eta/edo aldizkari batean. | | |
| UBEko jardueren urteko memoria. | | |
| Plan honetan inplikatutako eragileek jardueren urteko memoria jaso dezatela. | | |
| UBEri buruzko buletin elektroniko bat izatea. | | |
| Hiru hilabetean behin argitaratuko den papereko informazio-buletin bat izatea, informazio-puntuetan, ikastetxeetan eta udal-ekipamendu nagusietan eskuragarri egongo dena. | | |
| EKPZi buruzko eskuliburu praktiko bat izatea, doan banatuko dena. | | |
| JSHGPi buruzko eskuliburu praktiko bat izatea, doan banatuko dena. | | |
| EKPZ aurkezteko saioa bat gutxienez egitea, tokiko biztanleriari eta haren erregulazioak eragindako gizarte-eragile nagusiei. | | |
| JSHGP aurkezteko saioa bat gutxienez egitea, tokiko biztanleriari eta haren erregulazioak eragindako gizarte-eragile nagusiei. | | |

| | | |
|---|---|---|
| Helburu espezifikoa | H.2.4 | UBEri buruzko informazio-puntuak eta bisitarien harrera-puntuak izatea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Dauden turismo-bulegoek eremu espezifiko bat izan dezatela UBEri buruzko informazio- eta dibulgazio-materialekin. | | |
| Interpretaziorako eta Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako ekipamenduek eremu bat izan dezatela UBEri buruzko informazio- eta dibulgazio-materialekin. | | |
| Turismo-establezimenduek (batez ere, informazio-puntuek eta landa-turismoko establezimenduek) eremu bat izan dezatela UBEri buruzko informazio- eta dibulgazio-materialekin. | | |
| Helburu espezifikoa | H.2.5 | UBEren dokumentazio-zentroa eguneratuta, eraginkor eta UBEren organo kudeatzaileari lotuta izatea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEri buruzko Dokumentazio Zentro bat izatea, UBEri buruzko informazio guztia zentralizatuko duena. | | |
| UBEko Dokumentazio Zentroko dokumentu-funts guztiaren katalogo digital bat izatea, Euskadiko liburutegien bitartez eskuragarri. | | |
| Helburu espezifikoa | H.2.6 | UBEri dagokion lurraldean, seinaleztapen bakar osoa eta homogeneoa lortzea, lurraldean seinaleztapena ezartzen duten eragileekin adostuta eta bateratuta. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEri dagokion lurraldean udalekin eta Urremendi LGErekin adostutako seinaleztapen-eredu homogeneo eta bateratu bat izatea. | | |
| UBEko sarrerak, GIHren alorreko ekipamendu ez-formalak, interpretazio-baliabide nagusiak eta bideak adierazten dituen seinaleztapena izatea. | | |



### 4.3.3. Dibulgazio eta Interpretazio Programa

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 3 | UBEk oro har eskaintzen dituen balioak eta aukerak ezagutzera ematea, baina, bereziki, tokiko biztanleriari eskaintzen dizkionak. |
| Helburu espezifikoa | H.3.1 | UBEren etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan, UBE ezagutzeko eta haren balioa handitzeko jarduerak biltzea eta zabaltzea, tokiko biztanleriari pizgarriak eskainita. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEk kultura- eta jai-giroko urteko jarduera-programa bat antola dezala, bereziki tokiko biztanleriari zuzendua. | | |
| Urdaibai Eguna antolatzea, gutxienez bi urtean behin. | | |
| Biztanleriari informazio-ekintzak eskaintzea, UBEn natura-ingurunea zaintzeak dituen onurei buruz. | | |
| Helburu espezifikoa | H.3.2 | Bisitariari UBEren ikuspegi osoa eskainiko dion dibulgazio-materialen oinarrizko bilduma bat izatea, bai eta tokiko ingurunea eta kultura ezagutzeko eta errespetatzeko beharrezko informazioa ere, idazteko dagoen etorkizuneko hainbat urtetarako komunikazio-programaren esparruan. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEko zerbitzuak baloratutako dibulgazio-materialen inbentario bat izatea. | | |
| Oinarrizko argitalpenen bilduma bat izatea. | | |
| Urtero aurrekontu-partida bat eskainita, material berrien prestakuntzaren, argitalpenaren eta hedapenaren plangintza egitea, sekuentziatuta eta mailaz maila. | | |
| Material eta argitalpen berrien % 100ek UBEko hainbat urtetarako Komunikazio Programaren ildoei jarrai diezaietela. | | |
| *Merchandising* produktu-lerro bat egon dadila, turismo-informazioko puntuetan eta UBEko puntuetan banatuko dena. | | |
| Helburu espezifikoa | H.3.3 | UBEren Informazio eta Interpretazio Zentro bat izatea Madariaga dorretxean. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEren Informazio eta Interpretazio Zentro bat izatea Madariaga dorretxean. | | |
| UBEko informazio- eta interpretazio-zentroak UBEko zerbitzuen eta jardueren eskaintzari buruzko informazio guztia zentralizatu dezala, eta erabiltzaileak erakartzeko eta bideratzeko gune gisa lan egin dezala. | | |
| Madariaga dorretxeko ekipamendura bertaratutako bisitari kopuruari eustea edo kopuru hori handitzea. | | |
| Madariaga dorretxean jasotako bisitarien % 35 UBEtik etor dadila. | | |
| Helburu espezifikoa | H.3.4 | Egindako informazio- eta dibulgazio-materialen banaketa-sare zabal eta eraginkor bat ezartzea, haien hedapena tokiko biztanleriaren artean nahiz UBEra hurbiltzen diren turisten artean maximizatzeko. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEri buruzko informazio- eta dibulgazio-materialen banaketa-sare eraginkor bat izatea. | | |
| UBEri buruzko informazio- eta dibulgazio-material eguneratuak izatea UBEko informazio-puntuetan, ikastetxeetan eta jende gehien erakartzen duten udal-ekipamenduetan. | | |
| Urtero UBEko informazio-puntu guztientzako baliagarria izango den txosten bat izatea, bisitarien asebetetzeari eta haien ezaugarri nagusiei buruz. | | |

| Helburu espezifikoa | H.3.5 | UBEko bideak sustatzea eta haien berri ematea, lurraldea ezagutzeko eta interpretatzeko baliabide garrantzitsua diren aldetik. |
|---|---|---|
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEko bideen plan bat izatea. | | |
| Planak barnean hartzen dituen UBEko bideak ibilbide guztian seinaleztatuta eta egoera onean egon daitezela. | | |
| Planak barnean hartzen dituen UBEko bideek interpretazio-materiala izan dezatela. | | |
| Mugikortasun urriko pertsonei eta ikusteko edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonei egokitutako bide bat izatea gutxienez. | | |
| Helburu espezifikoa | H.3.6 | UBEko natura- eta kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzea, haren bisitarako eta interpretaziorako, bai eta baliabide turistikoa den aldetik ere. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEn dauden interpretazio-baliabideen inbentario eguneratu bat izatea. | | |
| Interpretazio-ekipamenduek (MD, baserri-eskolak, UBC, SEEZ, turismo-eragileak) jasotzen duten bisitari kopuruari eustea edo hura handitzea. | | |
| UBEko bisitariek informazio-prozesuen balorazioari eustea edo balorazio hori hobetzea. | | |
| Helburu espezifikoa | H.3.7 | Ezagutzen koordinaziorako, lankidetzarako, transmisiorako eta trukerako mekanismoak izatea, ondarearen interpretazioan eta turismoan inplikatutako eragile guztien artean. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Bi urtetik behin ingurumen-interpretazioari buruzko topaketa bat egin dadila UBEn, interpretazio-, hezkuntza- eta turismo-eragileen parte-hartzearekin. | | |
| Hurrengo topaketetan bertaratutakoen kopurua gero eta handiagoa izan dadila. | | |
| Topaketetako proposamen eta balorazio kualitatiboak argitaratzea eta zabaltzea. | | |
| UBEko Turismo Iraunkorraren ziurtagiria jaso dezala. | | |



### 4.3.4. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Programa: hezkuntza testuinguru formala eta ez-formala

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 4 | Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean, erreferentziazko ikasketa-, berrikuntza- eta esperimentatze-gune bihurtzea, komunitate guztiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. |
| Helburu espezifikoa | H.4.1 | Garapen iraunkorrerako hezkuntza-berrikuntza lortzeko, ekintza-programa oso eta koherente bat zehaztea eta ezartzea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| GIHren alorreko berrikuntzarako Ekintza Plan bat egon dadila UBEn, inplikatutako eragileekin adostua. | | |
| GIHren alorreko 3 proposamen berritzaile gauzatu daitezela, biztanleriaren sektore berriak kontuan hartzeko. | | |
| SEEZak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurrei zuzendutako programa berritzaileen eta sozio-konstruktibisten garapena proposa dezala. | | |
| Udalditik kanpo, 3 esperientzia berritzailea burutzea, UBEko 3 ekipamenduk sustatuta. | | |
| Urtean 4.000 pertsonak har dezatela parte UBEko “Aztertu” programan. | | |
| 5 esperientzia-tipologia gara daitezela inguruan, APS programaren barruan. | | |
| UBCren “Inguruko Hegaztiak” programan 15 ikastetxek har dezatela parte. | | |
| BFAren GAP programan UBEko 5 udalerrik har dezatela parte. | | |
| Helburu espezifikoa | H.4.2 | Gaztediaren inplikazioa lortzea, garapen iraunkorrerako aldaketa-eragile diren aldetik. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEri buruzko Gazte Foro bat antolatzea (hiru urtetik behin), gazteek UBEri buruz dituzten ikuspegiak eta ekoizpenak elkarbanatzeko. | | |
| UBEren inguruko e-learning ekimen bat egon dadila eskuragarri. | | |
| Herritar-ikerketaren alorreko 5 ekimen egon daitezela funtzionamenduan. | | |
| Helburu espezifikoa | H.4.3 | Adostutako kalitate-irizpideak ezartzea eta aplikatzea UBEko GIH-ekipamenduetan eta -programetan, etengabeko jarraipen-, ebaluazio- eta hobekuntza-prozesu baten barruan. |
| Espero diren emaitzak | | |
| GIHren alorreko Hezkuntza Kalitateko Irizpideen dokumentu adostu bat egon dadila UBEn. | | |
| Gutxienez 10 jardunbide egoki identifikatzea urtean. | | |
| UBEn dauden hezkuntzaren alorreko jardunbide egokiak argitaratzea 5 urtetik behin. | | |
| Helburu espezifikoa | H.4.4 | Iraunkortasun-ziurtagiri bati atxikitako ikastetxeen ehunekoa areagotzea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEko ikastetxeen % 100ek EA21 programan jarrai dezala. | | |
| 2019. urterako, ikastetxeen % 75ek, eta 2023. urterako, % 100ek izan dezala “iraunkortasunerako eskola” ziurtagiria. | | |
| “Iraunkortasunerako eskola” ziurtagiria duten eskolak UNESCOren eskolen munduko programari atxiki daitezela. | | |

| Helburu espezifikoa | H.4.5 | Gizarte-ingurunea ikastetxeetako hezkuntza-proiektuekin uztartzea eta inplikatzea. |
|---|---|---|
| Espero diren emaitzak | | |
| EA21eko ikastetxeen hezkuntza-proposamenen % 35 UBEko tokiko ingurune zehatzetan (ikastetxetik kanpo) gara daitezela zuzenean. | | |
| Urtean 4.000 pertsonak har dezatela parte UBEko “Aztertu” programan. | | |
| 5 esperientzia-tipologia gara daitezela inguruan, APS programaren barruan. | | |
| Helburu espezifikoa | H.4.6 | Berrikuntzarako garapen iraunkorrerako hezkuntza-esperientzien eta -metodologien trukeak erraztea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Urtean GIHri buruzko Prestakuntza Jardunaldi bat egin dadila, eta deitutakoen % 75ek har dezala parte. | | |
| Gutxienez 10 jardunbide egoki identifikatzea urtean. | | |
| UBEn dauden hezkuntzaren alorreko jardunbide egokiak argitaratzea 5 urtetik behin. | | |
| Aholkularitzako, koordinazioko eta prestakuntzako hezkuntza-zerbitzu espezifiko bat egon dadila, UBEko ingurumen-hezkuntzako ekipamenduei (testuinguru ez-formala) bereziki zuzendua. | | |
| Helburu espezifikoa | H.4.7 | Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza barneratzea, lurraldearen kudeaketarako zeharkako alderdi gisa. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Patronatutik garatutako proiektu guztietan erlazionatutako hezkuntza- eta dibulgazio-jarduerak antola daitezela. | | |
| UBEn garatutako plan eta programa guztiek GIHren alorreko ekintza zehatzak izan ditzatela lotuta beren garapenean. | | |



## 4.3.5. Iraunkortasunaren Alorreko Prestakuntza / Gaikuntza, Partaidetza eta Ekintza Programa

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 5 | UBEko komunitateak beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izatea, ingurumenaren, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen alorrean lurraldean garapen iraunkorra lortze aldera aurrera egiteko. |
| Helburu espezifikoa | H.5.1 | UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEren garapen iraunkorrerako, prestakuntzaren/gaikuntzaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostuta izatea. | | |
| Prestakuntza-/gaikuntza-ekintzen urteko plangintza bat izatea. | | |
| Helburu espezifikoa | H.5.2 | Eragile hauetako bakoitzari zuzendutako prestakuntza-/gaikuntza-ekintza antolatzea, eta horien artean elkarren arteko prestakuntza sustatzea:<br>—Natura- eta kultura-ondarearen interpretazioan jarduten duten langileak.<br>—Hezkuntza ez-formaleko zentroetako hezitzaileak.<br>—Zerbitzuen sektorea eta turismoa.<br>—Lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza edo basogintza).<br>—Industria- eta eraikuntza-sektorea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Urtero prestakuntza-/gaikuntza-ekintza bat egitea identifikatutako eragile bakoitzari: urtean 6 ekintza. | | |
| Jolas-jarduerak antolatzen dituzten eragileek UBEren barruan jarraitu beharreko irizpideen eta arauen gidaliburu praktiko bat izan dezatela eskura. | | |
| UBEn interpretazioa egiten duten eragileen % 60k UBEko gidari interpretatzaileen ikastaroa eginda izan dezala. | | |
| Helburu espezifikoa | H.5.3 | Udaletako arduradun politikoei eta teknikariei UBEren kudeaketaren inguruko informazio garrantzitsuenaren berri ematea: helburuak, balioak, ekintzak, etab. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Tokian tokiko eta autonomia-erkidegoko gobernu-taldeetako kide hautetsiek UBEri buruzko informazio-saio bat jaso dezatela legegintzaldiaren hasieran. | | |
| Udaletako arduradun politikoek Patronatuaren Osoko Bilkurako aktak eta UBEren kudeaketa-memoriak jaso ditzatela. | | |
| Udaletako arduradun politikoen eta teknikoen % 100 UBEko buletin elektronikoaren harpidedun izan dadila. | | |
| Aholkularitza- eta orientazio-zerbitzura udaletako teknikariek eta politikariek egindako kontsulta kopuruari eustea edo kopuru hori areagotzea, eta balorazio positiboa lortzea zerbitzua baloratzeko inkestan. | | |
| Udalen arteko Konparazio Taldeen metodologian oinarrituta, sarean lan egiteko programa bat abiarazi dadila udal-zerbitzuetan, eta UBEko udalerrien % 75ek har dezala parte. | | |
| EUDELen edo HAEEren bitartez, iraunkortasunaren alorreko prestakuntza-ekintza bat eskain dadila gutxienez, administrazioko langileei eta arduradun politikoei zuzenduta. | | |
| Helburu espezifikoa | H.5.4 | UBEko irakasleei zuzendutako prestakuntza-eskaintza handitzea, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alorrean metodologia berritzaileak txertatzeko eta UBErekin lotura estuagoa lortzeko. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Irakasleen prestakuntza-eskaintzaren barruan (GARATU), urtean ikastaro espezifiko bat eskaintzea, GIHren alorreko hezkuntza-metodologia berritzaileei eta EA21ek lurraldearen behar espezifikoekin duten loturari buruz. | | |

## 4.3.6. Ikerketa Zientifikorako Programa

| | | |
|---|---|---|
| Helburu orokorra | 6 | Ikerketa-jardueraren koordinazioa eta hura UBEko kudeaketaren eta garapen iraunkorraren beharretara egokitzea lortzea. |
| Helburu espezifikoa | H.6.1 | Ikerketa-jarduera koordinatzea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Koordinazioko esparru-hitzarmen bat egon dadila UNESCO katedraren eta UBEren artean. | | |
| UNESCO katedrak ordezkaria izan dezala Patronatuaren Osoko Bilkuran. | | |
| Ikerketa-koordinazioaren irudia egon dadila. | | |
| Helburu espezifikoa | H.6.2 | UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketa zientifikoaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| UBEren garapen iraunkorrerako, ikerketaren alorreko lehentasunezko ildo estrategikoak adostuta izatea. | | |
| Helburu espezifikoa | H.6.3 | UBErako identifikatutako beharrak jorratzen dituzten ikerlan zientifikoak sustatzea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Identifikatutako behar guztiak lantzen dituzten ikerlanak izatea. | | |
| Denborak aurrera egin ahala, adostutako ildo estrategikoetan diharduten ikerketa-proiektuen bolumenari eustea edo bolumen hori handitzea. | | |
| Helburu espezifikoa | H.6.4 | Ezagutza zientifikoaren trukerako eta transmisiorako tresna egonkorrak ezartzea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Amaitutako ikerketa- eta aholkularitza proiektu guztiek aurkezpen-ekintza dibulgatzaile bat izan dezatela. | | |
| Bi urtean behin, ikerketari buruzko topaketa bat antola dadila UBEn. | | |
| Herritar-ikerketaren alorreko 5 ekimen egon daitezela funtzionamenduan. | | |
| Urtero, gauzatutako ikerlanek asetako beharrei buruzko itzulera-lana egitea, Lankidetza Batzordeari, Osoko Bilkurari eta sektoreko mahaiei. | | |
| Helburu espezifikoa | H.6.5 | Patronatuak sustatuta, Garapen iraunkorraren alorreko ikerketa- edo behaketa-jarduerei berriz heltzea edo eustea. |
| Espero diren emaitzak | | |
| Natura-, gizarte- eta ekonomia-inguruneari buruzko informazioaren datu-base bat izatea, egindako jarraipen guztiak bilduko dituena. | | |
| Bost urtean behin, biztanleriak UBEri buruz duen iritziari buruzko ikerketa bat izatea. | | |

# 5. Eranskinak

Dokumentu honek honako eranskin hauek ditu www.euskadi.net/urdaibai helbidean:

—I. Eranskina. Diagnosia.

—II. Eranskina. Lehentasunezko diagnosi-elementuen eta horiek biltzen dituzten helburuen laburpena.

—III. Eranskina. Ekintzen laburpena, gutxi gorabeherako aurrekontuarekin eta egutegiarekin.

